

ARANTZAZU-KO BILTZARRAK

1968 URRIARREN 3, 4 ETA

5-EAN



Euskeraren batasuna



Jaun eta andreak:

Euskaltzaindiari, aurtan, bere 50^{gn}. urte-betetzearen arlo ta zeregin berezi bezela, Euskeraren Batasuna eratu dezala eskatu zaio.

Urte onen lenengo Batzarrean izan zan. Bilbao'n. Orain 50 urteko Oñati'ko euskal-jaiak gogoratzean, urgazle Jaun batek egin zuan eske ori.

Bilbao'ko Batzar artan, aurtan Oñati'n bertan jai berezi batzuek eratzea erabaki zan —jaiak ez baño estudio-egun batzuek obeto—; eta geroztiko gure Batzarretan batasunaren gai ori erabilli da eten-gabe.

Aizkenik, Uzta-illean, euskal-idazleen batzar bat egin da Ermua'n, batasunari dagokion zenbait gauza erabakitzeke; eta, an batzartu diran idazleak ere —geienak bederenik— eskabide bera egin-edo diote gure Euskaltzaindiari: batasuna eratu dezagula, alegia, batasuna eratzeke zer-egina gure gain artu dezagula.

Bitarte ortan, gure illoroko Batzarretan, gai onen zenbait gauza obeto aztertu dira, eta aien artean au batez ere: batasuna nola «aditu» bear dan: noraño egin bear dan, zertan, zer salletan; eta guztion iritzia izan da, batasuna *idazleen artean*, *idazleentzat* egin bear dala: idatzietan, ez izketan (itz, orain arte bezela, bakoitzak bere eran); idazleen artean, ez errian (erriak orain arte bezela); eta idazleak berak beren idazti errikoietan, ez goi-idaztietan (ez olerkietan, eta Nobelistikan, adibidez; ortan idazleak azke gelditzen dirala, bakoitza bere erara). Itz bitan: batasuna bi gauza oietan: a) aldizkarietan («Zeruko Argian», «Anaitasunean», «Yakin'en», «Jaunaren deian», «Laiaketan» etab. etab.); eta b) Ikastoletan, Ikastoletako Liburuetan eta jolasketetan etab. etab.;

d) Liturgiaren zenbait zatitan...

Gauza oiek ondo neurtzeko, berriz, Batzar oietako batean, batzorde berezi bat izendatu zan; eta batzorde orrek neurri oiek ondo mugatzeko, Mitxelena Jaunari eman zion, txosten on bat egiteko agindua. Eta gerotzik Mitxelena Jaunaren babes seguruan izan ditu batzordeak zenbait billera, Mitxelena Jaunaren txostena guztion artean aztertzeko.

Txosten ederra eta ondo pentsatua, gure Euskaltzain-lagun Mitxelena'rena; oñarri orokar batzuen ondoren —ikusiko zenduten— gramatika-auzi guztiak ukitzen ditu ederkitxo: asi Fonetikatik eta Morfologan zear, Ortografiaraño.

Eta aizkenik, batzordekoen artean txosten-zati bakaitzarentzako «ponenteak» izendatu ondoren, amaitu du batzordeak bere lana, eta gaur dana zeurok ikusi eta arakatu ta aztertuko dezute, gai bakoitzean bakoitzak bere iritzia garbi esan dezan, eta ola eratu, mugatu eta atondu, guztiok nai degun batasuna.

Orra, bada, itz gutxitan arazo onen edesti ta historia.

* * *

Orain, etorri zaizkigun ponentziak eta bakoitzak ekarri lezazkeanak, arakutzen asi baño leen, batasunari dagozkion gogora-bear batzuek gogorazi nai dizkitzuet nik emen.

Eta lenengo, Euskeraren batasuna egitea, lan zalla dala, lan gaitza. Euskera, izkuntza ugaria da, bai lexikoan, bai aditzaren jokaeran. Eta ugaritasun ortan, aukera bat egin bearra dago, batasuna lortzeko. Lan zalla. Zer artu?, zer utzi? Irizpide on bat erabilli bear... «Bereizten gaituana utzi»; «guztiontzat berdintsu dana, artu». Bañan zer da, berdintsu dana?, nun dago? Mitxelena jaunak lan luze ta zabala egin bear izan du, ori erabakitzeko. Eskerrak berari.

Bigarren —eta au ez da ohea— Euskeraren batasuna egitea, lan mingarria dala. Gure Izkuntza aberatsa, *pobretu* egin bear; eta orrek, nai-ta-nai-ez, min ematen digu, Euskera dan bezela maite degunoi. Bakoitzak *txikitandikan bizi izan deguna* utzi gañera, eta besterena artu bear; eta orrek ere min ematen digu.

Ala ere, min oiek gora-beera, egin-bearreko lana, batasun-lana. Ebakuntza bat, operazio bat egin bear danean, min izaten da; bañan operazioa, egin-bearreko gauza izan oi-da askotan, biziari laguntzeko, bizirik irauteko. Operazioak gorputza itsusi uzten du; eta ala ere, egin egin bear. Besoa moztea, gorputza beso-bakar uztea da; bañan, egin bear

danean, naiz-ta beso-bakar gelditu, egin egin bear... «obe bait-da —Jau-nak dion bezela— beso-bakar ta begi-bakar ere *bizi*, bi beso ta bi begi-dun *il* baño»...

Euskera biziko bada, batu egin bear, beso-bakartu egin bear, anka-bakartu egin bear... «bizitza dezan, eta ugariago dezan»; indartsuago dedin, alegia; errektuta, laburtuta, batuta, geiagok eta geiagok mintza dezan...

Maastia ere, iñastu, kimatu bear izaten da. Aien geiegi atera oi-ditu urtearen buruan; geiegi ori, moztu egin bear zaio maats-ondoari, maats-mordo mardulagoak emango baditu... Min izango zuan, iñolaz ere, lenengo maastilariak, aien-mozte ori egin bearra, bañan min protxugarria.

Berdin gertatuko da gure Euskeraren maastiarekin ere. Fruitu uga-riagoak emango ditu.

Bañan au ere gogora bear degu. Euskera batutzea ez dala naikoa izango. Euskera batutzea ez da panazea bat euskeraren problema guztientzako. Euskera batutzea, euskeraz errezago ta ugariago mintzatzeko da. Bañan batu ta guzti, guk mintzatzen ez badegu, berdin-berdin ilko zaigu. Eta ola, gure batasun-lan guztiak alperrikakoak izan ditezke. Ez dedilla olakorik gerta.

Bukatu baño leen, beste zer bat, eskabide bat guztioi.

Oñati'n gaude: oñeztar eta ganboarren lur jatorrean... Ez gatzaz-kiela, gure arbaso makur aien urratsai jarrai iñolaz ere. Ez gatzozela Arantzazu'ra, batzuek oñeztar eta besteak ganboar, bakoitzak bere ezpata eskuan, beste iritzikoen aurka gudatzeko prest. Dezagula pake, dezagula batasun —biotzezko batasun— gure BATASUNARI BURUZKO ezta-baidak asterakoan. Eta pake ortan jarrai dezagula, eztabaidak dirauten arte guztian. Eta berdin gero ta gero ere.

Arantzazu izan dedilla orain ere, leen noizpait bezela —orain bost-eun urte bezela— pakezko lokarri guztiontzat Euskeraren alde.

Eta onenbestez, eskerrak Arantzazu'ko fraide frantziskotarra, iru egun oietarako ematen diguten aterpearen alde. Eta beste gabe, guztiok ondo etorriak zaitezteela.

M. Lekuona.

Literatura euskeraren batasunari buruzko biltzar nagusiak Arantzazun

Billeren asmoa:

Euskaltzaindiak, bere sortzearen 50 urte betetzea dala ta, billera nagusi batzuek egin bearra zuen eta gaia autatzean zer obeto bere sor-keraren leenengo asmoa, orain arte erdizka erabakia eta gutxi bete-
a izan dan literatura euskeraren batasuna baiño? 1920-an Campión eta Broussain jauneri agindu zien ortaz estudio bat egin zezaten, eta bi urtera argitaratua izan zen «Euskera» aldizkarian. Geroztik, Azkue, Al-tube, Orixe, Eguskitza eta abar jardun ziran gai orri buruz leen parte artan, eta oraingoan Krutwig, Villasante, Lafitte, Irigaray, eta abar. Ainbeste azterketaren ondorean, materialik eta iritzirik asko jaso da eta, oiek ordenaturik, puntu askotan batasunerako normak eman ditzaz-keala pentsatu da, batasunaren gogoia dutenak alkar artu lezazkean gauzetan beintzat, eta ara emen alkarrizketetara dei egin bearra. Ots! Batasunez mintzatzeko ordua eldu da. Euskeraren etorkizunak ain bea-rrezkoa duen batasuna. Literario batasuna. Eta literatura batasuntzat artzen da euskera idatzia orobat.

Iru eguneko billerak izango dira Arantzazun. Euskaltzaindiak, es-tudio oiek zeatz aztartzeko izendatu zuen batzordekoak, puntuz-puntu adieraziko dituzte, gai oni buruz, beren asmoak euskal idazle eta euskal irakasleen aurrean azalduaz. Guztiak izango dute alkarrizketarako es-kubidea. Eta agerpen bakoitzak bere ondorean izango duen alkarrizketa aintzat artuko da erabagiak emateko.

Biltzarrerako deiak:

Dei egiten zaie, Euskaltzaindiko diranetatik aparte, euskal idazle eta euskal irakasle (naiz euskera irakasten ari direnak edo naiz ikastolatako maixu eta andereño).

Biltzarretara joan ezin diranak, txostenak biali lezazke beren iritziak agertuaz. Txosten auk euskeraz izan bearko dira.

Joaten diran guztiak izango dute itza, naiz Euskaltzaindiko ez izan.

Naiz Euskaltzaindiko edo naiz bertatik kanporako, guztiak errespetatu bearko dute biltzarretarako egin dan araudia.

Biltzarren araudiak:

Gai bakarra *Literatura euskeraren batasuna* izango da. Gai au, Euskaltzaindiaren batzorde teknikoak aurrez estudiantua oiñarriz arturik eramango da, puntuz-puntu zatitua.

Eta, puntuak, auk dira: *Batasunaren bear au zergaitik eta zertarako; ortografia; itzen formak; itz berriak; deklinazioa.*

Puntu bakoitzak izlari bat izango du, batzordeak erabaki duanaren txostena irakurriko duena.

Itzaldi bakoitzaren ondorean alkarrizketa libreia izango da. Itza eskatzen duen bakoitzak amar minutuko epea izango du. Itz-eskaleak, maaiburukoeri begira mintza bearko dira. Itz-eskalea, izlariak eraman duen gaitik irten gabe mintza bearko da.

Alkarrizketak magnetofonuz jasoko dira, gero zeatzago aztertzeko.

Maaiburuko eta Euskaltzaindiak izendatutako batzorde teknikoaren artean artuko dira azken erabakiak.

Guztiak bat ez datoztenean botuetara joko da. Botua, euskaltzainak eta batzorde teknikukoak izango dute. Erabakirako, gutxienez, irutik biren diferentzia izan bearko da.

Izlari autatuak:

Manuel Lekuona euskaltzain-buruak, sarrerako itzaldia: *Batasunaren bearra zergaitik eta zertarako.*

Luis Mitxelena, batzorde teknikoaren buruak: *Ortografia.*

Luis Villasantek: *Itzen formak.*

Anbrosio Zatarainek: *Itz berriak.*

Salbador Garmendiak: *Deklinazioa.*

Maaiburukoak:

Haritschelar, Irigaray, Erkiaga, Lafitte, Larzabal, Irigoyen, Labayen eta Satrustegi jaun euskaltzaiñak. Beretariko norbaitek uts egitera, bertara joaten diran euskaltzaiñak beteko dute.

Azken erabakiak:

Azken erabakiak, ofizialki, azaroan Oñatiko Unibersidadean Euskaltzaindiaren urre-ezteiak ospatzeko izango diran jaialdietan emango dira. Eta ondorean, batasunerako norma guztiak liburu batean argitaratuak izango dira.

Batasunari buruz

Bibliografía

Euskeraren batasuna: orra kezka, asmo edo amets bat beti bizi bizia egon dena, Euskaltzaindia sortu zen ezkeroztik behintzat. Lehenago ere aurkitzen dira gure idazle zaharretan gai huni buruz halako iritzi, zantzu eta antz-emate batzuk; esate baterako, Joannes Leizarraga-n, Axular-en, Sarako Joannes Etcheberri-n, Larramendi-n, eta habar. Baina guk, horiek utzita, Euskaltzaindia sortu zen egunetik hunerakoak aipatuko ditugu bakarrik. Eta lehen lehenik «Euskera» Euskaltzaindiko aldizkarian agertu direnak. Gero, berriz, aldizkari hunetatik kanpora gai huntaz agertu diren beste zenbait lan ere emango ditugu ezagutzera. Era hortara hauzi huni huni buruz orain artio zer lan-mordoa egin den begi kolpe batez jakin dezan irakurleak.

Bibliografia oso osoa eskeini nahi ote dudan galdetzen badidate, huna erantzuna: Bibliografia kontuan osoa izatea ez da erraza. Dena dela, «Euskera» adizkariari buruz, osoa egin dudalakoan nago. Hortik kanpora, berriz, gogoratzen ditudan zenbait lan aipatu besterik ez dut egin. Guztiok dakigunez, aurki izango dugu eskuetan Jon Bilbao-ren euskal Bibliografia eta han ikusi ahal izango dugu emen falta dena. Nik aipatzen ditudan lanen artean ba dira batzuk, artez eta zuzenki batasuna gaitzat ez dutenak; baina beroiek aztertuz, gai hori ere tratatzen dutela ikusten da.

«Euskera» aldizkarian, ordea, ba dira Euskaltzaindiaren beraren agiri eta erabakiak; eta hortaz gainera, ba dira euskaltzainen eta beste jaun askoren lanak ere. Lehenik agiri eta erabaki horien berri emango dut. Eta gero beste lan horiena.

LEHEN PARTEA

«EUSKERA» ALDIZKARIAN BATASUNARI BURUZ DAGOENA

1. *Euskaltzaindiaren beraren agiri eta erabakiak*

Euskeraren idazkeraz (Ortografiaz), Ikus Euskera 1920, I, 53 orrialdean. Eusk ala Euzk; Euskera 1920, I, 62, 64-65 or.

Euskara ala euskera, euskeldun ala euskaldun; Euskera 1920, I, 62-63, 64-65 or.

Euskaltzaindi, euskaltzain eta euskaltzaingo; Euskera 1920, I, 63 or.

Euskeraz erabili behar den abeze eta idazkeraz; Euskera 1920, I, 64 or.

Euskalki ala euskalgi; Euskera 1920, I, 70 or.

Eusaltzaindiak bere diploma eta agerkaietan, bein-beiñeko euskalkia bezela, gipuzkoarra erabili dezala; Euskera 1922, II, 11 or.

Erderazko «gono» esateko «ertz» erabili dedilla, eta «edro» esateko, «egal»; Euskera 1922, IV, 16 or.

«Amarizar» euskeraz «uretaratu» esan bedi; Euskera 1926, III-IV, 72 or. Antzoki-itzak (vocabulario de teatro); Euskera 1927, 31-32 or.

Deklinazioan *guión* edo arbatxoa ez dedilla erabili; Euskera 1930, 47 or.

Itz aurre guztietan «j» eta ez «i», idatzi dedilla; Euskera 1930, 52-53 or.

«f» marratua bokal artean bakarrik azaldu dedilla, eta gainera «uf» (= avellana) eta «zuf» (= prudente) itzetan; Euskera 1930, 47 or.

Letra marratuen ordez letra bera bi aldiz jartzea ere zilegitzat jotzen da; Euskera 1954, 27 or.

«h» letra Bidasoz hemengo euskalkietan ere «ohore», «ahate», «zuhurra» eta holakoetan, edo bereizkuntza egiteko (ori-hori, ura-hura) legezkotzat jotzen da; eta ez erabiltzea ere bai; Euskera 1954, 27 or.

Geografia izen arrotzak jatorrizko idazkeran idaz ditezela: Quebec, Córdoba...; Euskera 1954, 27 or.

Bidasoz hemengo euskalkietan hobe dela «baño» idaztea, eta ez «baño» edo «baino»; Euskera 1954, 27 or.

Euskal itzei buruz Agiria; Euskera 1959, 214 or.

2. *«Euskera» aldizkarian batasunari buruz agertutako lanak*

Altube-tar Seber.—«Izkuntz-jakintzia ta euskeriaren bizitzia» (euskaltzain sarrera-hitzaldia); Euskera 1921, I, 3-49 or.—«I, J, Y»; Euskera

1925, II-III, 40-44 or.—«Batasunera-bidean» (Contestación a Cuestiones Ortográficas de Azkue); Euskera 1928, 67-85 or.—«La vida del euskera. Divulgación de los principios de la lingüística general aplicables a su defensa»; Euskera 1933, 299-397 or.—«Más sobre la vida del euskera. Barriro euskeraren bizitzari buruz»; Euskera 1936, 1-192 or.

Anabitarte-tar Agustin.—«Euskeraren batasunaz»; Euskera 1922, I, 83-91 or.

Ayengiz-tar Iñaki Aba, O.F.M. Cap.—«Euskeraren batasunaz»; Euskera, 1922, I, 21-27 or.

Azkue (Resurrección María de).—«Euzkera ala Euskera?»; Euskera, 1920, II, 14-19 or.—Euskeraren batasunaz (iritzi guztien laburpena); Euskera 1922, I, 123-132 or.—«Batasunera-bidean edo Pernando Amezketarraren autsi-osotxoak eta Ardi Galdua-ren autsi-mautsiak»: Euskera 1927, 116-140 or.—«Batasunera-bidean» (Cuestiones Ortográficas); Euskera 1928, 63-66 or.—«Gipuzkera Osotua»; Euskera 1934, X-159; 1935, 151-184 or. (*Nota*. La paginación de este opúsculo es irregular; corresponde al aparte o separata; está insertado después de la página 288 del volumen correspondiente a 1934).

Belaustegigoitia-tar Perderika.—«Euskeraren batasunaz»; Euskera 1922, I, 103-113 or.

Broussain (Pierre).—«J-ren otsa eta idazkera»; Euskera 1920, II, 31-34 or.—«Le son et l'orthographe du J»; Euskera 1920, II, 34-38 or.

Campión (Arturo)-Broussain (Pierre).—«Informe a la Academia de la Lengua Vasca sobre unificación del euskera»; Euskera 1922, I, 4-17 orrialdea.

Cortés (Nicolás).—«Sobre unificación del euskera»; Euskera 1922, I, 75-82 or.

Donosti Murua-tar Domeka.—«Euskeraren batasunaz»; Euskera 1922, I, 57 or.

Egileor (Manuel de).—«Comunicación al Sr. Director de la Academia de la Lengua Vasca sobre el proyecto de unificación y adopción de un dialecto oficial del Euzkera» (sic); Euskera 1922, I, 28-33 or.

Eguskitza-tar Jon.—«Euskera idatziaren batasuna»; Euskera 1922, I, 114-122 or.

Garitaonaindia-tar Bitor.—«Euskeraren batasunaz»; Euskera 1922, I, 100 or.

Gaubeka-tar Bitor.—«Euskeraren batasunaz»; Euskera 1922, I, 18-20 or.

- Gavel (H.)*.—«Observaciones sobre la ortografía del vascuence»; Euskera 1930, 193-212 or.
- Goyenetxe (Kruz)*.—«Euskeraren batasunaz»; Euskera 1922, I, 97-99 orrialdea.
- Jáuregui (Luis de)*.—«Sobre unificación del euskera»; Euskera 1922, I, 57 or.
- Larraikoetxea-tar Ipolita* Aba, C.D.—«Euskeraren batasunaz»; Euskera 1922, I, 34-42 or.
- Madariaga-tar Aingeru* Aba, O.F.M.—«Euskeraren batasunaz»; Euskera 1922, I, 58-61 or.
- Ormaetxea (Nikolas)*.—«Unificación del lenguaje literario»; Euskera 1922, I, 43-54.—«Personales, Posesivos, Intensivos»; Euskera 1934, 233-245 or.
- Oyeregi-tar Aita Buenabentura (Arbelaitz)*.—«Euskeraren batasunaz»; Euskera 1922, I, 101-102 or.
- Urrutia-tar Gotzon*, C.M.F.—«Unificación euskérica»; Euskera 1922, I, 62-75 or.
- Villasante, (Luis)*, O.F.M.—«Illen izenak» (sobre unificación de los nombres de los meses); Euskera 1962, 328 or.
- Zabala-Arana-tar Joseba*, C.M.F. — «Euskeraren batasunaz»; Euskera 1922, I, 92-96 or.

BIGARREN PARTEA

«EUSKERA» ALDIZKARITIK KANPORA AGERTUTAKO ZENBAIT LAN

- Altube-tar Seber*.—«Euskel Itz Barriak. Eurok eraltzeko, erderaak zeta-ra lagun egin bear deuskuen»; Congreso de Estudios Vascos de Guernica 1922, 78-93 or.; «La unificación del euskera literario»; Eusko-Jakintza 1949, 181-204 or.
- Arrue (Antonio)*.—«Euskeraren batasuna»; Euzko Gogoia 1956, 62-76 or.
- Baionako Biltzarraren Erabakiak* (1964-eko Agorrillaren 29-30) (Orri berezi batean argitaratu ziran).
- Ermua-ko Euskal Idazleen Jardunaldietako Lanak eta Erabakiak*; Jakin 1968, maiatza-urria (zenbaki osoa edo gehiena batasunaz ari da. Bertan datoz S. Garmendia, A. Irigarai, P. Lafitte, J. A. Letamendia, Txillardegia eta beste askoren lanak eta iritziak).

Gavel (H.).—«Necesidad de una lengua literaria y oficial y la unificación de la ortografía vasca»; R.I.E.V. 1919, 137 or.

Krutwig (F.).—«Sobre ortografía vasca y el vascuence escrito. Propositiones a la Academia» (multicopiado) (urte gabe, baina 1951-ant edo hor nunbait egina).

Lafitte (P.).—«Grammaire Basque», Bayonne 1944; Préface, 6 or.

L'interviewer.—«Avec M. le chanoine Lafitte: A propos de l'unification du basque littéraire»; Gure Herria 1968, uztarila, 1-10 or.

Oskillaso.—«Kurloiak», Zarautz 1962 (hitzaurrean, 9 or.).—«Ihardespen bat Mitxelena jaunari»; Egan 1963, julio-diciembre, 162 or. (eta Mitxelenaren oharra, 181 or.).

Urquijo (Julio de).—«Lengua internacional y lenguas nacionales. El euskera, lengua de civilización. Conferencia pronunciada el 19 de abril de 1919 en Bilbao»; R.I.E.V., X, 164 or.—«B.-tar P. La unificación del euskera»; R.I.E.V., XI, 71 or.—«Informe de los señores académicos Arturo Campión y P. Broussain sobre unificación del euskera»; R.I.E.V., XI, 226 or.; «P. Soloeta-Dima. Ensayo de la unificación de dialectos bascos»; R.I.E.V., XIII, 666 or.

Villasante (Luis, O.F.M.).—«Literatur-euskara laphurrtarr klasikoaren gain eratua» (Euskaltzaindian sarrera-hitzaldia); Boletín de la Real Sociedad de Amigos del País 1952, 91-119, 259-298 or.

Batasunaren kezka berrogeitamar urte hautan bizi bizia egon dela jakiteko, aski da, nik uste, lan guzti hauken kopuruari begiratzea. Jakina, eman diren iritziak, ez dira beti berdinak izan.

Hemen aipatuez gainera agertu dira azken bolara hunetan artikulauk eta lan txikiak Zeruko Argia-n, Aranzazu-n, Anaitasuna-n, euskerazko Príncipe de Viana-n, Jaunaren Deia-n ta habar, bainan horiek ez ditut jaso.

A. Luis Villasante, O.F.M.

DEKLINAZIO

mendi
mendi — *k*
mendi — *ri*
mendi — *ren*
mendi — *rekin*
mendi — *rentzat*
mendi — *z*
mendi — *tan*
mendi — *tako*
mendi — *tara*
mendi — *tatik*
mendi — *rik*
mendi — *tzat*

mendi — *a*
mendi — *ak*
mendi — *ari*
mendi — *aren*
mendi — *arekin*
mendi — *arentzat*
mendi — *az*
mendi — *an*
mendi — *ko*
mendi — *ra*
mendi — *tik*

mendi — *ak*
mendi — *ek*
mendi — *ei* (*eri?*)
mendi — *en*
mendi — *ekin*
mendi — *entzat*
mendi — *ez/etaz*
mendi — *etan*
mendi — *etako*
mendi — *etara*
mendi — *etatik*

haran
haran — *ek*
haran — *i*
haran — *en*
haran — *ekin*
haran — *entzat*
haran — *ez*
haran — *etan*
haran — *etako*
haran — *etara*
haran — *etatik*
haran — *ik*
haran — *tzat*

haran — *a*
haran — *ak*
haran — *ari*
haran — *aren*
haran — *arekin*
haran — *arentzat*
haran — *az*
haran — *ean*
haran — *eko*
haran — *era*
haran — *etik*

haran — *ak*
haran — *ek*
haran — *ei* (*eri?*)
haran — *en*
haran — *ekin*
haran — *entzat*
haran — *ez/etaz*
haran — *etan*
haran — *etako*
haran — *etara*
haran — *etatik*

seme	seme — <i>a</i>	seme — <i>ak</i>
seme — <i>k</i>	seme — <i>ak</i>	seme — <i>ek</i>
seme — <i>ri</i>	seme — <i>ari</i>	seme — <i>ei(eri?)</i>
seme — <i>ren</i>	seme — <i>aren</i>	seme — <i>en</i>
seme — <i>rekin</i>	seme — <i>arekin</i>	seme — <i>ekin</i>
seme — <i>rentzat</i>	seme — <i>arentzat</i>	seme — <i>entzat</i>
seme — <i>z</i>	seme — <i>az</i>	seme — <i>ez/etaz</i>
seme — <i>rengan</i>	seme — <i>arengan</i>	seme — <i>engan</i>
seme — <i>rengana</i>	seme — <i>arengana</i>	seme — <i>engana</i>
seme — <i>rengandik</i>	seme — <i>arengandik</i>	seme — <i>engandik</i>
seme — <i>rik</i>		
seme — <i>tzat</i>		
gizon	gizon — <i>a</i>	gizon — <i>ak</i>
gizon — <i>ek</i>	gizon — <i>ak</i>	gizon — <i>ek</i>
gizon — <i>i</i>	gizon — <i>ari</i>	gizon — <i>ei (eri?)</i>
gizon — <i>en</i>	gizon — <i>aren</i>	gizon — <i>en</i>
gizon — <i>ekin</i>	gizon — <i>arekin</i>	gizon — <i>ekin</i>
gizon — <i>entzat</i>	gizon — <i>arentzat</i>	gizon — <i>entzat</i>
gizon — <i>ez</i>	gizon — <i>az</i>	gizon — <i>ez/etaz</i>
gizon — <i>engan</i>	seme — <i>a(ren)gan</i>	gizon — <i>engan</i>
gizon — <i>engana</i>	seme — <i>a(ren)gana</i>	gizon — <i>engana</i>
gizon — <i>engandik</i>	seme — <i>a(ren)gandik</i>	gizon — <i>engandik</i>
gizon — <i>ik</i>		
gizon — <i>tzat</i>		

Izen nagusiak: Donostia, Eibar, Maite, Joan.

II-garren sailla aldatzen da; gainerakoak, indefinidoak bezelaxe.

Donostia — <i>n</i>	Maite — <i>rengan</i>
Donostia — <i>ko</i>	
Donostia — <i>ra</i>	Maite — <i>rengana</i>
Donostia — <i>tik</i>	Maite — <i>rengandik</i>
Eibar — <i>en</i>	Joan — <i>engan</i>
Eibar — <i>ko</i>	
Eibar — <i>a (era?)</i>	Joan — <i>engana</i>
Eibar — <i>tik</i>	Joan — <i>engandik</i>

Ezer besterik esan baiño lehen, esan behar da, deklinabide hau ez dala guk asmatua. Deklinazio hau, gutxi asko, euskal autore zahar eta berriek erabili dutena da. Ez beti ondo, ez beti zuzen, baiñan, gure ustez behintzat, honela eman ez danean, guk eman duguna bezalakoa ez zalako ez da, ezen eta zenbait autorek zuzenez beste erabili zutelako eta oraindik ere, noizik behin behintzat, gaizki erabiltzen dugulako.

Deklinazio hau, R. M. Azkue-k Morfologia Vasca-n, P. Lafitte-k Grammaire Basque-n, eta, Fr. I. Omaetxebarria, O. F. M. 1962-ko EUSKERA-n dakartena bera da. Eman dugun deklinazio hau, 1964-eko agorrillaren 29-30-ean Baiona-n egin zan Bilkura ederrean bildu ziran euskaltzale guztiek edo ia guztiek onartu zuten. Punturen batetan diskusiorik izan ba zan ere, aurten, Ermua-n egin zan Biltzarrean bildu ziran euskaltzale guztiek onartu zuten orain zuei proposatzen dizuegun deklinazio hau.

Ez dago, ezer asmatu beharrik. Zenbait aldakuntza txiki gora behera, ondotxo mugaturik aurkitzen baita euskal literatura zaharrean eta berrian ere, deklinazioa. Azter dezagun orain, gutxi bada gutxi, presentatu dugun deklinazio hau.

Ez dezagun nahas deklinazioa deribazioaz. Sufijo deribatiboen bidez hitz berriak eratzeko, formatzeko baliatzen gera deribazioaz. Izenek, substantiboek, adjetiboek eta prononbreek, desinenzia deklinatiben bidez, frase barruan duten egitekoa, funtzioa alegia, adierazteko baliatzen gera deklinazioaz.

Izen batek, prononbre batek desinenzia deklinatiben bidez hartzen duen formari, *kaso* deritzaiogu.

Nahiz eta autore gehienek beren gramatiketan, numeroari gagozkio-
la, kaso gehiago eman, guk hamairu jarri ditugu.

* * *

Lehendabiziko kasoari buruz, pasiboaz alegia, ez dugu ezer esango, denek berdin erabiltzen dugun ezkeror: «mendi-mendia-mendiak; gizon-gizon-a, gizon-ak».

Aktiboa: «mendi-*k*, mendi-*ak*, mendi-*ek*; gizon-*ek*, gizon-*ak*, gizon-*ek*» proposatzen da. Egia da, gipuzkoarrok eta beste askok, aktibo plurala «mendi-*ak*, gizon-*ak*» esaten duguna, *ak* hori atona eginaz. Baiñan, pasibo plurala eta aktibo singularra ere «gizon-*ak* joan dira, gizon-*ak* egin du» esaten dugun ezkeror, hoiekin ez nahasteko, hobe deritzagu aktibo plurala «gizon-*ek*» ematea.

Egia ere da bai, aktibo indefinidoa «gizon-ek, haran-ek» dala, baiñan gutxiago ibiltzen dalako eta oraindik ere beste arrazoin batzuegatik, «gizon-ek» esatea hobetzat jotzen dugu.

Hona Azkue-k Morfologia Vasca-n zer dion: «Otros, por lo general los vascos orientales, muy recomendablemente dicen *gizonek* (caso activo)».

Badirudi, azken aldi hontan, batek baiño gehiagok, proposatu dugun *ek* hori erabili nahirik, gauza guztiak batekoz beste konprenditu dituela, irakurririk baikera honelako zerbait: «gizon-ek *joan dira*, gizon-ek sartu ziran». Halaz guztiz ere, *ek* aktibo plurala hori nola erabili behar dan jakitea gauza erreza da: berbo transitiboaz alegia: «gizone-ek jo *dute*, gizon-ek diote...».

Datiboa: «mendi-ri, mendi-ari, mendi-ei (*eri*); gizon-i, gizon-ari, gizon-ei (*eri*)». Dativo pluralak hartzen du beste desinentziarik ere: «mendi-aki, mendi-ai, mendi-er; gizon-akeri, gizon-ai, gizon-er» eta abar.

«Mendi-ei (mendi-eri), proposatzen da. Halaz guztiz ere, bi bokalen tartean aurkitzen dan *r* eufonika hori ken eta *ei*, gizon-ei, mendi-ei erabili behar genukeala iruditzen zaigu, nahiz eta zenbait idazle modernoek *eri* sarri erabili. Izan ere, *ei*, beste *eri* hori baiño klasikoagoa eta jatorragoa dala dirudi. Biok edo hiruok erabil ditezkealarik ere, euskeraren batasunaren izenean, bat aukeratzea komeni litzake.

Genitibo posesiboa: «mendi-aken, gizon-aken» baztertu eta genitibo posesibo plurala, *mendi-en*, gizon-en proposatzen da.

Destinatiboa: «mendi-akentzat, gizon-akentzat» baztertu eta destinatibo plurala *mendi-entzat*, gizon-entzat proposatzen da.

Instrumentala, edo nahi izan ezker *Objetiboa*: «mendi-z, mendi-az, mendi-ez/etaz; gizon-ez, gizon-az, gizon-ez/etaz». Sekula ez mendi-atzaz, gizon-atzaz. Orain arte, askok eta askok *mediaren gainean hitzegin*, gizon-en *gainean hitzegin* eta horrelakorik esaten baguen ere, milla aldiz okerrago baita mendi-atzaz, gizon-etzaz, gaztedi-atzaz, poesia-tzaz eta esatea. Izan ere, «tza» hori, sufijo-atzizki jator jator bat dalarik ere, ofizioa eta ugaritasuna adierazteko bakarrik erabili baita orain arteko guztian.

Esate baterako: nekazari-tza, artzan-tza... diru-tza. Literatura osoan ikus ditekete, *acerca de esto o de aquello* adierazteko, gure autoreek singularrean z erabili dutela, eta ez eta *etaz* pluralean. Honela: poesia-z hitzegin, Ama Birjiña-z mintzatu, hots, arte-az, pertsona-z, gizon-ez, emakume-ez eta abar, eta ez Ama Birjiña-tza-z, artea-tza-z, pertsona-tza-z, emakume-tza-z, gizon-e-tza-z

Ohar bat: prononbreek, bai pertsonalek bai demostratiboek, kasoaren desinenzia hartu baiño lehen, -ta, -za edo -tza infijoa hartzen dute. Honela: ni-ta-z, hi-za-z, hone-za-z, har-ta-z. Zu-ta-z mintzatu ba da ere, ez da pertsona-tza-z mintzatu, pertsona-z mintzatu da, baiño.

Zoritzarrez ba da besterik ere. Objektibo edo instrumental hau, anitzek soziationoaz nahasten dugu. *Esku-az* jo dut, *ur-az* garbitu dut-eta idatzi beharrean, *eskuarekin* eta *urarekin* eta abar idazten dugu.

Ablatiboa-Partitiboa: «mendi-tatik, mendi-tik, mendi-etatik; mendi-rik, gizon-ik.» Euskal literatura guztian horrelaxe agertzen da. Egia da bai, mendi-tikan, mendi-rikan eta beste horrelakorik bai hemengoek eta bai mugaz bestaldekoek ere idatzi dutela, baiñan, azken bolara hontan ba dirudi gehiegi erabiltzen hasiak gerana.

Soziationo: «mendi-arekin, gizon-arekin». Nahiz eta beharbada garai batez, bizkaitarren *gaz* eta *kaz*-ek besterik adierazi, gaurregun gauza berdiña adierazteko erabiltzen dira bidesinentziok. *Kin* desinentzia zabalduago dagoelako, hau proposatzen da.

Izen nagusiak; *izen propioak*. Indefinidoak bezala deklinatzen dira *izen nagusiak*.

Jose, *seme* bezala. Honela:

Jose — *k*

Jose — *ri*

Jose — *ren*

Jose — *rekin*

Jose — *z*

...eta abar.

Joan berriz, *gizon* bezala:

Joan — *ek*

Joan — *i*

Joan — *en*

Joan — *ekin*

Joan — *ez*

...eta abar.

Kontsonantez bukatzen diran leku-Izen Nagusiak, hots lokatiboak, honela egiten dute, urrenez urren inesiboa, genitibo lokatiboa, alatiboa, ablatiboa:

Eibar — *en*

Eibar — *ko*

Eibar — *a(era?)*

Eibar — *tik*

Lekuen Izen Nagusiak, hots lokatiboak -n, -l, -r-z amaitzen diranean, genitibo lokatiboa eta ablatiboa ere, -ko, -tik egin beharrean, asko tokitan -go eta -dik egin lezateke. Honela:

Zerain — go

Usurbil — go

Aralar — go

Zerain — dik

Egin lezateke, esan dugu, han eta hemen honela esan eta idazten bada ere, gaurregun ez baita leku guztietan ez honela esaten eta hare gu-
tiago idazten. Zuek esan nola idatzi behar litezkean.

Dena den, bazter ditzagun, kontsonantez bukatzen diran leku-lzen Nagusietan, honelakoak:

Burgos — eko

Eibar — eko

Madril — etik

Usurbil — etik

Zarautz — era

Paris — era

eta idatzi:

Burgos — ko

Eibar — ko

Madril — tik

Usurbil — tik

Zarautz — a

Paris — a

Izan ere, lekuen Izen Nagusiak ez bide zuten lehen eta orain ere ez -e eta ez -r epentetikarik desinentziaren aurretik hartzen. Beste aldeko euskaldunak, eta hemengoek ere, nahiz eta orain -e eta -r epentetikaz baliatu, ba dakigu hango idazle zaharrak epentetika hoietaz ez zirala baliatu. Atsular-ek berak, *Turs-ko* arzipizpiku idatzi zuen eta ez *Turs-eko*. Joannes d'Etxeberri-k berriz, *Athenas-ko*, *Azkain-a*, *Izturiz-tik*, *Izturitz-a*, eta ez, *Athenas-eko*, *Azkain-era*, *Izturiz-etik*, *Izturitz-era*. Ba da beste etsenplu anitz ere!

Bizidunak eta bizigabeak, kontsonantez bukatzen diranak, urrenez urren, *seme* eta *mendi* bezala deklinatzen dira; bokalaz bukatzen diranak berriz, *gizon* eta *haran* bezala. Hala dirudi baiñan ez da hala. Izan ere —ai-ei-oi-ui-au-eu—, diptongoz bukatzen diranak, mahai, zelai, hoge eta sei bezala, nahiz eta bokalaz bukatu, kontsonantez bukatzen diranak bezala deklinatzen baitira!

Egia da, gero eta gehiago idazten dala *hogeian*, *seian*, *mahaian*,... baiñan, «charan» bezala deklinatzea litzake onena: *hogeiean*, *zelaiean*, *mahaiean*, *gauean* eta *abar*...

Halere, ba da hitzik, guretzat diptongo izanik bestaldekoentzat hiato danik. Adibidez: *nai*, *nahi*. Guk: *naiean*; haiek: *nahian*. Badirudi, bata-sunak honela galdegini, guk ere *nahian* egin behar genukeana, eta ez *naiean*.

Hitz horrezaz esan duguna, berdin esan diteke beste zenbait hitzez.

Ez da aspaldi oraindik hasiak gerala idazten: *anima-en* egunean, *eliz-ea*n; eta determinado pluralean: *emakume-k*, *emakume-z*, *seme-i* eta beste asko horrelakorik. Ez bide gera ohartu, orain arte beti; fonetika legeek horrela galdegini, $a + a = a$; $a + e = e$; $e + e = ee$ zala.

Honela *aita -a-* organikaduna, ez da determinado pluralean, *aita + ak = aitaak*, *aitak* baiño.

Arima, ez da determinado pluralean *Arima + en = arimaen*; *arima + ek = arimaek*... *arimen*, *arimek*... eta abar baiño:

Determinadu pluralean eta hitzak bukaera «e» duanean, hitzak ez du bere «e» hori, desinentziaren beste *e* batez txoke egiten duanean galtzen, gordetzen baiño. Honela: *emakume + ek = emakumek* ez da, *emakumee*k baiño.

Deklinazio hontan ikus ditekenez eta denok dakizutenez, ez dira berdin deklinatzen bizigabeak eta bizidunak. Ba da besterik ere: bai bizidunak eta bai bizigabeak, batzuek kontsonantez bukatzen dira, bokalaz beste batzuek. Bokalaz bukatzen diranak, asko eta asko *a-z* bukatzen da. Nahaste haundi bat sortu baita aspaldi hontan puntu hontan, jakin beharko genuke zein hitz dan bukatzen *a' z*, zein ez. Hots, *neskatxa* ala *neskatx* danez jakin beharko genuke. Izan ere, *a* guztiak ez dira artikulatu. *A* hori itsatsia danean, organika danean, ez da indeterminazioan galtzen, baiñan bai organika ez danean. Garrantzi haundia du honek. Izan ere, «neskatx» balitz, *gizon* bezala deklinatuko genuke eta esango: *neskatx bat*, zenbait *neskatx-i*, *neskatx-ena*, *neskatx-ekin*, *neskatx-entzat*, *neskatx-engan*, *neskatx-engana*, *neskatx-engandik*, *neskatx-ik*, *neskatx-tzat* eta abar. *Neskatxa* balitz berriz, *seme* bezala deklinatuko genuke: *neskatxa bat*, zenbait *neskatxa*, *neskatxa-ri*, *neskatxa-ren*, *neskatxa-rik*, *neskatxa-tzat*... eta abar.

Zein hitz bukatzen da *a* organikaz?

Euskal literatura azter ba dezagu, garbi ikus dezakegu hori. Oraindik ere, mugaz bestaldekoek ondo darabilte, bai bizkaitarrek ere. Gipuzkoarrok, idazten hasten geranean, sarri ahaztutzen dugu puntu hau. Hizketan ari galararik, ondoto bereizten dugu *a* organikaz bukatzen dan

hitz asko eta asko. Oraindik ere maiz entzuten baita makilla bat, okela hori, arbola bat, neskatxa... eta abar, eta ez makil bat, okel hori, arbol bat, neskatx...

Ez ditugu hemen esango *a* organikaz bukatzen diran hitz guztiak, gipuzkoarrentzat eta beste batzuentzat ere ez ezagunenak diranak baizik.

arnasa	eskola	justizia	orea-orrea
arbola	erregina	jakinduria	orua
anaia	eliza	katea	ordena
axola-ajola	estalbia	koroa	persona
antsia	egia	kabia	parra
ausardia	familia	kuia	piztia
area	gauza	kopeta	pertza
aisia	gutizia-kutizia		pareta
aharra	gartzela-kartzela	lotkia	premia-premiña
aitona	gon	legatza	sakela
amona	giltza	lotsa	sardiña
aitzekia	heriotza-heriotze	makilla	txabola
baratza-baratze	hisia	malenkonía	txapela
birjiña	hegoa	nahaspilla	upela-kupela
bizitza-bizitze	herra	neskatxa	zalanatza
bekokia	imajina	neskatilla	zuhurtzia
burdina		okela	
balentria			
denbora			

Bi hitz bederen ezagutzen ditugu, garai batez *a* organikadun ziranak: *pakea* eta *aldia*. *Pakea*, *aldia*, ala, *pake*, *aldi*, biotatik zein aukeratu behar dan zuek esango duzue.

Atzizki batzuek ere *a* organikadun dira:

-keria (erokeria, gaiztakeria).

-era (egoera, hizkera, mintzaira).

-tza (artzantza, nekazaritza, baratza edo baratze).

Zenbait toki izen ere *a* organikadun da: Donostia, Baiona, Tolosa, Pasaia, Errenderia, Hendaia, Iruñea-Iruña-Iruñe, Zumaia, Getaria, Nafarroa eta abar.

Ba da dudarik halaz guztiz ere zenbait leku izenekin: jakin dugu-nez, dokumentu zaharretan zenbait aldiz *Azpeitia*, *Azkoitia* agertzen ba da ere, bestetan *Azkoiti*, *Azpeiti* agertzen baita. Halere, ez dugu uste *Larraitze*, *Auritze*, *Ustaritze*, *Biarritze*, *Azkaine*, eta abar danik, *Larraitz*, *Auritz*, *Ustaritz* eta abar baiño.

Ba dirudi ez gerala konturatu ere egin, euskerak ba duela singularraz eta pluralaz gaiñera, besterik: indeterminadoa da, indefinidoa.

Mendia determinado singularra bada ere, *mendiak* plurala da, eta *mendi* ez singularra eta ez plurala: indeterminadoa. Zorigailteaz, gure indeterminadoaz gramatikalarik gehiegi ahaztu zaigu. Lafitte-ren gramatikak deklinazio berezi eta osoa duen numeroa bat bezala dakar bere gramatika ederrean. Azkue-k ere ba dakar bere Morfologia-n. Indeterminazioari buruz mintzatzen dalarik, ederki dio Txillardegik: «Eta lehenengo bolada batean hizkuntzaren «soiñekoari» begiratu diogu, hiztegia ikusiz. Zalantzarik gabe badago hiztegian erdalkeriarik asko. Baiña ba da ere akats sakonagorik: «indeterminazioaren» galtzea dugu bereizkuntza jator eta sakon horietako bat.»

Azter dezagun indeterminazioa piska bat. Bi etsenplu emango ditugu Txillardegirenak biak:

1) «Pedro-ren etxea erre da». Hitzegiten ari diranek badakite zein etxe den Pedro-rena. Bestela ezin esan «etxea». Eman dezagun Pedro horrek badituela hiru etxe: Donostia-n bat, Eibar-en beste bat, eta Zumarraga-n beste bat. Orduan esakun hori entzuten dutenek, nahi eta nahi ez, hau galdetuko dute: «Zein etxe erre ote zaio?» Alegia hiruetatik «zein»? Hiru dituelako, eztakite zein den. Zein etxe den eztakitelako, hain zuzen, «zein etxe» galdetu dute; ez, «zein etxea», edo «zein etxeak».

Pedro horrek etxe *bakar bat* balu, ordea, edo bizi dan etxeaz ari bali-ra hizketan, orduan entzuleak balekike ongi: *etxea* erre zaio; alegia, guziok ezagutzen dugun *etxe hura*.

2) «Pedro-ren *etxeak* erre dira». Hitzegiten ari diranek badakite ere zein etxe: hain zuzen ere *denak* erre zaizkio. Zazpi etxe baldin bazituen, zazpiak; hiru baldin bazituen, hirurak.

Baiña Pedro horrek sei etxe baldin balitu, eta lau erre bazaizkio ezin diteke esan: «Pedro-ren *etxeak* erre dira», «Pedro-ren *zenbait etxe*» edo «Pedro-ren etxe batzuk» edo «Pedro-ren lau *etxe*» baizik; seietarik zein lau diran ezpaitakigu.

3) «Pedro-ren lau *etxe* erre dira» eta «Pedro-ren lau *etxeak* erre dira». Zein euskaldunek eztu goraberarik nabaitzen? Lehenengo esakunean eztakigu *zein etxe* erre dan; bigarrenean badakigu Pedro-k *zituen lauak*, guziak beraz, erre dirala. *Ezta numeroa*, beraz, munta duena; *etxe jakinak ala ez-ezagunak* izatea baizik.

Beste kaso guztietan gauza bera gertatzen da. Etsenplu asko eman diteke. *Bat* numeralak indefinidoa bezela deklinatzen da; gauza zeatza, mugatua ez danean. «*Etxe batetan* izandu giñan»; «*etxe batetatik* etorri gera»; «*etxe batetara* joan giñan» eta abar... ezpaitakite zein etxez ari geran entzuleek.

Zerbait galtzen ari bada ere, euskaldun gehienok honela esaten dugu beste hau ere: nagusi-*ren* bat etorriko zan»; «*etxeren* bat erosi edo du»; «*emakumeren* bat izango zan». Genitibo partitibo bezalako zerbait erabiltzen dugu «bat» aren aurretik, alegia.

Noiz indeterminazio bat?

Jakiña da, hizketan ari galararik, esaten duguna gauza jakiña, zeatza eta ezaguna ez bada, indeterminado dana; alderantziz, gauza jakiña, eta zeatza ba da, determinadoda da.

1-nik. *Indefinido deritzatenekin:*

Zenbait etxe erosi dut.

Gizon asko zan jaietan.

Liburu gutxi baizik ez dut erosi.

2-garrenik. *Numeralekin.*

Numeralak gauza jakiña, zeatza markatzen ez badu, indeterminadoda da.

Lau etxe erre zaio

Lau etxeak erre zaizkio (zituen denak)

Bost liburutan ikasi dut

Bost liburuetan (entzuleak dakien haietan)

3-garrenik. *Galderetan*. Gauza bat ez dakigulako *galdetzen* dugu, hain zuzen ere, beraz galdera indeterminadoda da.

Zein etxetakoa da hori?

Zenbat behi erosi duzu?

4-garrenik. Lehen esan dugun bezala Izen Nagusiak indefinidoak bezela deklinatzen dira. Bai eta *Kristo* ere. Kristo-k esan zuen eta ez Kristo-ak...

5-garrenik: *Itxura aldakorrei dagozkien hitzetan.*

- ezkerretara jo genuen
- eguzkitan jarri zan
- uretan sartu zan

Berdin ere erderaz «determinante»-rik eztagoenean:

- bekatutan egon
- kaltetan ari izan
- baketan utzi

Hemen bukatzen da gure lana. Xehetasun guztietan sar bagintez, beste millaka gauza esan liteke deklinazioaz. Halere, bukatu baiño lehen, hau esango dizuegu: erdipurdi esandakook hobeto sakondu ditzazuen eta esan gabe utzi duguna, beharrik izan ezkerro alegia, ikasi dezazuen, jo zazute liburu hauetara. Gerok ere, esan dugun apur hau, horietatik atera baitugu.

Gramática de los Cuatro dialectos literarios de la Lengua Euskara, por don Arturo Campión. Tolosa, 1884. Lehendabiziko kapitulueta luze eta zabal mintzatzen da deklinazioaz, baiñan ez dugu uste, dion guztia, ondo esanda dagoenik.

Morfología Vasca, por R. M. de Azkue. Capítulo VIII: «Determinación». Capítulo IX: «Declinación».

Grammaire Basque. Abbé P. Lafitte. Chapitres: VII, VIII, IX, X, XI, XII, XIII.

EUSKERA. VII. 1962. Bilbao. «Declinación Vasca». Fr. I. Omaechevarría, O. F. M.

Euskal Idazkaritza. Kordelieren karrika 14. Baiona. Multikopistaz liburu txiki bat atera zan. Dena labur labur eta oso ongi. J. L. Alvarez Enparantza-ren da (Txillardegi). 28 horrialde ditu. Esan dugun anitz, jaun argi eta prestu honi hartu diogu.

S. Garmendia.



EUSKERAZKO ITZ BERRIAK

(Batasun-Batzordeak agindutako lana)

Batasun-Batzordeak jokabide edo arauki batzu onartu ditu, ta neri oiek aipatzea ta adibide batzu erastea dagokit. Geyenetan arauki oiek ontzat jotzen ditut, baiña bat edo beste eztitut txit gogoko, ta oietaz nere iritzia azaldu bearko det. Enaiz Batasun-Batzordekoa, beraz nere iritzia ez tira Batzordearenekin naasi bearr. Araukien eskribikera artu dedan bezela kopiatzen det; eskribikeratazko nere iritzia beste paper batean azaldu nituan.

«1. Hizkuntza bizia hitz berrien premian da beti: bere baitarik sortzen ditu batzuetan, besterengandik hartu besteetan. Bi bideak zilegi eta beharrezko dira eta nork taxutu du bakoitzaren neurria? Euskaltzaindiak lehen esanak hontarako bakarrik balio zuen: ez dagoela hitz berri-rik sortu beharrik euskal-hitz zahar-jatorrak, erderatikakoak direlakoan, baztertze-ko asmoz.»

Lenengo arauki onek gerrate-aurrean egindako pekatu batzu oster-az egitea eskatzen digu. «Eliza, zeru, amodio, karro, inbutu, txarro» itzak kendu ta oien orde-az «txadon, donoki, maitasun, galdi, onil, pitxarr» onarturik' eztegu ezer aurreratzen, euskerazkoak diralakoan besteak be-ziñ latinetikakoak sartzea besterik ezpaitegu egin. «Kolare» itzaren ja-torria badakigu, «margo» izan danik ere zigurr ezta-ki; ta egunenba-tean ori ere erderaren batetikakoa dala jakingo bagenu' beste itzenba-ten billa asi bearko genuke. «Kontseju» orde-az «onu» esaten dute batzuk: nere uste-az ori Urkixo'ren irakurpen okerbat besterik ezta. «Gerra» or-de-az «gudu» esate-az german-izkuntzatikako itz ba-ten orde-az jatorri bereko beste bat sartzea da. Gaiñera «gudu» erderazko «combate, batalla» adi-razteko erabil-ri izan da euskeraz, ta «gerra» adirazteko erabiltzen ba-de-gu' beste adirazpenarentzat itzik bage geldituko gera. Esate baterako:

gerra-ontzi = warship; gudu-ontzi = battleship (doitxeraz: Kriegschiff, Schlachtschiff).

Euskalerri osoan edo geyenean aspaldian sarturik dagon itza kendu ta bestebat sartu nai edutea ezta pulamentuzko jokabidea, denbora ta kemenak alperrik galtzea besterik ezpaita. Biarritz-eko Euskal-Ikaskuntza-batzarrean italiarbatek esan zigunez Mussolini-k milla ta bosteunenbat itz arrotz italieratik kendu nai edun zituan, eta aien ordeztaliera «jatorrezko» itzak sartu. Mussolini-k Itali guztiko egunkari paper ta liburu guztiak bere esku zeuzkan. irratia ta eskola guztiak ere bai; ala ta guztiz ere itz berri bat besterik etzuan sartu aal edun: «sciofero» ordeztal «autista».

Beste gauza litzake bi itz ditugunean bakoitza besteagandik bereiztea ta bere adirazpena mugatzea. Leen *gerra* ta *gudu* aipatu ditut. Ona beste bi: «eskribitu» ta «idatzi». Baliteke jatorriz itz bakarra izatea, gaztelanizko «meollo» ta «médula» bezelatsu. Naparbati, Garmendia'tar Leopoldo aetzari entzun nionez Oroz-Betelu'n eta Aezkoa'ko beste errietan «eskribitu» ordeztal «izkiratzi» esaten zan. Eskribitu, izkribatu, izkiratzi, iratzi, idatzi: denoik itz berbera dirala esango nuke. Baiña cso egoki genuke bi itz erabiltzea. Gaztelaniz edo prantzeseztal «escribe bien» edo «il écrit bien» entzutun degunean' duda sortzen zaigu: ¿es «buen escritor» o es «buen amanuense»? ¿Tiene «buen estilo» o tiene «buena letra»? Nere usteztal itzak papereratzeari «eskribitzea» edo «izkribitzea» esan genezayoke, ta gogapenak itzez adirazteari berriz «idaztea». Egia esan' oraiñ «idazle» esaten degunean' orrela erabiltzen degu. Eztakit beste errietan orrelako asko gertatu izan diran, baiña Euskalerrian eskribitzen etzekien idazle batzu izan dira: Pello Errota, Udarregi, Zapiraiñ eta abarr.

Arrazoi berberaz edo aundiagoztal leendik bi adirazpenentzat bi itz darabizkigunean bi itz oyetatik bat erderatikakoa dan aitzekiz bestea bi adirazpenentzat erabiltzea' euskera kaxkartzea da. Esate baterako' Euskalerri guztian «konpesatu» ta «aitortu» (bizkayeraz «autortu») ongi bereizten ditugu, prantzeseztal (se) «confesser» ta «avouer» bezelaxe. Orrela «ori larunbatero konpesatzen da» esango degu batetik, eta «asieran ukatu egin du, baiña atzenean aitortu du» esan oi degu bestetik. Baiña gaztelaniz «confesar» bietara erabiltzen dude, ta euskaldun batzu «konpesatu» ordeztal «aitortu» sartu naiean ari izan dira. Jainkoari eskerrak' euskaldun gutxi konpromatu dira izkuntza orrela kaxkartzearekin.

Orren antzeko bestebat ere badegu: «Etorriko dala espero det, baiña atean itxaroten aspertu naiz». Gaztelaniz «espero que vendrá, pero me he cansado de aguardar en la puerta» esaten da. Batzuk «aguardar» or-

dez «esperar» esaten dute, ta euskeraz ere bi adirazpenentzat itz bakarra sartu nai edun digude: «etorriko dala itxaro det, baiña atean itxaroten aspertu naiz». Gauza bat da esperantza edutea, ta beste gauza bat itxarotea, zai egotea.

«2. Euskal-hitzak sortzean, eta nornahik sortzen ditu mintzatzean, gogoan eduki dezahun beti, beharraz gainera, gure hizkuntzaren moldeak, beti izan bait dugu horretarako errezatasuna. Batez ere, hitz-elkartzearen bitartez. Nahi-ta-ezkoa du hizkuntzak modu orrek bizirik irautea, bere izatean iraungo baldin badu.»

Gaztelaniz ta prantzesez bi itz «de» edo beste lokarriz lotuta adirazten diranak' alemanez ta ingelesez bezelaxe sortzen ditugu euskeraz, bi itzak bata bestearen atzetik esate utsaz. Esate baterako: Leche de vaca, lait de vache, Kuhmilch, cow milk, bei-esne. (Alemanez Kuhwarm = bei-bero, gure «errobero» bezela da; prantzesez «traite»; gaztelaniz'eztakit). Atzekoz-aurrera ezarri ezkerok' esnea ez baiña beia adirazten degu: Vaca de leche (vaca lechera), vache à lait, Milchkuh, milk cow, esne-bei. Orrelakoak eukseraz eunka ta millaka ditugu: bizi-lagun, eliz-gizon, lasto-alanbre, mendi-bide, oihen-zaiñ, ote-sega, plaza-gizon (aleman batzuk ere' *Salonmensch* orrelasu erabiltzen dute), txori-simaurr (erderaz «guano»), zoko-usai Ta iñoiz entzun eztitugunak ere' ongi egiñak diranean' entzun-orduko aditzen ditugu: ontzi-buru, ontzi-bide, ertzaiñ-orga (erri-zaiñ-gurdi), egazkin-zelai.

Orrela bi itzezkoak egin litezke nai-aiña, baiña ongi egin bear dirala esan det, eta izan ere' nere ustez gaizki egindakoren bat badegu, idazle-artean eta eskoladunen artean poliki sartu dana, baiña Gipuzkoa'n beintzat erriak onartu eztuana: «burni-bide» aipatu nai det. Erriak «bide» itza bigarren duden itz-biko asko sortu ditu, ta ongi sortu ere: «zerentzako» edo «norako» bidea dan adiraziz. Ona batzu: Arrozpide, Zaldunbide, Zalbidea (zaldi-bide), Arbide (ardi-bide), Mandabideta, Sagarbide, Egurbide, Ubidea (ur-bide), Gaztanbide, Organbideska, gurdibide; Eiherabide, Errotabide, Gaztelubide, Olabide, Oiharbide, Zabalbide. Orrela, euskaldunek beti jokatu duden bezela aditu ezkerok' «burnibide» burnia eramateko edo ekartzeko bidea da, ez burnizko bidea. Orregatik Gipuzkoa'n beintzat' erriak «trenbide» esaten du, tranarentzako bidea. Ingelesez ere guk bezelatsu egin oi dute: waterway gure urbide da, urarentzako bidea; ta shipway berriz' ontzi-bide, ontzientzako bidea. Eskoladunek erderaz pentsatu oi dute, ta euskerazko itzekiñ ere erderakadak sortu. Prantzesek «chemin-der-fer» esaten dudela' ta «burni-bide» sortu, italia-

rrek «ferrovia» ta alemanek «Eisenbahn» bezelaxe. Gaztelanizko «tran-vía»tik giputzok «tranbe» ta «tranbe-bide» atera genituan; gaztelaniz «la vía del tranvía» esaten duede, «la cuesta de Aldapeta» ta «la playa de Ondarreta» esaten dituden bezelaxe.

Onak edo txarrak' neronek orrelatsu sortutako adibide batzu aipatu-ko ditut. Matematiketan aundiera aldakor baten zati ttiki-ttiki bati gaztelaniz «diferencial» esan oi diode; ortarako nik «apur» itza onartu nuan, eta gerra asi zaneke egunetan «Apurrizti» liburuxobat idatzi nuan (Cálculo infinitesimal alegia). Ori onartu ezkerok' beste itz asko erre-errez ateratzen dira; ona batzu:

apur-neurri (derivada = cociente diferencial); apur-bilketa = integración;

apur-berdinketa = ecuación diferencial; berrapur = diferencial segunda; apurneurketa = derivación. Nere ustez erderazkoak baiño argiago daude, geiago diode.

Adirazpen berriak bi itz baiño geiagok ere esan ditezke. Alemanez iru ta lau itzez ere maiz egiten ditude: Personenkraftwagen coche de turismo), Lastkraftwagen (camión automóvil), Strassenverkehrszulassungsordnung (reglamento de condiciones para el tráfico por carretera) ta abarr. Euskeraz ere erriak orrelakoak sortu edun ditu; adibidez: ur-be-deinkatu-ontzi, arto-bero-usai, ta ustekabeen sortzen ditugun batzu: ez-kon-ebri-itxura, gaztaiñ-erre-saltzaille, gaztaiñ-erre-saltzaille-txabola. Jakite-izkuntzarako oraindik ezker a bide ortaz baliatu, baiña batzutan ego-ki gerta liteke.

«3. Hitz-elkartze berrietan, eta zaharren artean aukera egitekoan orobat, bi indar ari zaizkigu beti lanean. Eredü zaharrak, batetik, eta analogia delakoa, bestetik: *luze-k* antzinako patroiari segituaz, *luza-tu*, *luza-ro*, *luza-mendu* eta abar eskatzen du, analogiak, berriz, kidea kidearekin daramala, *luze-* nonnahi agertzea nahi luke. Gehiegizkorik gabe, nik uste, lehenbiziko joerara eusten ahalegin behar genduke, oraingo isuria bestetara bait doa.»

Onek eztu dudarik. Leengo arauen kontra ariko bagiña' euskera berribat sortzen asiko giñake, «euskera» izena ere mereziko eluken izkuntza berribat asmatzen.

Emen nere aspaldiko pekatubat aitortzea dagokit: idazle batzueri jarraituaz ta itzaren jatorriari begiratuaz' nik ere «euskeldun» eskribitu edun det. Orr ere ezta dudarik, edo eluke izan bearr: euskeraz beti «eus-

kaldun» esan izan da, beraz «euskaldun» esan eta eskribitu bear degu. «Astokeri» ere ezta euskera jatorra, euskaldunok beti «astakeri» esan edun baitegu. «Oraingo isuria» zer dan badakigu: geyenok euskeraz baiño erderaz obeki dakigula. Ori ezta gure gustora ta gure irudipenen arauz euskera aldatzeko arrazoia; gure eginkizunik bearrenetakoa euskeraz ikastea degu. Euskera gure ez-jakiñaren neurrian aldatu nai degulako' sekulako astakeriak irakurtzen ditugu batzutan: «ogei urtedun mutilla»' naiz ta euskerazko itz eta izkiz egiña izan' ezta euskera. ¿Zergatik «ogei urteko mutilla» ez esan, euskaldunok beti esan degun bezela? *Dun* atzizkia *gabe* atzizkiaren kontrakoa da: bizardun, dirudun, etxadun, ezpatadun, norbait besteengandik bereizteko esaten dira. Begidun, belarri-dun, besodun esanda iñor eztegu bereizten, geyenok begiak, belarriak eta besoak bai-baititugu. Izatekotan ere «begi-bakarr», «beso-motz», «anka-makurr» edo orrelako zerbait esanaz bereizi genezazke. Ontan ere' beti bezela' erriari ikasi egin bear diogu, ez irakasi. Baiña beti erdal-idazleen gauzak irakurriaz orretara jotzea ezta arritzeko: el pueblo ignorante, les paysans qui parlent patois, los escritores del «siglo de oro», les grands écrivains; badirudi erriak izketan ere eztakiala. Gaiñera egia izatea ere baliteke. Erdal-errietan baliteke. Euskalerrian ez: euskal-idazlerik onenek ere erdera besterik etzuden irakurtzen, eta orregatik' ayen idazkiak irakurtzean' beti bildurr izan bear degu, alegia euskera jatorrez ari bearrean erderaz pentsatutako ta gaizki euskeraztutako gauzak esaten ote dizkiguden.

Altube zanari entzundako beste zertxobait ere esan nai nuke. Batzutan itzak aditza ta izena alkartuaz sortu oi edun ditugu, esate baterako «jan-gela». Altube'k zionez' ortarako aditza izendu egin bear da, izen-itxura eman alegia; beraz «jan-gela» ez, baizik eta «jate-gela» edo obeki «jate-egi» = «jategi»: jan-etxe ez, baizik eta jatetxe; batu-(t)oki ez, baizik eta batze-oki = batzoki; edan-ontzi ez, baizik eta edate-ontzi = edatontzi. Jokabide jatorra dirudi, baiña maiz erabilgaitz gertatzen da.

«4. Kultura-gaietan zordun eta hartzaile geranez gero, legezko da, noski, hitzetan ere zordun eta hartzaile agertzea. Bestetarikako hitzen itxuraz, ordea, bi iritzi dabilta gure artean: itxura hori gorde nahi luke-te hatzuek egin-ahalean, frantsesaren arabera, eta itxura aldatzea, xinpletzea, besteak, gaztelaniaren arabera.

»5. Nik, egia esan, lehen bidea hartuko nuke arras ikasientzat bakarrik ari bagina, baina ez da horrelakorik gertatzen. Xinpletasunera joko nuke areago, edo erdi-bidera behintzat, *y*, *kh*, *th* eta horrelakoak baztertuz.»

Ontan ere osorik Mitxelena jaunaren iritzikoa naiz, baiña arauetan iritzi berdiñekoak izan arren' egipenetan eztaikit berdiñ ariko giñaken. Eleneratik artutako itzak iñork ere eztitu eleneraz ziran bezela eskribitzen eta oguzten. Izkuntza bakoitzak oguzpena bere bide bereziz aldatzen du, ta oguzpenaren ondoren eskribikera ere bai, batzuk geixeago ta besteek gutxi xeago. Ar dezagun elenerazko «Physikee» itza. *Ph* oraingo izkuntzetan, eta eleneraz ere bai' F bezela oguzten dude, ez elenera zaarrez oguzten zan bezela, euskeraz «aphez», «aiphatv» oguzten diran bezelaxe. Y herriz geyenek *i* bezela oguzten dude, alemanez ta eskandi-izkeretaz bakarrrik oguzten da *v* elenera zaarrez bezela. Bukaerako *ee* luzea eleneraz berriz *i* oguzten dudela uste det, besteetan ezta oguzten, eta eskribitu ere prantzesez bakarrik.

Ta guk ¿zer egin genezake? Batetik jatorriari begiratuaz, bestetik euskeraren oguztaren jokia erak aintzat artuaz' nik *Pusika* onartuko nuke. Ez pentsa orrela beste izkuntza guztiengandik urruntzen geranik. Jakintza-izkuntzen artean ere eztago askok uste duden batasunik. Ona beste izkuntza batzu nola ari diran:

<i>Heleneraz</i>	<i>Latiñez</i>	<i>Italieraz</i>	<i>Prantzesez</i>	<i>Ingelesez</i>	<i>Alemanez</i>	<i>Dansk</i>	<i>Svensk</i>
Physikee	Physica	Fisica	Physique	Physics	Physik	Fysik	—
Khemeia	Chemia	Chimica	Chimie	Chemistry	Chemie	Kemi	—
Arithmeetikee	Arithmetica	Aritmetica	Arithmétique	Arithmetic	Arithmetik	Aritmetik	—
Philosophia	Philosophia	Filosofia	Philosophie	Philosophy	Philosophie	Filosofi	—
Moysiikee	Musica	Musica	Musique	Music	Musik	Musik	—
kistee	cestum	cesto	ceste	cestus	Kiste	kiste	kista
	cesta	cesta		chest			
Cyprium	cuprum	(rame)	cuiivre	copper	Kupfer	kobber	koppar
	oleum	olio	huile	oil	Ol	olie	olja

Norbaitek onelatsu esan lezake: itzoik aspaldikoak dira, izkuntzek alkarrekiñ oraiñ aiñeko artu-emanik etzuden garaikoak; orain sortzen diran itzetan diranak batera jokutzen dude, ta guk ere oiek bezela egin bear degu.

Jakite ta lanketa itzak «internazionalak» diraneko ori' gaztelaniz ta prantzesez besterik ezta kiden batzuen irudipena besterik ez tala esango nuke. Bestela elitzake orrenbeste «Scientific Dictionary» ta «Technological Dictionary» agertuko.

<i>Prantzesez</i>	<i>Italieraz</i>	<i>Ingelesez</i>	<i>Alemanez</i>	<i>Gaztelaniz</i>	<i>Dansk</i>	<i>Svensk</i>
avion (aéroplane)	velivole (aeroplano)	aircraft (air) plane	Flugzeug (air) plane	avión (aeroplano)	flyvemaskine luftfartj	flygplan, aeroplan
porte-avions		aircraft carrier	Flugzeugtrager	porta- aviones	hangarskib	
hélicoptère	elicottero	helicopter	Helikopter, Hubschrauber	helicóptero	helikopter	helikopter
automobile	automobile autoveicolo	(motor) car	Kraftwagen	automóvil	motorvogn, bil	bil
aéroport	aeroporto	airport	Lufthafen	aeropuerto	lufthavn	flygplats
hélice	elica	propeller	Schraube	hélice	flyvepropel	propeller
aviation, transport		aviation, air transport	Luftfahrt, Luftverkehr	aviación transporte	flyvning, luftfart	flygning
oérien				aéreo		
manche-à-balai	leva comando, cloche	control stick	Steuerknüppel	palanca de mando		
bâti-moteur	castello del motore	engine be- arer	Motorgestell	cuna del motor		
train d'atterrisage	carrello	under- carriage	Fahrgestell	tren de atterrizaje		
gouvernail de profondeur	timone de profondità	elevator	Höhensteuer	timón de profundidad		
gouvernail de direction	timone de direzione	rudder	Steitensteuer	timón vertical		

Adibide geiago jartzea alperrikako deritzait. Naiko garbi dago beste izkuntzek ere bakoitzak bere moduz jokatzeko dudela. Gaiñera nederlanderaz (olandesa alegia) oraindik ezte aipatu, orrek geienetan elenerara jotzeke sortu edun baititu bear zituana itzak. Alemanez eta daneraz (Denmark-eko izkuntzaz alegia) batzutan orren antzera aritzen dira, ta len aipatu ditugun itzen gain beste jatorragoak erabiltzen ditude. Ona ale batzu:

<i>Alemanez</i>	<i>Daneraz</i>	<i>Nederlanderaz</i>
Arithmetik, Rechenkunst	Aritmetik, Rekenkunde	Rekenkunde, Rechenkunst
Algebra,	Algebra, Stelkunde	Stelkunst, Algebra
Buchstabenrechnung		
Geometrie, Raumlehre	Geometri, Meetkunde	Landmeetkunde

<i>Gaztelaniz</i>	<i>Alemanez</i>	<i>Daneraz</i>	<i>Nederlanderaz</i>
Ecuación	Gleichung	Ligning	Vergelijking
Gramática	Grammatik, Sprachkunst	Grammatik	Taalkunde, Spraakleer
adjetivo	Adjektiv = Eigenschaftswort	tillaegsord	bijvoegelijk naamwoord
adverbio	Adeverb = Umstandswort	biord	bijwoord
artículo	Artikel = Substantiv =	kendeord	lid- of geslachtwoord
sustantivo	Geschlechtswort Hauptwort = Dingwort	navneord	zelfstanding naamwoord
masculino	männlich	hankn	mannelijk
femenino	weiblich	hunkn	vrouwelijk
neutro	Neutrum	intetkn	onzijdig
adjetivo numeral	Numeral = Zahlwort	talord	telwoord
conjunción	Konjunktion = Bindewort	bindeord	voegwoord
pronombre	Pronomen = Fürwort	stedord, pronomen	vooraanwoord
preposición	Präposition = Verhältniswort	forholdsord	voorzetel
verbo	Verb = Zeitwort	udsagnsord	werkwoord
letra	Buchstabe	bogstav	letter
silaba	Silbe = (Sylbe)	stavelse	lettergreep
vocal	Vokal = Selbstlaut	selvlyd, vokal	klinker
consonante	Konsonant = Mitlaut	mendlyd, konsonant	medeklinker

Geiago jarri bearrik eztedala uste det. Alegia askok uste duden «itz internazionalik» eztala, bakoitzak aal bezela edo nai bezela sortzen dituala. Jakiña da, gaztelania, prantzesa ta askotan ingelesa ere bai, iturri bakarbateko uraz ari diranoik bakarrik gogoratzen baditugu' denetan sendetasun aundiko itzak edirengo ditugu, baiña orrek eztu esan nai beste izkuntza guztietan itz berberak erabiltzen ditudenik. Askotan errez egin genezazken itzen ordez beste batzuengana itz eske joatea' espainiarrek esaten duden bezela «Bizkaira burdiña eramatea» da, edo euskerazko esaera zaarbatek diona: «mandoak osiñari».

Euskal jatorrizko itza errez atera litekenean, edo errez aditzekoa danean' nik enuke beste izkuntzetara joko. Ta bearreko gertatzen danean' jatorrri-izkuntzatik zuzenean artu ta euskal itxura emango nioke, besteek nola jokatu duden geiegi begiratzeko. Aal dan guztietan' azkenean a letra ezkenuke onartu bearr, ori sartu ezkeror itzak atzizkia daukan ala eztaukan jakiteko biderik ezpaitegu. Bizkaitarrek eta Gipuzkoa'ko goyerriarrek bezela Pusikea, Musikea, Orkestrea egin genezazke atzizkia agerian jartzeko; baiña atzizkirik bage Pilosopia, Teologia, Biologia,

Zoologia onartu ezkerro jatzizkia nola agertarazi? Pilosopia, Biologia ta orrela eziñ egingo degu beintzat... Onena, Pusika, Kemi, Pilosopi, Biologi, Astronomi ta abarr egitea genuke. Itzen itxuraz bakarrik ari naiz, Bizitzaizti, Izarritzi (Sternkunde) ta orrelakoak egokiago baiteritzaizkit.

Fisika ordez Pusika batzuri itsusi idurituko zaie, edo ta arrazoi-bagekoa. Bi letra ditugu aztartzeko: P ala F, y, u ala i. Elenerazko Ph Erromarr askok F oguzten zudelako' Kikero'k bere idazkirenbatean adarra jotzen omen die. Latiñik eztakit, eztet irakurri, baiña ezta arrigarri; *ph*-rik eztuden izkuntzetakoentzat oguzteko gaitza da. Euskaldunen artean ere askorentzat «aphez» esatea gaitz egiten da, ta Euskaitzaindi-ko batzuri Epherre esan bearrean Eferre entzun edun diet. Ori ezta aski guk F egiteko. Euskaldun guztiok iparr-euskalkietakoek bezela ph ongi oguzten jakingo begenu' Ph jarriko genuke. Baiña askori gaitz egiten zaigu, ta Baiona'o eskribikeran ph, kh ta th ez erabiltzea erabaki zan: beraz P utsik gelditzen zaigu. Norbaitek esan lezake elendarrek ere orain F oguzten dudela, ta aiek bezela egitea elegokela gaizki. Baiña elendarrek orain B (beta) prantzesezko V ta alemanezko W bezela oguzten dute, ta alaz guztiz ere iñork eztu Viologia edo Wiologia eskribitzea eskatuko. Beraz, Physika, Philosophia, Theologia ordez Pusika, Pilosopi Teologi eskribituko nituke.

Orain bigarren letra aipatu bearko degu. Elenerazko Y prantzesezko U ta alemanezko Ü bezela eguzten asi zana Erasmus izan zala uste det. Asmatu zuanik enuke esango. Alegia elenera zaarrez ü oguzten zane-koa fedeko gauza danik eztakidala. Eleneraz eztet beiñere ikasi, ta beste batzu badira Euskaltzaindia'n ortaz asko ikasiak; berek esan bezade beren ustea. Baiña Y ori u oguzten zala sinisteko arrazoibat ikusten det: Kurilo doneak eslabo-izkuntzentzat letrak asmatu zituanean' u oguzi bear zane-rako Y letra aukeratu zuala. Ezta txit indarr aundiko arrazoia, baiña bes-terik eztanean... nere aita alkate. Egin dezagun kontrako arrazoi obe-renbat agertzen dala, ta orren bidez elenera zaarrez Y ziberutarren ü be-zela oguzten zane-koa sinistarazten digula. ¿Ta zer? ¿euskaldun guztiok ü esaten asiko otegera? Ori litekena balitz' konprome: Püsika eskribitu ta kito.

Ta etzezala iñork pentsa beste izkuntza guzietan Y ori I bezela oguz-ten danik: eskandi-izkuntzetan eta eskribikera «internazionalean» Y ori ü bezela oguzten da, alemanek ere Physik eskribitu baiña Füsik oguzten dute.

«6. Horiek (y, kh, th)), noski, izen propioetan behintzat gorde behar lirake (orobat c, qu eta antzekoak). Beste hizkuntzetako, batez ere hurrunkoetako, izenak nola idatzi erabaki beharko dugu egun edo bihar, baina ez dugu hau lanik presakoena. Euskal-izenak berak ere nola diren erabaki eta irakatsi behar genduke aurretik.»

Ontan ere eztago ezparirik. Poughkeeps, Wroclaw, Szczecin, Brno, Schwyz, ta errelako beste asko euskerazko eskribikeraz jartzea ezta eziñkoa, baiña geienez ere euren jatorrizko eskribikeraz jarri ondoren makotean eskribi genezazke, nola oguzi bear diran jakin dezagun. Adibidez: Poughkeeps (Pokipsi), Wroclaw (Wrotzlav), Szczecin (Xtxetzin), Schwyz (Xwitz), 's Gravenhage (Jrawenhage), Chisinau (Kixinau).

Izkuntzarik geienek eztude jatorri-izenentzat orrelako errespeturik eduten; ona adibide batzu:

Alemanez: Vatikan, Kosta-Rika, Teneriffa, Rom, Warschau; ingelesez: Vatican, Rome, Warsaw, Vienna; prantzesez: Vatican, Rome, Varsovie, Vienne; gaztelaniz Varsovia, Viena, Marsella, Estocolmo. Guk Vaticano, Roma (edo Erroma), Warszawa, Wien, Stockholm, eta orrela egin bear genuke, oraingo joera beste izkuntzetan ere ori baita. Iri bakarrari bi, iru, lau izen ezartzen ezin jarrai liteke; ta ezta nik asmatutako gezurra: Alemanez Aachen, nederlanderaz Aaken, prantzesez Aix-la-Chapelle, gaztelaniz Aquisgrán, italieraz Aquisgrana (Aquisgrana) iri berberaren izenak dira.

Bataio izenekiñ arik eta okerrago gertatu izan da. Izen berri-samarbat aipatzeko' italerako Francesco (Frantxesko) prantzesez François (Franzué, orain Franzuá) gaztelaniz Francés, Francisco, Pancho, Paco, Curro; ingelesez Francis; alemanez Franziskus, Franz; daneraz Frands, Frank, Frans, Frants. Ori zuzentzerik eztago; baiña László Kubala ta Ferencz Puskas (Puxkax) madxarrerri Ladislao ta Francisco esatea ezta egoki jokatzea.

Baiña beste izkuntzeko izenak errespetua merezi badude ere' euskerazkoak areago. Adibidez' Aïñharbe, Atharratze, Basbvr̃v, Athehegi (Atherei), Altzvr̃kv, Lakharri, Sorhueta ta orrelako besteak' euren v, ñh, kh, th, rh ta guzti eskribitu bear ditugu. Batasunaren aitzekiz aita Villasante'ri Kortabitarte ordeztuarte edo Ukullubitarte eskribitzerik eziñ eskatuko diogu.

«7. Nik legekotzat hartuko nuke erderatikako hitz berrieta v gordetzea, nahiz ez gordetzerik agindu. -logia eta antzeko hitzetan, g gordeko nuke, bakoitzak bere erara esan dezan: jeologia eta antzekoak

hobeak dira beharriarentzat, begion kaltetan, ordea. Eta hizkuntza idatzia begiek jasotzen dute bestek baino lenago.»

Ontan enaiz Mitxelena jaunaren iritziko. Eztegu aski nola eskribitu bear dan erabakitzea, nola irakurri bear dan ere erabaki bear dogu; eztegu aski ortografia, ortoepia ere bearreko degu. Eztegu aski papere-tan eta liburuetan berdiñ eskribitzea; gero eskoletan, irratian, teatroan, kulpituan eta alkarrizketan bakoitza bere moduz aritzekotan' ezkenuke asko aurreratuko. Bestela aski genuke txinoek bezela irudi-bidez eskribitzea, ta gero bakoitzak gurdi, karro, kotxe, orga edo nai duana esatea. Oraingo euskaldunik geiena'k diodenez' entzule aundiak eta irakurle kaxkarrak ditugu: orregatik besterik ezpalitz ere' oguzpenari, esateko moduari, ortoepiari jaramon aundia bear diogu.

Jaun eskribitzea erabaki endoren' Jaun, Jaun ala Yaun oguzi bear dan erabaki bearko degu. Enoa orain ortan sartzera, aski det ortan ere erabakizun bat badeguna gogoraraztea (Oraingo batzuk problema edo prolema esango ludeke: ditxosozko erderaz pentsatu ta itzulpen kaxkarrrez idatzi bearra! Erderazko problema itzak adizkizun edo esan-nai asko ditu: asmakizun, moldakizun, erabakizun, ikaskizun eta abarr; aldi bakoitzean egokia aukeratzea, orra aukerakizun edo problema polita!).

Azken-itx batzu esan bearrean naiz. Paperontan «ortografi» ordez «eskribikera» jarri det beti. Erderaz «ortografia» itzak jatorriz «parte de la gramática que enseña a escribir correctamente por el acertado empleo de las letras y de los signos auxiliares de la escritura» esan nai du, gaztel-akademiak dionez. Baiña askotan eztegu orrela erabiltzen. «Esa mecanógrafa tiene mala ortografía», «tal escritor usa una ortografía caprichosa», «la ortografía inglesa es absurda» ta «rrelakoetan' itz orrek eztu «escribir correctamente» esan nai, eskribitzeko modua bai-zik, eskribitze-era edo eskribikera alegia; olakoetan «orto» sartzeta ezta batere egoki. Obe da beraz «Arana'ren eskribikera», «Azkue'ren eskribikera», «Baionako biltzarraren eskribikera» esatea.

Gaizki esanak barkatu. Ta ongi esanak onartu.

Zatarain-darr Ambrosi'k

Antziñako euskal hitzen formaz

Zillegi bekit, hasterakoan, Oxobiren bertsoa gogoratzea:

*Eskerrak, Axular.
Bihi, bazka, indar
egun eta bihar
ba dakigu nun har:
zu baitan!*

Batasunera buruz urrats handi bat egin nahiz gabiltza. Erabateko euskara berdiña gaurkoz erdietsi ezin bada ere, pausu batzuk eman behintzat, xede horretara hurbildu. Hau da guztion ametsa. Muga horretara nola heldu, ordea?

Beste hizkuntza eta herrialdeen jokabidea ikusiz, bide bat baiño gehiago dagoela ikasten da.

Herri batzuek hiriburu bat dute, herrialde guztiazen gainean ezin ukatuzko buruzagitza duen hiri edo ziudade bat. Orduan ziudade horretako mintzaira hartu izan da oiñarrizat. Hau uste dut izan dela Cataluñako kasua, eta bai frantsesarena ere. Guk zoritxarrez horrelako hiribururik ez dugu.

Italian beste jokabide bat hartu zuten. Eskualde jakin bateko mintzoa —Toscanakoa— hautatu zan, hura oiñarrizat hartu zan, eskiribatzaille ospetsu eta handiek aparteko dizdira eta itzala eman ziotelako mintzaira huni. Grezian ere horrelako zerbait gertatu zan: Atenasko mintzoa izan zan han oiñarri, alde batetik hiriburu, eta bestetik autore ospetsu eta famatuena sorleku zelako.

Guk gure egoerari, gure kasuari begiratuaz, zer egin genezake? Guk erdi aldeko dialektuetara jotzea erabaki dugu. Euskarak ba ditu bi dialektu pixka bat zoko egiten direnak: bizkaitarra mutur batean eta zubero-tarra bestean, biak nahiko bereziak. Erdian, berriz, ba da multzo bat Nafarroak, Gipuzkoak eta Lapurdik osatua. Erdialdera diogunean, multzo huntara esan nahi dugu.

Baiña entzun hau ondo. Euskaltzaindiak ezin dezake euskalkirik arbuia. Harentzat guztiak dira jatorrak, baliosak eta maitagarriak. Guztien ondasunak azter eta bil ditezela nahi du. Orai, euskara batu hori

behar dugun ezkerro, Euskaltzaindiaren obligazioa da, baita ere, bidea markatzea, batasun horretara heltzeko bide nondik den erakustea.

Eta erdialde hori hautatu badu, hori da, alde batetik hor dagoelako gure herriaren bihotza, eta bestetik, gure literaturaren kondairan halako abiadura edo joera bat nabari delako. Literatura-zeregiñetan erdialdeko euskara erabiltzera joera nabari delako, alegia. Bertsolariak, sermolariak, hizlariak, liburugilleak eta habar ditugu lekuko. Beraz, lehendik dato-rren abiadura huni eutsi eta jarraiki: hori da bidea.

Gipuzkoa, Nafarroa, Lapurdi. Ba dira haatik desberdintasunak mul-tzo hunen barrenean ere, eta ez txikiak. Nola egin batasuna horien ar-tean? Gure literaturan bi tradizio dira nagusi: mugaz hemendik gipuz-koarra eta mugaz handik lapurtar zaharra. Bereziak dira, noski, baiña nahiko hurbillak, halere. Bi horien artean batasuna egitea ez da hain gaitza. Zoritxarrez gure mendean tradizio horretatik hastandu egin gera pixka bat, elkarrengandik aldenduaz eta urrunduz joan gera. Mugaz beste aldekoek lapurtar zaharrari leialtasun txikia gorde izan diote. Ba-tere tradizio gabeko lokalismuak sartu dituzte euskara idatzian, eta era horretara geroago eta gehiago elkarrengandik urruntzen hari gera. Maiz entzun izan diot bati baiño gehiagori —hemengo aldekoiei, noski— Axu-lar, esate baterako, aise eta gustora irakurtzen dutela, baiña «Herria» astekariko zenbait lan ezin dituztela iretsi. Horrek esan nahi du orai baiño batuago geundela lehen. Eta erdi egiñik zegoen batasuna hautsi eta bakoitza bere aldetik abiatu gerala, txokoan txokoko txokokeriak euskara idatzian sartzeagatik.

Beharbada beste aldekoek gauza bera esan dezakete gugatik. Hemen ere gipuzkera literarioaren tradizioari ez zaio errespeto handirik izan eta berrikeria gehiegi sartu izan dugu.

Barraiatze hau, zatikatze eta elkarrengandik apartatze hau, nola erremediatu edo geldiarazi? Nik, egia esan, istillu huni nekez billatzen diot hunako hau baiño irteera edo soluzio-bide hoberik: hauta dezagula, alegia, denon artean autore bat, behiñolakoa, zaharra, guztion artean lo-karri izateko gai dena, eta berau ispillu eta eredu izanik, hor izango dugu gure batasunarentzat oiñarria. Gauza denetan eta itsu itsuan ezingo dugu hartu, noski. Hizkuntza bizi batek bere eskubideak ditu. Ortografia, jos-keria eta hiztegia bera ere mendez mendez asko aldatu da eta gero ere etengabe aldatuz joango da. Baiña hori gora-behera, egiunez (convencio-nalmente) referentzi-puntu bat guztiok daukagunean, horrek asko esan nahi du eta asko egin dezake elkarrenganatzeko eta nahi dugun batasun horretara hurbiltzeko.

Nik hartarako proposatzen dudan autoreia zein den ba dakizute —ez da sekeretua—: Axular. Arrazoin askorengatik, noski. Bataz zaharra delako, eta zaharrak beti du halako dizdira eta prestutasun usaia. Eta berriz bestea, obra ospetsu, gizen eta jator baten egille dugulako, gure artean beste inork egin ez duen bezalako obra baten egille delako. Gaiñera, hango eta hemengo euskaldunen artean lokarri izateko guztiz egokia eta aproposa dugulako. Bera hemengo aldekoa baitzan, nafarra, hemen sortu, hazi, eskolatu eta gizondua; gero, berriz, han bizi izana eta Lapurdiko euskaran idatzitakoa, baiña hemengotik ere aski hurbil egonik. Batasun hauzi huni buru emateko horra bide bat erraza eta naturala, nere ustez. Bestela beti ibilliko gera orratzik gabeko mariñelak bezala galduak, txokokerietan sartuak, barraiatsuak eta bata besteagandik geroago eta alden-duagoak.

Horrez ez du esan nahi (lehen ere esan dut) Axular gauza denetan eta itsu itsuan hartu behar dugunik. Hori ez da posible.

Herrialde eta hizkuntza denetakoek izan ohi dute aspaldiko autore edo liburu bat ere du eta bandera bezala. Ingelesek ba dute Shakespeare, italiarrek Dante, gaztelarrek Quijote, israeldarrek Testamentu Zaharreko Biblia, et. hab. Gu ere horrelako zerbaiten beharrean gera. Eta esan dudanez, Axular dugu egokiena.

Iturburuetara itzultzea: hori dugu gaurko kezka nagusienetako bat. Elizak eta Elizako Ordenek ere eginbehar hori egotzi diote bere buruari. Guk ere gure batasun istilluak erabaki nahi baditugu, gure antziñatasunari orai arte egin diogun baiño kasu gehiago egin beharko diogu.

Axularren «Gero», beste aldetik, gaur euskaltzale guztien eskuetan dago. Urte gutxiren buruan bi edizio berezi agertu baitira. Bat euskara hutsez 1954 an Zarautzen, gure euskaltzainburu maite Lekuona jaunaren ardurapean prestatua. Bestea erdal itzulpen ta guzti Barcelonan 1964-an.

Baiña ez da aski, nere ustez. Axular zimendutzat hartu nahi badugu, beste zerbait ere behar dugu euskaltzaleok. Hiztegi bat, alegia, haren hitzekin osatua. Aspalditxotik nabil ni lan huni lotua. Lan luzea da, baiña hirutatik bat gutxi gora behera egiñik dadukat: alfabetuko lehenbiziko zazpi letretako hitzak, alegia, egiñak ditut: a, b, d, e, f, g, h. Eta ez ditut hitzak bakarrik jasotzen. Hitz soillak gutxi esan nahi du bere inguru edo kontestutik aterata. Horregatik exenpluak ere erruz jasotzen ditut, hitzaren enplegua edo erabilkera ikas dedin. Gaiñera hitz bat zenbat aldiz eta zein pasartetan azaltzen den ere jakin araziko digu hiztegi horrek. Arantzazuko zenbait ikasleren laguntzarekin jaso ziran liburu osoaren hitzak fitxetan. Baiña orai fitxa horiek denak aztertzea, egiztatzea, ordenatzea

eta garbitan jartzea neronek bakarrik egin behar izaten dut. Soseguz eta arretaz egin behar den lana da. Baiña esan dudanez, hirutatik bat egiña dago.

Azterturik dauden zazpi letra horietan zenbat hitz azaltzen diren jakin nahi baduzue, aurki esango dizuet: 1668 (izen propioak ez dira kontu hunetan sartzen, jakiña). Hitzen maiztasunari begiratuta, batzuk behin bakarrik agertzen diren horietakoak dira (hapaxlegomena). Beste batzuk bi edo hiru aldiz, gutxitan edo dexente aldiz. Beste batzuk, berriz, maiztasun handikoak. Horri ere kasu egin behar zaio. Hitz bakan, meatz eta gutxi erabilliak, gaur gutxi edo batere ezagutzen ez direnak ezin dituzke maiztasun handikoekin berdindu edo mailla berean jarri. Zabalduenai, gehien erabiltzen direnei eman behar zaie lehen tokia. Hauk behar ditugu indartu, finkatu, hizkuntza nahi badugu bere oiñarrietan sendo ezarria eta erroztatua utzi.

Jakin beharrekoa dela uste dut Lafitte jaunak Euskaltzaindiko batzarre batean gogoratu zigun harako hura. Euskaltzaleok euskararen aberastasunaz sobera arroxko eta fier izaten gera. Gauza bera esateko makiña bat hitz dagoela euskarari eta hori ondasun anditza jo izan dugu. Ez ote dira, gero, aberastasun kaltegarriak? Lafitte jaunak, bada, hauxe gogoratu zigun: frantsesaren egoera XVI gn. mendean eta egungo euskararena berdin xamarra direla. Frantsesak ba zuen orduan zer-nahi hitz gauzak esateko. eta hortik zera sortzen zan: elkarrekin ezin aditzea, hitz gehiegi zegoelako. Baiña zorionez autoreak etorri ziran murrizte lana egitera. Murriztu, soildu, kendu, baztertu, hitz beharrenak hautatu, horiek erabilli. horiek zabaltu, horiei indar eman. Bide horri jarraikiz indartu eta finkatu zan frantsesa. Gu, berriz, ibilli gera inun diren hitz bakan eta ezezagunenak berpizten eta zabaltzen eta lan hori egin da guztiok ezagutzen ditugun hitz nagusien kaltetan. Dakizuten bezala, Lafitte jaun bera dabil orai euskarak beharren dituen hitz nagusi horien hiztegi bat egiten.

Batasun kontu hunetan urratsik egin nahi badugu, beraz, hiztegiaren hauziari kasu egin beharko diogu. Eta hauxe da neri batzarre hunetan egotzi didaten saila: euskara batuan erabilliko diren hitzen forma. Forma esatean ez dut ortografia esan nahi. Ortografiaren puntua Mitxelena jaunak ukitu du. Berak ohi duen jakinduri eta maisutasunaz ukitu ere. Baiña ortografia erabaki ondoren, zein hitz erabilliko den, eta zein itxura, tankera edo formakin erabilli behar den jakiten ere ba dira lanak.

Nere barruti hau hobeki mugatzeko, esan dezadan euskal hitz zaharrez edo hizkuntzan aspaldidanik sustraituez hari naizela. Horietaz gaiñera, hitz berrien premian ere ba da gure euskara, beste edozein hizkuntza bezala edo gehiago. Hitz berriak, nahiz euskarak berak dituen gaietatik

eratuak, nahiz beste hizkuntzetatik hartu behar ditugunak. Baiña hitz berrien kontu hau beste norbaitek jorratuko du: Zatarain jaunak, alegia.

Euskal hitzez hari naiz ba. Euskara batuan erabilli behar diren hitzez eta hitz horien formaz.

Eta aurrera joan baiño lehen gogora ditzadan puntu nagusi batzuk. Lehenago Euskaltzaindiak erabaki zituenak dira, baiña gure hauzi hune-tan ezin utzizkoak.

Zer ta zein da euskal hitza guretzat? Euskarak aspaldidanik erabiltzen duena. Euskaldun guztiek edo gehienek erabiltzen duten hitza, beste gabe, onartu beharrekoa da. Gurea da eta gure hiztegieta toki bat zor zaio. Hitz baten jatortasuna bere antziñatasunaren ondorea da. Hitz hura nondik datorren, zer etimologia duen eta habar, hori beste kontu bat da. Linguistek azter eta argi dezatela hori ere, nahi badute edo ahal badute, baiña gure konturako axola guti du horrek. Hitz bat, nun-mahitik hartu izanagatik, gurean erroak egiña bada, gurea da, eta ez dugu hura baztertze-ko eskubiderik. Ez ote da lotsagarri (edo parregarri) gure hiztegiekin gertatzen dena? Askotan euskaldun jatorrek, euskaraz baizik ez dakiten gure gizon eta emakumeek maizenik eta egunoro aho-mihitan hartzen dituzten hitzak ez dira gure hiztegieta aurkitzen, eta orien lekuan euskaldun hutsek erabiltzen ez dituztenak eta ezagutzen ere ez dituztenak aurkitzen dira. Frantsesean edo beste hizkuntza landuetan hori gertatuko balitz, a zer irriak egingo lituzketen frantsesek berek edo hizkuntza horietako semeek! Oraindik denbora asko ez dela, Artetxe jaunak berari gertatua kontatu zidan. Norbaitek galdetu zion «alproja» hitzak ea zer esan nahi zuen. Euskal hiztegieta jo zuen. Alferrik. Han ez zan ageri, nahiz eta euskal hitz arrunta izan. Eta zenbat holako! Ba da herri-kantu bat: «Iruñeko ferietan». Ez da luzea. Hala ta guztiz ere, ba dira kantu hune-tan 26 hitz hiztegian ez datozenak (Lafitte jaunak kontatua)...

* * *

Euskaraz gauza bera adierazteko, askotan, hitz bat baiño gehiago dugu. Gehiegi ere bai dexente aldiz. Toki batean bat erabiltzen da eta bestean beste bat. Zer egin orduan? Hemen bi (edo hobeki esateko, hiru) kasu behar dira berezi.

Lehenbiziko kasua: gauza bat esateko erabiltzen diren hitzek ez dute elkarren artean senidetasunik. Ez dute itxuraz zer ikusirik elkarrekin. Esate baterako «jausi» eta «erori»: adierazpen berdiñekoak, biak jatorrak, euskaraz sustraituak eta hitzaren itxurari bagagozkio, desberdiñak, dife-

renteak. Hitz sail luzea aipa diteke kasu berean: abade/apaiz, lotsa/ahalke, aitzin/aurre, erbiñude/ogigaztai, amarau/armiarma, igel/ugarazio, edo mitxeletak dituen hainbeste izen: pinpirin/txinbeleta eta habar. Gaiso/eri, hordi/mozkor, ezer/deus, gibel/atze, arerio/etsai/izterbegi. Kasu hunetan daude hillabeteen izen asko ere: urtarri/ilbeltz, otsail/zezeil, irail/buruil/agor, azaro/zemendi, abendu/lotazil.

Bigarren kasua: Hitzak erro batekoak izanik ba dute elkarren eitea, baiña aldaketak gertatu dira tokitik tokira (meras variantes). Hitz bera dela bistan da, baiña hitz hori ez da berdin esaten: toki hunetan era batera eta beste horretan beste horretara. Hitz bera bai, baiña aldaketa askorekin. Ejenplu sail luzea ekar diteke hemen ere: berri/barri, beltz/baltz, gezur/guzur, eztaiz/ezteiz/eztegi, anima/arima, igerri/igarri, esan/erran, nabusi/nagusi/nausi, probetxu/protxu, beste/bertze, denpora/denbora, berdin/bardin, bazter/baztar, bider/bidar, pekatu/bekatu, handi/haundi, iñor/nehor, euskera/euskara/eskuara, burdin/burni, dena/dana... eta horrela aspertu arte luza genezake hunelakoen zerenda.

Hirugarren kasua: Hitz bera sentidu desberdiñakin erabiltzen deanean. Toki batean gauza bat esan nahi du eta beste toki batean beste gauza bat. Horrelakoak ere gertatzen dira gure euskaran. 'Begiratu'-ren sentidua ez da berdiña mugaz hemendik eta mugaz handik. 'Lepo' ez da gauza bera gipuzkoarrentzat eta bizkaitarrentzat, 'behatz' ere ez.

Zer egin oihan beltz hunetan? Nola hartu batasuneko bidea hainbeste desberdintasunen artean?

Lehenbiziko kasuan: bi edo hiru hitz adierazpen berdiñekoak, baiña gaiñerakoan erabat diferenteak ditugunean, hobe dugu bat bakarra eduki eta beruni lotzea. Zein hautatu, ordea? Euskaltzaindia ez da nor herriko hitz jator bat baztertzeko edo arbuiatzeko, baiña erabillien eta zabalduen direnei lehen tokia eman dezaieke. Eta zabalduenak edo erabillienak zein diren jakiteko, euskara idatzari begiratu behar diogu, literario hizkera izkiriatua baita, mintzatua baiño areago. Batzuei min ematen die hitzen murrizte egin behar izate hunek, baiña hizkuntzaren biziak eskatzen duen gauza da. Gauza bat adierazteko hobe dugu hitz bat bakarra eduki. Gogora dezagun frantsesak egin zuen iñaustea. Kaltegarri diren aberastasunen zalekeri gehiegia izan dugula uste dut.

Batzuek, hitzen ugaritasun hau gorde nahiz, zera asmatu dute: bi edo hiru hitz adierazpen berdiñekoak direnean, bakoitzari zerbait bereizgarri erantsi, eta orduan ez lukete adierazpen guztiz berdiña izango: antzekoak, sinonimuak izango lirake, baiña bakoitza kutsu berezi batez hornitua legoke. Gizonak, ordea, ez du horrelako aginpiderik hizkuntza

bizi baten gainean. Guk ezin goberna dezakegu hizkuntza horrenbesteraiaño. Ez dago gure eskuan hitzen sentiduak gure nahierara aldatzea. Beraz, adierazpen berdiñeko hitzen artean bat hautatu, zabalduena, erabiliena, eta besteak pixka bat baztertu. Murrizte lan huni beharrezkoa derizkiot, ezpaita hemen beste biderik ikusten.

Bigarren kasua da hitz berbera itxura edo aldaketa bat baiño gehiagokin erabiltzen denean. Itxura, forma edo aldaketa horietatik bat behar da hautatu eta literario hizkuntzan hura bakarrik erabili. Hautatze hau egitea ez da beti gauza erraza izango. Kriterio bat baiño gehiago izan ditekete, gainera. Bazter aldeko eta erdi aldeko formen artean, erdi aldekora jotzea. Forma zahar eta berriaren artean, zaharra hautatu, et. hab. Beti kasu denetan zein hautatu behar den erabakitzea ez da erraza izango; baiña dextente aldiz bai.

Hirugarren kasua: Hitz batek sentidu desberdiñak dituenean, erdi aldeko literaturan finkatua dagoena hartu. Eta erdialde horretan batasunik ezpadago, erabiliena edo literaturan jatorrena dena.

* * *

Bodega eta *Petaka* hitzetan ageri diren konsonanteen artean maiz egiten da trukatzea edo batetik bestera aldatzea euskaran. Jeneralean bodegakoak dirudite jatorragoak eta zaharragoak. Esate baterako jatorragoak dira bake, bekatu, denbora, aldare, dorre dolare, gidatu, giltza, beste hunako hauk baiño: pake, pekatu, denpora, altare, torre, tolare, kidatu, kiltza, etc. hab. Baiña batzuetan forma bat jatorra eta zaharra izanarren, utzi egin beharko da, bestea askoz gehiago zabaldua badago.

Muga dugu bereizle handia bi Euskalerrien artean, eta geroago eta gehiago, gainera. Gaurkoz eta kasu denetan mugaz hemendik eta mugaz handikoen artean batasun osoa erdiestea ez da erraza izango, baiña horretan enseiatu beharko dugu.

«O» letrakin bukatutako hitzetan, hitz horiek hitz berrien sortzaille gertzatzen direnean, «o» hura «a» bihurtzen da, baiña «o»-kin ere esaten dira hitz berri horiek zenbait aldiz. «A» duten formak dira jatorrenak, eta hauk hautatu beharko dira, gehienetan behintzat. Adibidez, astotik astakume, eta ez astokume, astakillo, ez astokillo, astabizkar eta ez astobizkar, astakeria, ez astokeria. Oillotik oillategi, ez oillotegi, eta habar.

Hemen ezin hasi gindezke orai euskararen hiztegi osoa eta euskal hitz denak bana banaka aztertzen, zein hautatu eta zein baztertu beharko

den jakiteko. Hauzi luzeegia litzake. Baiña bidea urratu behintzat egin beharko da. Axularren hitz zerrendatik hariko naiz.

Axularrek ba du ohidura (hitz elkartuetan) hiru konsonante eta iñoiz lau ere bai bata bestearen ondoren idazteko. Adibidez, hotztu, hitz-kuntza, hotzki, hotzberatu, hotztasun eta habar. Guk hunetan, euskal fonetikari jarraikiz, hoztu, hustu, hizkuntza eta abar idatziko ditugu horiek eta kasu berean dauden hitz guztiak.

Beste batzuetan, berriz, «l», «r» ala «n» letraren urrenko, berak «s» ala «z» bakarrik jartzen duenean, guk, gaurko euskal fonetikari jarraikiz, «ts» eta «tz» jarriko dugu. Esate baterako «entzun», ez «enzun»; «entzute», ez «enzute».

Axularren hiztegitik jasoak izango dira hemen aipatuko ditudan hitzak, baiña han dauden hitz denak ez ditugu aztertuko. Hitz batzuk zabalgo gutxikoak dira edo gutxiegi ezagunak. Beste batzuk, berriz, bat ere dudarik gabe eta dauden daudenean onartzekoak, zabalera eta maiztasun handikoak direlako. Guk dudazkoak bakarrik aztertuko ditugu: ikurpen bereko beste itzen bat dagoenean, edo hitz berberak toki batean ikurpen bat eta bestean beste bat daukanean, edo hitz batek beste variante batzuk dituenean. Hitzen zabalgoa eta aldaketak jakiteko, Azkueren hiztegiak eta Mitxelenaren «Fonética Histórica Vasca» liburuaz baliatu naiz.

* * *

Eta hasteko, hor dugu «abade». Axularrentzat «abade», monjeen aita nagusia. Bizkaian, berriz, abade zera da: «cura», «sacerdote» eta Nafarroako zenbait lekutan «párroco» ere bai, uste dut. Euskara batuan Axularrek ematen dion ikurpenarekin xoilki erabilli beharko genduke hitz hau. «Cura» edo «sacerdote» esateko, hor dugu «apaiz». Eta «párroco» esateko, «erretore».

Abre/abere. Axularrek lehenbizikoa dakar. Beharbada hemen bien-tzat izan ditekela lekua. Abere izango litzake «bestia» (animal en general); eta abre, «bruto». gaizki esan bat. Uste dut bereizkuntza hau ez dela nik asmatua, gutxi asko erabillia baizik.

Absolbatu eta *absolbazino* (= absolver, absolución). Huna hemen erdaratik hitz bat, baiña gurean lur hartua eta behar duguna. Forma zahar eta jator hau ezagutzen edo haintzat hartzen ez delako, erdal hutsak hartu behar izaten ditugu: «absolbidu», «absoluzio» eta habar. Gaztelaniaz *nión*, *ción*, *gión*, *sión* bukaera duten hitzak, Gipuzkoako euska-

ran *nio*, *zio*, *sio*, *jio* bukatzen dira; adibidez: «komunio», «orazio», «okasio», «erlijio». Lege horren arabera, absolbazino ere absolbazio izango litzake. Bizkaieraz, berriz, ñ sartzen da i eta o horien artean. Mugaz beste aldean batzuetan *ino* eta beste batzuetan *ione* bukaera aurkitzen dugu. Euskara batuan zein hautatu behar da? Bukaera modu bat behar litzake kasu guztietarako. Orazio, oraziño, orazione... Denak erabilliak, baiña beharbada lehenbizikoa, gipuzkoarra, erabilliena eta euskal fonetikaren lege jakin bati hobeki dagokiona: bokalen arteko «n» galtzeko joera baitu euskarak. Ikus FHV 148.

Gero *adimendu* ala *adimen*? Axularrek lehenbizikoa dakar. Eta berau uste dut dela jatorrena eta hedatuena (Azk. Dic.) «Adimendutsu» ere erabiltzen du Axularrek.

Adio ala *agur*? Axularrentzat «agur egin» zera da=saludar, eta «tributar veneración» ere bai. Baiña «despedir, dar una recomendación al partir», «adio egin» esaten du berak. Gure artean nahastea etorri da «agur» hori «despedir» esateko erabiltzen dugulako, baiña Gipuzkoan gaur eguneon ere hortarako, «agur» baiño gehiago erabiltzen da «adio». Komeni litzake «adio» gorde Axularrek ematen dion ikurpenarekin, eta «agur», berebat, «saludar» edo «venerar» adierazteko utzi.

Afari/apari. Zein hautatu? Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau uste dut dela hedatuena. Beraz, afari, afaldu, afal ondoan.

Ageri ala *agiri*? Axularrek lehenbizikoa dakar, eta berau da hedatuena (Azk. Dic.). Gero hor dugu agertu, arrunt ezaguna eta zabaldua; baiña Axularrek agerrian eta agerriz ere ba dakar, bi r-kin.

Agian/ beharbada/ apika/ benturaz. Axularrek lehenbizikoa eta azkenekoa erabiltzen ditu. Beharbada kasu hunetan denentzat dago tokia, antzekoak baitira, sinonimuak, ez berdiñak.

Gero hor dira *ahalke*, *ahalkesun*, *ahalketu*. Gure aldean ez dira erabilliak (Nafarroako alde batzuetan izan ezik). *Lotsa*, *lotsatu* esaten dugu guk. *Lotsa* baztertu eta horren ordeztu *ahalke* hartzea ez da erraza izango guretzat; eta beste aldekoen berdin gertatuko zaie «ahalke»-ren ordeztu «lotsa» hartu behar badute. Zer egin, beraz? Beharbada, gaurkoz, biak erabilli. Eta geroak esango du.

Ahantzi/ahastu. Axularrek lehenbizikoa erabiltzen du, eta Euskalerri osoari begiratuta, bera da hedatuena. Euskara batuan ahantzi hartu beharko litzakela uste dut.

Ahitu/ akitu/ aitu. Hemen lehenbizikoa, «h» erdian duena uste dut hartu behar dela. Hau da Axularrek dakarrena, jatorrena eta euskara batuan erabiltzeko egokiena.

Aho/ ago/ abo/ ao. Axularrek lehenbizikoa dakar. H-dun forma uste dut dela egokiena, beste guztiak baztertuz.

Aingiru/ aingeru. Axularrek lehenbizikoa dakar. Hemen «aingeru» uste dut dela zabalduena. Ikus FHV 79.

Aipatu/aitatu. Dudarik gabe, lehenbizikoa da hedatuena.

Aise/ erraz/ samur/ eroso. Denentzat dago tokia. Sinonimuak dira, baiña ez berdiñak.

Aitzin ala aurre? Hemen ere istillu txar bat dugu. Sarkaldeko euskalkiek aurre, aurrera, aurrerapen eta abar esaten dute; eguzkialdekoek aitzin, aitzin-alde, aitzinamendu eta habar. Ez dut uste gaurkoz batak bestea bazterrera lezakenik. Biak erabilli eta geroak esango du.

Aldare/ altara. Lehenbizikoa da hemen hedatuena.

Alfer/ alper. Lehenbizikoa hemen ere.

Altzairu/ galtzairu/ kaltzairu. Hemen bigarrena uste dut hautatu behar dela, nahiz eta Axularrek lehenbizikoa ekarri. Ikus FHV 252.

Amorio/ amodio/ amudio/ maitasun. Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da noski hedatuena. Ikus FHV 228. Amorio eta maitasun ez dira berdiñak, eta biak gorde behar ditugu.

Anaia ala anai? anaiatasun ala anaitasun? Axularrek lehenbiziko formak dakarzki eta Euskalerrri osoari begiratuta, beharbada hedatuena dira. Gipuzkoan «a» orgánica hori errazki kentzera oituak daude. Ikus FHV 175, 176s, 222, 305.

Anitz ala asko? Hemen ere bitaratuak edo bereziak daude sarkaldeko eta eguzkialdeko euskalkiak. Ez dut uste gaurkoz hitz horietatik batak bestea bazterrera lezakeanik. Gaiñera, Axularrentzat «asko», «bastante» da, ez guretzat bezala, «mucho».

Antsia/ axola/ ardura. Axularrek lehenbizikoa eta hirugarrena erabiltzen ditu, erdikoa ez, baiña hala ere «axolduritu» enplegatzen du. Beharbada hiru hitz hauk antzekoak bai, baiña erabat berdiñak edo adierazpen berekoak ez dira, eta hirurak gorde ditezke.

Antze ala trebetasun? Axularrek lehenbizikoa dakar. Beharbada biak dira onartzekoak, erabat berdiñak ez izaki.

Aparailu/ apareju. Axularrek lehenbizikoa dakar. Erdaratiko hitza da, baiña jator eta egoki euskaldundua. Berau uste dut hartu behar dela, eta ez bigarrena.

Apez ala apaiz? Axularrek lehenbizikoa dakar. Hemen ere eguzkialdera apez, sarkaldera apaiz esan eta eskiribatzen da. «Apaiz» da, noski,

zaharragoa eta jatorrizko itxuratik hurbillago dagoena. Ikus FHV 117, 229.

Apo ala zapo? Hemen ere, beste anitzetan bezala, bitaratuak gaude sarkaldeko eta eguzkialdeko euskaldunak. Lehenbizikoa da Axularrek dakarrena, eta berau uste dut dela zabalduena. Ikus Azk. Dic. Beraz hau hartu beharko litzake.

Apostolu/ apostolo. Lehenbizikoa.

Arantze/ arantza. Axularrek beti dakar «arantze», «batzarre», «baratze», «heriotze» eta habar. Hitz hauken bukaeran ere ez dago gure artean batasunik. Batak «baratz» jarriko dizu, besteak «baratze», besteak «baratza». Axularren jokaera izango litzake hoberena batasuna egiteko.

Arazi/ erazi/ arazo. Axularrek beti erabiltzen du arazi (galarazi, geldiarazi). Hemen ere Axularren jokabidea izango litzake egokiena, erazi, arazo eta horiek kenduaz.

Ardandegi/ ardantegi. Lehenbizikoa.

Arima/ anima. Axularrek lehenbizikoa dakar eta gaur eguneon ere bera da hedatuena. Beraz, berau hartu beharko litzake. Ikus Azk. Dic.

Arnegatu/ ernegatu. Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da zabalduena. Ikus FHV 164. Beraz bera hartu behar da. Eta horren senideak diren beste hitz hauk ere bai, noski: arnegari, arnegu.

Arno/ ardo/ ardao. Hiru forma hauk gutxienez (eta gehiago ere aipa ditezke) dauzka euskarak, «vino» deritzaion edaria izendatzeko. Zein hautatu? Axularrek «arno» dakar noski. Baiña Euskalerri osoari begirata, bigarrena uste dut dela zabalduena: «ardo», erdikoa. Ikus FHV 151.

Artzai/ artzain. Axularrek bigarrena dakar (hobeki esateko, arzain jartzen du berak; baiña gaurko euskal fonetikari jarraikiz «tz» jarri behar da). Hemen ere hedatuena «artzain» uste dut dela: beraz hau onartu behar da. Ikus FHV 144. Bukaerako zai edo zain hau beste hitz askoren sortzaille gertatzen da, eta denetan gorde behar litzake forma bera: ate-zain, mandazain eta habar.

Arzipizpiku. Hala dakar Axularrek «arzobispo» esateko. «Arzobispo» esatea baiño hobe genuke forma zahar huni lotzea.

Arrai/ arrain. Axularrek beti «arrain» dauka, erdarazko «pez» esateko. Berau uste dut dela formarik hedatuena. FHV 144. Arrai, gaiñera, beste gauza bat da (=afable), eta nahasterako bidea lekarke.

Arrau/ arraun (=remo). Axularrek lehenbizikoa dauka, eta berau da hedatuena. FHV 152. Hau hartu behar litzake, ba.

Arrazoi/ arrazoin. Axularrek arrazoin dakar eta berau da hedatuena. FHV 148. Hau hartu behar litzake, ba.

Arropa/ erropa. Axularrek lehenbizikoa dauka. Bizkaitar-gipuzkoarrek bigarrena erabiltzen dugu. FHV 156. Lehenbizikoa onart ditekete, hedatuena baita.

Arrosa/ larrosa. Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da hedatuena. Azk. Dic. FHV 156. Axularrena har ditekete, beraz.

Arroxina/ erretxin (=resina). Axularrek lehenbizikoa dakar; baiña hemen beharbada «erretxin» izango da formarik hedatuena. FHV 155. Azk. Dic.

Aski eta *asko*, biak ageri dira Axularren eta biek dute adierazpen berdin xamarra: «bastante». Asko izan=bastar. Guretzat, berriz, lehenbizikoak «bastante» eta bigarrenak «mucho» esan nahi du; eta bereizkuntza hau gorde beharrekoa dela uste dut.

Asmo ala *asmu*? Axularrek bigarrena dakar. Sartaldekoek lehenbizikoa erabiltzen dugu. Oso hitz arrunta da guretzat. Beharbada halako bereizkuntza bat ere egiña dago «asmo» eta «asmu»-ren artean. Asmo da «propósito», «proyecto»; asmu, berriz, «ingenio» edo «maniobra ingeniosa». Asmutsu ere hor dago (=sagaz, ingenioso).

Astelegun/ astegun. Axularrek lehenbizikoa dakar. Beharbada hemen bigarrena da jatorrena eta hedatuena. Azk. Dic.

Ate/ borta. Axularrek lehenbizikoa erabiltzen du eta bera da noski hedatuena.

Atera/ atara/ etara. Lehenbizikoa dakar Axularrek eta berau da hedatuena.

Ateri/ aterri. Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da hedatuena.

Atxakia ala *aitzaki*? Axularrek lehenbizikoa dakar. Aitzaki uste dut dela hedatuena FHV 184.

Atzeman/ atzaman/ atxeman. Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da hedatuena eta jatorrena. Azk. Dic.

Aurkitu ala *arkitu*? Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da zabalduea FHV 95. Ikus beherago «Ediren».

Aurtiki/ jaurti/ jaurtigi. Lehenbizikoa da zabalduea eta hautatzeak; Axularrek dakarrena, noski. FHV 101.

Baimen/ baimendu/ baimendura. Axularrek bigarrena dakar. Baiña «baimen» uste dut dela hedatuena. Azk. Dic.

Baiña ala baiño? Axularrek ez ditu behin ere nahastutzen. Haren-tzat baiña erdarazko «pero» bezala da (eta «sino» bezala ere bai); eta baiño, konparativua da betiere. «Hau hori baiño zuriagoa da». Gipuzkoan «baiña» eta «baiño» nahastuta erabiltzen dira; «baiña» behar den lekuan «baiño» sartzen baitute. Ez lirake nahastu behar.

Baizen/ bezain/ bezin (=sino). Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da hartzekoa. FHV 178.

Bake ala pake? Axularrek «bake» dakar eta berau da jatorrena. FHV 51, 218.

Bakotx ala bakoitz? Axularrek lehenbizikoa dakar. Baiña hemen bigarrena uste dut dela jatorrena eta zabalduena. Azk. Dic. Ikus bat-bedera.

Balios ala baliotsu? ala balioso? Axularrek lehenbizikoa dakar, eta orobat baliostasun (=valor, precio). Hunela bukatutako adjetivuek sailla osatzen dute Axularren euskaran: abarizios, biktorios, lorios, desiros, dudos, golos, gutizios, hiros... Adjetivuak formatzeko orduan hain urri eta lander ibiltzen geran ezkero, beharbada kontuan eduki behar litzake forma hau. Hedadurari bagagozkio «balioso» uste dut dela hedatuena. Azk. Dic.

Baratzuri/ baratzuri/ berakatz. Axularrek lehenbiziko biak dakar-ki. Aurrenekoa da, noski, zabalduena. Azk. Dic.

Baratze/ baratza/ baratz/ ortu. Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau uste dut hautatu behar gendukela.

Barazkari/ bazkari. Axularrek lehenbizikoa dakar. Baiña gaur bazkari da hedatuena. Azk. Dic.

Barkatu ala parkatu? Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da noski jatorrena eta hautatzekoa.

Barur/ barau/ baraur/ baru. Axularrek lehenbizikoa dakar, baiña «barau» uste dut dela formarik hedatuena. FHV 97. Azk. Dic.

Barraiatu ala barreatu? Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da, beharbada, formarik hedatuena. Azk. Dic.

Gero hor datoz *Barren, barrena, barrenalde, barrenkor*... Axularren euskaran denek dute zer ikusi «interior», «íntimo», «cosa de dentro» ikurpenarekin. Baiña hor daude «Barne» (hedadura handikoa. Az. Dic.) eta «barru» (bizkaitarra) ere. Bizkai aldean eta Nafarroa beheko zenbait lekutan «barren» ez da «interior» edo «cosa de dentro»; «cosa de abajo» baizik. Erdi aldeko literaturari segituz «barren» eta «barne» har-

tu behar lirakela uste dut eta «dentro», «interior» adierazteko hartu ere. FHV 165. Azk. Dic.

Barride/ hauzo/ hauzoko (=vecino, convecino, del mismo barrio). «Hauzo» da noski onartzekoa. Bai «vecino» eta bai «vecindad» ere esan nahi du. FHV 93.

Bat bedera (=cada uno). Adierazpen hunekin darabil hitz hau Axularrek, eta usu erabilli ere. Guk adierazpen horretarako «bakoitz» erabiltzen dugu. «Bat bedera» hedadura txikikoa izanik (Azk. Dic.), besteak («bakoitz» hitzak) onartzekoa dirudi.

Batzarre/ batzar. Axularrek «batzarre» dakar eta berau uste dut dela onartzekoa.

Batzuek/ batzuk. Axularrek biak dakartzki, baiña oker ez baldin banago, bereizkuntza bat daki egiten. Hunela esango du: «Batzuek egiten dute», baiña «Batzuk etorri dira». Agente denean, «batzuek»; bestela, berriz, «batzuk».

Batzutan/ batzuetan. Axularrek beti lehenbizikoa dakar.

Bazko/ pazko. Axularrek lehenbizikoa dakar. Sartaldeko euskaldunek «pazko» esaten dugu, baiña «bazko» da beharbada jatorragoa eta bai zabalduagoa ere (Azk. Dic.).

Bazter/ baztar. Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da zabalduena eta jatorrena. FHV 62.

Bedere/ bederen/ bederik. Axularrek lehenbizikoa dakar, baiña bigarrena da hedatuena. Azk. Dic.

Begiratu/ behatu. Axularrentzat «begiratu» eta «behatu» bi gauza diferenteak dira. Lehenbizikoak «cuidar», «proteger» esan nahi du; bigarrenak, berriz, «mirar». Sartaldeko euskaldunek «behatu» ez dugu erabiltzen eta heronen sentidua «begiratu»-ri eransten diogu. Eta mugaz handikoek «begiratu»-rekin esan nahi dutena guk «gorde», «zaindu» edo horrelako beste hitz batekin azaltzen dugu. Nola zuzendu nahaste hau? Izango dira lanak. Nolanahi ere «behatu» ezin da baztertu, hedadura handikoa baita. Eta «begiratu» ere ez, noski.

Begitarte/ aurpegi/ arpegi/ bisaia/ musu. Axularrek lehenbizikoa bakarrik dakar. «Aurpegi» eta «arpegi»-ren artean lehenbizikoa hartu behar da, zabalduena baita FHV 95. Gaiñerakoan lau hitz hauk ez dut uste erabat berdiñak direnik; ikurpen edo adierazpen antzekoa dutenak bai, baiña ez osotoro berdiña. Beraz, hirurak gorde ditezke.

Beharri/ belarri. Axularrek lehenbizikoa dakar eta mugaz handikoek hala idazten dute orai ere. Vokalen arteko «h» horren ordez sarri

sartzen dugu guk g, r edo l, hemen bezala. Hoberena litzake horrelako kasuetan beti «h» idaztea eta kito, mugaz handikoen ohidurari jarraikiz. FHV 221.

Behaztopa/ behaztopa-harri/ oztopo. Axularrek aurreneko biak dakarzki. Beharbada hemen ere ikurpena ez da erabat berdiña. Lehenbiziko biek «tropiezo» esan nahi dute; hirugarrenak «obstáculo». Eta hiruren-tzat dago tokia. Azkue-ren hiztegian «oztopo» ez da aurkitzen.

Beheiti. Axularrek elkarrekin joko zerbait duten hunako hitz hauk erabiltzen ditu: goiti=altura, beheiti=bajura, goititu=levantar, beheiti-tu=abajar. Forma horiek mugaz handiko aldean eta bai Nafarroan ere zerbait zabalduak daude. Baiña «goi» eta «behe» dira ene ustez hedatue-nak eta egokienak.

Behera/ bera (=abajo). Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau hautatu behar da, duda gabe, osoa delako eta besteak beste ikurpen bat duelako (=mismo, blando).

Behereko/ beko. Hemen ere lehenbizikoa da hartu behar dena.

Bekatore/ bekatari/ pekatari. Axularrek lehenbizikoa dakar, baiña hemen bigarren forma litzake jatorrena.

Bekatu/ pekatu. Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da noski jatorrena eta onartu behar gendukena.

Bekoki/ kopeta/ belar. Beharbada hirurak dira onartzekoak, ikur-pena antzekoa bai, baiña berdiña ez izaki.

Beldur/ bildur. Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da noski zabalduena eta hautatu behar dena. FHV 63. Azk. Dic.

Belaunikatu/ belaurikatu, belauriko/belauniko. N-dun formak dira egokienak eta erabilienak. FHV 309. Azk. Dic.

Beltz ala baltz? «Beltz» da noski zabalduena. FHV 63.

Benedikatu/ bedeinkatu/ bedeikatu. Axularrek lehenbizikoa dakar. Hemen ere bitaratuak gaude sortaldeko eta sartaldeko euskaldunak. Sar-taldekoek «bedeinkatu», eguzkialdekoek «benedikatu». Zein hautatu? Hu-netan, nik ez dakit, baiña jatorrago eta egokiago iruditzen zait «bedein-katu». «Benedizione» eta «bedeinkazio»-ren artean ere bigarrena hartuko nuke.

Bere (=su). Axularrek «bere» erabiltzen du, bai singularean eta bai pluralean ere; gipuzkoarrek azken kasu hunetan «beren» jartzen dute. «Beren etxeetan» = en sus casas. Axularrek hor ere «bere» esango luke. Baiña beste diferentzia handi bat nabari da «bere»-ren erabilkeran. Axu-larrek —eta berarekin batean mugaz beste aldekoek eta bai hemengo na-

farrek ere— «bere» erabiltzen dute jabaduna orazioaren sujetua denean; eta bestelako kasuetan ez dute «bere» esaten, «haren» baizik. Gipuzkoarrek eta bizkaitarrek, berriz, beti «bere» kasu denetan. Ejenplua: aitak bere semea maite du (kasu hunetan denok erabiltzen dugu «bere»). Baiña: Pedro ikusi al duzu? Bai. *Bere* etxean egona naiz. «Haren etxean» esango lukete hemen, bizkaitar eta gipuzkoarrek ez, beste denek. Ba dira Jainkoaren laudorio batzuk, gure Jauna agerian dela elizetan esaten direnak: «Bedeinkatua izan bedi Jaungoikoa: Bedeinkatua izan bedi *bere* izen santua», hala esango dizute Gipuzkoa eta Bizkaiko elizetan; Nafarroan, berriz, «Bedeinkatua izan bedi *haren* izen santua...» eta horrela dator laudorio sail guztia: denetan «bere» horrek «haren» behar luke izan; gero azkenengoan berriz, «Bedeinkatua izan bedi Jaungoikoa bere aingeru eta santuetan», hor bai, «bere» ongi dago. Uste dut Orixek ere salatu zuela «bere»-ren oker erabiltze hau. Batasunari jarraikiz uste dut hunetan euskaldun gehienek legea hartu behar gendukela guk, bizkaitar eta gipuzkoarrok.

Berdin/ bardin. Axularrek «berdin» erabiltzen du, eta hau da noski zabalduena eta hartu behar dena. Axularrentzat «berdin» hunek ba du beste sentidu bat ere: «al fin y al cabo», «en fin de cuentas» edo horrelako zerbait adierazteko ere erabiltzen du.

Bertute/ birtute. Axularrek lehenbizikoa erabiltzen du eta berau uste dut dela zabalduena.

Bertze/ beste. Axularrek «bertze» dauka. Hunetan ere bitaratuak gaude sortaldeko eta sartaldeko euskaldunak. Mitxelenak dionez (FHV 363), «beste» da forma hedatuena. Hau hartu beharko litzake euskara batuan. Eta (jakiña) «bestela», ez «bertzela».

Berri/ barri. Axularrek «berri» dauka, eta hau da noski hedatuena. «Berriz», ez «barriz».

Besta/ pesta/ festa. Axularrek «besta» dauka eta berau uste dut dela jatorrena eta hautatu behar litzakena. Beste aldetik hor dugu «jai» ere. Uste dut «jai» eta «besta» bi-biak gorde behar direla. «Besta»-tik, berriz, «bestaburu», «bestale» eta habar sortzen dira.

Bete. (=llenar). Axularrek «bete» erabiltzen du, baiña gero, deribazioan, «betakor», a-kin. Deribatze forma jator hau ere gorde behar dugu.

Bezala/ bezela. Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau uste dut dela zabalduena eta hautatu behar dena. «Bezalako», ez «bezelako».

Bestitu/ beztitu/ meztitu. Axularrek lehenbiziko biak erabiltzen ditu; bietatik bigarrena da, noski, jatorrena, z-kin esaten dena. Bizkaieraz meztitu/meztidu esaten da, baiña sentidu berezi batekin: «amortajar», ale-

gia. «Beztitu», berriz, «jauntzi»-ren sinonimu bezala, bizi-bizirik dago oraindik Nafarroa aldean, eta mugaz beste aldean ere baietz uste dut. «Beztitu» eta «jauntzi», biak gordeko nituzke.

Bi/ biga/ bia (=dos). Axularrek bai «bi» eta bai «bia» ere erabil-tzen ditu. «Bi» da noski forma zabalduena eta hautatzekoa. Beraz «bi-tan», ez «biatan».

Bide-xidor/ bidetxior/ bide-zador. Axularrek lehenbizikoa dakar. Hitz hunek ere hainbat variante ditu. Ikus Azk. Dic. Batasunarengatik Axula-rrek dakarrena har ditekete.

Biharamun/ biaramon/ bixaramon/ bixamon. Axularrek lehenbizi-koa dauka eta berau uste dut dela jatorrena. Azk. Dic. FHV 335.

Bihi/ ale/ garaun. Hedadurari begiratuaz lehenbizikoa da beharbada hedatuena (bai mugaz beste aldean eta bai Nafarroan ere esaten baita). Hau hartu beharko litzake ba. Berau da Axularrek darabillena ere. FHV 222.

Bildu/ batu. Ez dira adierazpen berdiñekoak. Axularrek biak erabil-tzen ditu. Lehenbizikoa «recoger» esateko; bestea «encontrar» edo horre-lako zerbait. Biak gorde behar dira. FHV 345.

Biluzi/ buluzi/ billuxi/ biloiz/ billos. Axularrek lehenbizikoa da-kar eta bera uste dut dela jatorrena eta egokiena. Beraz, «biluzgorri», «biluztu».

Bisaia. Ikus Begitarte.

Bitarteko/ ararteko. Axularrak biak dakartzki. Sinonimuak diren ez-kero eta ez guztiz berdiñak, bientzat uste dut dagoela tokia.

Bitiña/ ahuntzume/ antxume. Axularrek lehenbizikoa dakar, baiña hemen bigarrena uste dut dela hedatuena eta hartu beharrekoa. Azk. Dic.

Bizitze/ bizitza. Axularrak lehenbizikoa dakar eta beharbada berau da egokiena. Gorago esan genduen bezala, hitz mordoa dauka Axularrek -tze bukaera hunekin.

Borondate/ borundate. Lehenbizikoa.

Bortxa/ indar. Axularrek biak dakartzki. Ez dut uste erabat berdi-ñak direnik. Beraz, bientzat dago lekua.

Bortz/ bost. Axularrek lehenbizikoa dakar, baiña bigarrena uste dut dela hedatuena. FHV 363.

Borrokatu/ burrukatu. Axularrek lehenbizikia dakar eta berau da hedatuena eta hartu beharrekoa. Azk. Dic.

Botere/ ahal. Axularrak biak dakartzki. Ez dira guztiz adierazpen berdiñekoak, eta bientzat dago lekua.

Bozkario/ boztario/ pozkari. Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da hedatuena eta jatorrena. Azk Dic.

Boztu/ poztu. Lehenbizikoa.

Brida/ draga (=freno). Axularrek lehenbizikoa dakar. Berau har diteke eta bai berunetik heldu den «bridatu» (=frenar) ere.

Bulkatu/ bultzatu. Axularrek lehenbizikoa dakar. Hemen ere bitaratuak gaude eta hedadurari begiratuaz gaitz da zein hartu behar litzaken erabakitzea. Azk. Dic.

Burdina/ burni. Axularrek lehenbizikoa dakar. Gipuzkoa kendu ez-kero, berau uste dut dela Euskalerrri osoan erabillia. Beraz bera hartu behar da.

Buraso/ guraso. Axularrek lehenbizikoa dakar, baiña Euskalerrri osoari begiratura, bigarrena da hedatuena; beraz, hartu beharrekoa. FHV 259.

Buro/ birao/ birau. Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau uste dut dela hedatuena, nahiz eta gipuzkoar eta bizkaitarrek bigarrena erabilli. FHV 74.

Butun/ gutun. Biak dira sortaldeko formak. Axularrek lehenbizikoa erabiltzen du, baiña gaur bigarrena uste dut dela hedatuena.

* * *

Damu. Hitz hunek ez du toki denetan sentidu berdiña. Batzuentzat «arrepentimiento», beste batzuentzat «Daño» ere ba da. Baiña lehenbiziko sentidua uste dut dela zabalduena eta nagusia. FHV 187. Azk. Dic.

Dastatu/ txastatu/ jastatu (=probar, gustar). Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da hedatuena. FHV 187.

Deabru/ demonio/ etsai/ txerren. Axularrek lehenbiziko biak dakarzi. Izen hauk ez dira adierazpen berberekoak. Laurak har ditezke, beraz. «Deabru» hitzak ba du variante bat: «debru», baiña forma osoa da arruntena eta gorde behar dena. FHV 260.

Debekatu/ bedekau. Lehenbizikoa, noski. FHV 260.

Debot/ debotu. Axularrek lehenbizikoa dakar. Mugaz beste aldekoek uste dut zuzenean frantsesetik hartzen dutela bukaera-molde hau; guk beharbada jatorrago: «debotu». Axularrek adberbioa ere «debotki» erartzen du. Zein forma hartu behar da? Gizon debota, ala debotua? Bigarrena, ene ustez.

Debozino/ debozio/ deboziño/ debozione. Axularrek lehenbizikoa dakar. Gorago esan genduan bezala, nik bigarrena hartuko nuke.

Defendatu/ defenditu/ defendidu. Axularrek lehenbizikoa dakar. Nik ez dakit zein izango den hemen zabalduena: gure hiztegiatar jotzea alfer alferrik da ta. Erdikoa seguru asko.

Deihadar/ deadar. Axularrek lehenbizikoa dakar. Berau uste dut dela forma jatorrena, hedatuena ezpada. FHV 176, 211.

Denbora/ denpora. Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da jatorrena. FHV 239.

Desira/ desio/ deseo. Axularrek lehenbizikoa dauka. Forma jator hau dugun ezkerro, hobe dugu berau erabilli, zuzenean erdaratik hartzen ibilli gabe.

Deus/ ezer. Axularrek lehenbizikoa erabiltzen du. Hemen ere bitaratuak gaude euskaldunak. Zein hautatu? Beharbada gaurkoz biak beharko dira gorde.

Dilindaka/ zintzilika/ dingilizka. Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da hedatuena. Azk. Dic.

Disposatu/ disponitu/ disponidu. Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da jatorrena eta hartu beharrekoa.

Diti/ titi. Axularrek lehenbizikoa dakar, baiña hemen bigarrena da askoz hedatuagoa. Azk. Dic.

Diszipulu/ dizipulu. Axularrek biak dakartzki, baiña bigarrena maizago, eta bera da euskal forma jatorra.

Dohain/ doai/ doe. Giputz-nafarrek bigarrena, bizkaitarrek hirugarrena eta mugaz beste aldekoek lehenbizikoa erabiltzen dute. Axularrek ere lehenbizikoa. Berau uste dut dela jatorrena. FHV 147.

Dolu. Damu-ren sinonimu bezala erabiltzen du Axularrek. Sortaldeko euskaldunen hitza da. Sinonimua den ezkerro, bientzat dago tokia.

Dorre/ torre. Axularrek lehenbizikoa erabiltzen du, eta bera da forma jatorra. Nafarroan eta mugaz beste aldean erabillia. Azk. Dic.

Dostatu/ jostatu. Axularrek lehenbizikoa darabil, baiña bigarrena da zabalduena. Azk. Dic.

* * *

Ebaki/ ebagi. Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da arruntena. FHV 231. Azk. Dic.

Ebatsi/ ostu. Axularrek «ebatsi» erabiltzen du. Eta berau erabiltzen dute euskaldunek, gipuzkoar eta bizkaitarrek ez, beste guztiek. Azkuek

dionez, «ebatsi» eta «ostu» sinonimuak dira, «hurtar» eta «robar» bezala. Hala bada, biak har ditezke. Azk. Dic.

Edeki/ kendu. Axularrek «edeki» dakar, baiña bestea da arruntena. Azk. Dic. FHV 156.

Edertu/ ederztatu. Bientzat dago tokia, ezpaitira adierazpen berekoak. Bata «hermosear» da, bestea «paliar», «colorear».

Ediren/ idoro/ aurkitu/ arkitu. «Ediren» eta «idoro»-ren artean, lehenbizikoa da zabalduena. «Aurkitu» eta «arkitu»-ren artean, «aurkitu». Orain, «ediren» eta «aurkitu» adierazpen berekoak ote dira? Ez dut uste. Sinonimuak, hori bai, «hallar» eta «encontrar» bezala. Beraz, bien-tzat dago tokia.

Edozein/ edozoin (=cualquiera). Lehenbizikoa da noski hartu beharrekoa.

Eduki/ euki/ iduki (=tener). Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da hedatuena. Azk. Dic. FHV 65.

Egoitza/ egoera. Axularrek lehenbizikoa dakar. Beharbada ez dira ikurpen guztiz berekoak. Bata «morada, situación»; bestea «estado». Biak behar ditugu.

Egorri/ igorri/ bidali/ bialdu/ bidaldu. Axularrek lehenbiziko biak dakarzki, baiña «igorri» gehiago. Bi forma horietatik «igorri» da, noski, hautatzekoa. «Bidali», «bialdu» eta «bidaldu»-ren artean, «bidali» da zabalduena. Eta «igorri» eta «bidali»-ren artean, zein hautatu behar ote da? «Bidali» da, noski, Euskalerri osoari begiratuta, hedatuagoa; baiña «igorri» ere hedadura handikoa da; gipuzkoar eta bizkaitarrek ez, beste guztiek erabiltzen baitute. Beharbada erabat berdiñak ere ez dira eta bien-tzat izan ditezke tokia.

Egotzi/ aurtiki. Axularrek biak dakarzki. Biak gorde behar dira, antzekoak bai, baiña berdiñak ez diren ezkerro.

Eguerdi/ eguardi/ eberdi. Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da noski forma jatorra eta hartu behar dena.

Egun. Hitz hau Euskalerri osokoa dugu. «Día» da beronen sentidu nagusia. Ba du beste sentidu bat ere, arras zabaldua, batez ere sortaldean: «hoy» hitzarena. Axularrentzat «egun» bai «día» eta bai «hoy» ere ba da. Bi sentidu horiekin hartuko nuke nik.

Ekin. Axularrentzat «hasi» edo horrelako zerbait esan nahi du; hapaxlegomena bezala azaltzen da. Sartaldeko euskaldunentzat beste zerbait da: lehiatsuki jardun, iraupenez, temaz eta setaz eta atxikimendu handiz

lan bati lotzea. Uste dut beste aldean erdi hilla eta ezezaguna dela hitz hau. Guretzat, berriz, ezin utzizkoa.

Elaberriti/ berritsu/ barritsu. Axularrek lehenbizikoa dakar. «Berritsu» eta «barritsu»-ren artean, «berritsu» hartu behar da, noski. «Elaberriti» eta «berritsu», berriz, erabat berdiñak ez dira ta, bientzat uste dut dagoela lekua.

Elur/ edur. Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da noski zabalduena eta hartu beharrekoa.

Eliza/ eleiza/ elexa. Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da noski zabalduena eta hartu behar dena.

Elkar/ elgar/ alkar. Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da zabalduena. Azk. Dic. FHV 69.

Eltzaur/ intzaur/ intxaur (=nuez). Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da Nafaroa behean eta Lapurdin erabiltzen dena. Baiña hemen hirugarren forma da beharbada jatorrena eta egokiena. FHV 285.

Eltze/ lapiko. Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da zabalduena.

Eman/ emon. Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da zabalduena.

Emazte. Axularrentzat gure «emakume» bezala da. Guretzat, berriz, senardun emakumea esan nahi du. Bigarren sentidu hau da arruntena. Azk. Dic.

Emazurtz/ umezurtz. Axularrek lehenbizikoa dakar, baiña hemen ere bigarren forma da hedatuena eta hautatzekoa. Azk. Dic.

Enplegatu. Erruz erabiltzen du Axularrek Guk «erabili»-rekin aski dugula uste dugu, baiña beharbada bientzat dago lekua.

Enseiatsu/ saiatsu/ entseatu. Axularrek lehenbizikoa dauka. Mugaz hemengo aldera erdikoa dago zabaldua eta beharbada bera da hartu beharrekoa. Azk. Dic.

Entzun/ aditu. «Oir» esateko entzun enplegatzen du Axularrek; «entender» esateko, berriz, «aditu». Bereizkuntza hau gorde behar gendukela uste dut, nahiz eta Gipuzkoan nahasita egon gauza hauk, askok «entenditu» esaten baitute «aditu»-ren ordeaz, eta «aditu» «entzun»-en ordeaz.

Erabaki/ erabagi. Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da zabalduena.

Erain/ erein. Axularrek biak dakartzki, baiña bigarrena uste dut dela zabalduena. Azk. Dic.

Erauntzi/ erantzi (=desvestir). Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau uste dut dela zabalduena, nahiz eta gipuzkoar-bizkaitarrek «erantzi» esan. FHV 98.

Erdara/ erdera. Axularrek lehenbizikoa dakar, eta Euskalerri osoari begiratuta, bera da zabalduena. Azk. Dic.

Erdietsi/ jadietsi/ jadetsi/ jaretsi/ iritxi (=alcanzar, obtener). Axularrek lehenbizikoa erabiltzen du eta usu erabili ere. Axularrek darabilen forma hau uste dut dela jatorrena eta bai zabalduena ere. FHV 341. Azk. Dic. «Iritxi» hitzak ba du beste sentidu bat, «erdietsi»-k ez duena, eta Gipuzkoan oso arrunta: «llegar».

Ere/ bere/ be. Lehenbizikoa.

Ereztun/ eraztun. Axularrek «eraztun» dakar eta bera da zabalduena. Azk. Dic.

Er(h)i/ behatz/ atzamar (=dedo). Hemen ere ba dugu nahastea eta katramilla! «Atzamar» bizkaitarra da bakarrik. «Behatz», Bizkaian «dedo del pie», Gipuzkoa eta Nafarroan «dedo», Zubero eta Behe-Nafarroan «dedo pulgar», Lapurdin «uña». Er(h)i, berriz, Nafarroa goiko eta behekoan, Lapurdin eta Zuberoan enplegatzen da, eta beti «dedo» esateko. Uste dut hau dela jatorrena, egokiena eta zabalduena. Azk. Dic.

Eri/ gaiso (=enfermo). Axularrek lehenbizikoa dakar, eta adierazpen hunekin bera da noski zabalduena. Azk. Dic.

Ero/ zoro. Lehenbizikoa hedatuago, baiña bigarrena ere aski hedatua. Alde batzuetan bereizkuntza egiten dute: ero=fatuo, necio, eta zoro=loco. Berez eta jatorriz, «zoro» «vértigo» da. «Loco» esateko, zein hautatu? Hedaturari begiratuaz, lehenbizikoa.

Eritoki/ gaisobera/ gaisoti (=enfermizo). Axularrek lehenbizikoa dakar, baiña hirurak ere nahiko zabalgo txikikoak dira. «Erikoi» eta «erikor» izango dira beharbada egokiagoak. Azk. Dic.

Eritu/ gaisotu (=enfermar). Lehenbizikoa. Azk. Dic.

Eritzi/ iritzi/ eritxi/ eretxi. Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau uste dut dela egokiena. FHV 106.

Erne/ ernai. Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da zabalduena. Azk. Dic.

Erori/ jausi. Lehenbizikoa. Azk. Dic.

Erraberritu/ berritu/ berriztatu (=renovar). Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da zabalduena. Azk. Dic.

Erran/ esan. Euskalerri osoari begiratuta, lehenbizikoa uste dut dela hedatuena. Azk. Dic.

Errax/ erraz/ errez/ errex. Axularrek lehenbiziko biak dakarzki. «Erraz» da noski hedatuena eta hartu beharrekoa. FHV 117.

Erregela/ erregla. Lehenbizikoa.

Errenkura/ arrenkura (=queja). Axularrek «arrenkura» dakar eta berau har diteke. Azk. Dic.

Erresuma/ erreinu. Axularrek lehenbizikoa dauka eta Euskalerrri osoari begiratuta berau da hedatuena. Azk. Dic.

Errezibitu/ hartu. Axularrek erruz erabiltzen du «errezibitu». Guk «hartu»-rekin estali nahi ditugu haren enplegu guztiak, baiña nik uste dut bientzat dagoela tokia.

Erro/ sustrai/ zain. Antzekoak bai, baiña ez dira erabat berdiñak, eta hirurentzat dago tokia. Axularrek bigarrena ez, beste biak bai bada-karzki.

Erromeria/ pelegrinazio. Axularrek lehenbizikoa dauka. Beharbada bientzat da tokia. Gaur halako bereizkuntza somatzen dugu bien artean.

Errota/ bolu/ eihera. Lehenbizikoa da noski hedatuena eta Axula-rrek dakarrena.

Errotor/ erretor/ erretore/ parroku. Axularrek lehenbizikoa dakar, baiña «erretore» da seguru asko forma jatorrena eta bai hedatuena ere.

Errumes/ behar/ behartsu/ probe. Gaur eguneon «erromes» «pere-grino» esateko behar dugun ezkerro, besteekin geldi gindezke.

Eskale/ eskeko. Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da heda-tuena. Azk. Dic.

Eskalera/ eskaler/ eskillara/ zurubi. «Eskalera» uste dut dela heda-tuena. «Zurubi» eta «eskalera» ez dira gauza bera, eta hedaduraz ere beste aldeko hitza da «zurubi», baiña bientzat egon diteke lekua.

Eskapatu/ itzuri. Axularrek askoz maizago erabiltzen du lehenbizi-koa. Bientzat uste dut dagoela tokia, erabat berdiñak ez diren ezkerro.

Eskiribatu/ eskribitu/ izkiriatu/ izkiribatu/ idatzi. Axularrek lehen-bizikoa dakar. Zatarain jaunak dion bereizkuntza egin diteke hemen (hobeki esateko, egiña dago): «eskiribatu» izango litzake letrak paperean ezartzea; «idatzi», berriz, «redactar» edo horrelako zerbait.

Eskola/ ikastola. Zabaleria eta erroztatze aldetik lehenbizikoa da hau-tatu behar dena. Baiña hemen ere bereizkuntza bat egin diteke edo erdi egiña dago. «Ikastola» hitzak ba du sentidu bat oso zeatza: euskal eskola. Baiña «escuela» abstraktuki edo jeneralean esan nahi dugunean, orduan hor dugu «eskola».

Eskuin/ eskui/ eskuma/ eskubi/ eskoa/ eskoï. Variante asko ditu hitz hunek. Zein hartu? Nik lehenbizikoa hartuko nuke, Axularrek da-karrena, alegia, bera baita hedatuena. FHV 149.

Esnatu/ iratzarri/ itxartu. Axularrentzat «esnatu» zera da: «abundat en leche». Gaur Gipuzkoan batez ere «despertar» adierazteko erabiltzen da. Dirudianez, hitz hau sentidu horretan «ernatu»-ren variante bat besterik ez da. FHV 352, 294. Uste dut «iratzarri» hautatu behar dela. Eta «esnatu» hobe dugu Axularrek ematen dion sentidurako utzi. Izan ere «iratzarri» da Euskalerrian zabalduena «despertar» esateko. Azk. Dic.

Esperantz/ itxaropen. Axularrek lehenbizikoa dakar, eta erruz erabiltzen du, gainera. Bera da noski hedatuena eta Euskalerrian sendo eta sakon erroztatua dagoena. «Itxaropen» zabalgo txikikoa da, baiña beharbada gorde diteke halako bereizkuntza batekin. «Espero» eta «itxoin» ere ezpaitira gauza bera, Zatarain jaunak agertu digunez.

Esperientzia/ aztura. Axularrek biak erabiltzen ditu. Baiña ez dira gauza bera. Erderazko «experiencia» esateko, «esperientzia» erabiltzen du berak. «Aztura», berriz, «índole, modo de ser» edo horrelako zerbait da Axularrentzat.

Espiritu/ izpiritu/ gogo/ arima. «Gogo» eta «espíritu» ez dira gauza bera, noski, eta bientzat dago tokia. «Espíritu» eta «arima» ere antzekoak, bai, baiña berdiñak ez dira. «Espíritu» hitzak ba du beste variante bat literatura zaharrean: «izpiritu». Baiña «espíritu» da forma hedatuena, eta beraz hau da hautatu behar dena.

Estali/ estaldu. Axularrek beti «estali» esaten du, eta hau da noski forma jatorrena eta hedatuena. Azk. Dic.

Estropu/ ixtripu (=accidente). Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau uste dut dela forma zabalduena. Lhande, Dic.

Estudiatu/ ixtudiatu. Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da forma hedatuena.

Eta/ ta/ da. Axularrek beti jartzen du «eta» osorik. Beharbada ohi-dura hau denok hartzea izango litzake hoberena.

Etorri/ jin. Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da noski hedatuena.

Etsai/ arerio/ izterbegi. Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da arruntena.

Etzan/ etzin/ etxun. Axularrek lehenbiziko biak dakarzki, baiña «etzan» askoz maizago. Bera hartu beharko litzake, hedatuena baita. FHV 192.

Euskaldun/ eskualdun/ euskeldun. Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da jatorrena eta hedatuena.

Euskara/ eskuara/ euskera. Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera uste dut dela forma jatorrena. FHV 99.

Exenplo/ ejenplu/ ejemplo/ exenplu. Axularrek lehenbizikoa dakar. U-kin bukatua da, beharbada, forma jatorra.

Ezagutu/ ezautu. Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da noski forma arrunta.

Ezdeus/ ezteus. Axularrek biak dakarzki, baiña —oker ezpanago— bigarrena maizago. Hala ere, lehenbizikoa uste dut dela jatorrena eta edatuena. Azk. Dic.

Ezkata/ eskama. Axularrek lehenbizikoa dakar. Bera da, noski, forma jatorra eta hartu behar litzakena. Azk. Dic.

Ezko/ argizagi. «Cera» esateko «ezko» da hitz jatorra eta zabalduena. «Argizagi» ere aski zabaldua dago, baiña alde batzuetan «cera» eta beste batzuetan «astro» esan nahi du. (Ikus Lhande, Azk. Dic.) «Cera» esateko «ezko» hautatu behar genduke.

Ezkondu/ esposatu. Axularrek lehenbizikoa dakar. Biak daude erroztatuak eta adierazpen berdiña ez duten ezkerok, bientzat dago tokia.

Eztei/ eztai/ eztegu. Axularrek lehenbizikoa dakar eta uste dut bera dela hedatuena. FHV 103. Azk. Dic.

* * *

Falta/ huts. Axularrek biak dakarzki eta uste dut bientzat dela tokia.

Falseria/ gezur. Biak.

Fama/ ospe/ izen on. Denak behar ditugu.

Familia/ pamili. Axularrek lehenbizikoa dakar eta bera da hedatuena.

Fede/ siñismen. Biak.

Feria/ peri/ eria. Lehenbizikoa.

Fida izan/ fido izan (=fiarse). Axularrek biak dakarzki, baiña maizago lehenbizikoa. Bera da forma jatorra eta orai ere erabilgia. (Lhande).

Fidantza/ fidantzia/ konfiantza/ uste on. Axularrek lehenbiziko biak dakarzki, baiña maizago bigarrena. Hitz hau ere ez dut uste baztertzekoa dugunik.

Fidatu/ fiyatu. Lehenbizikoa.

Fiko/ piko/ iko. Axularrek lehenbizikoa dakar, baiña hemen, dirudianez, bigarrena da hedatuena. FHV 264.

Filosofo/ filosofu/ pilosopo. Axularrek lehenbizikoa dakar. «U» bukaeraduna har diteke.

Fin/ pin. Axularrek lehenbizikoa dakar eta berau da noski hedatuena.

Fite/ laster/ arin/ azkar/ aguro/ laister. Axularrek lehenbizikoa erabiltzen du. «Laster» eta «laister»-en artean, «laster» da hedatuena eta hartu beharrekoa. Beharbada beste guztientzat ere ba da tokia.

Fits/ izpi. Biak.

Flakatu/ mehatu/ argaldu/ makaldu. Uste dut denentzat dela tokia, ezpaitira berdiñak.

Frankia/ ugaritasun. Biak.

Franko/ ugari/ asko/ anitz. Denentzat dago tokia.

Freskatu/ freskotu (=refrescar). Lehenbizikoa.

Frogantza/ frogā/ proba eta berdin *frogatu/ probatu.* «Frogantza» eta «frogatu» uste dut direla forma jatorrak, baiña Euskalerrri osoari begiratuta ez dakit zein forma hautatu beharko litzaken. Axularrek bai, «frogantza» eta «frogatu» erabiltzen du.

Fruitu/ frutu. Axularrek «fruitu» dakar. Euskalerrri osoari begiratuta, beharbada berau da forma jatorrena eta hedatuena. Lhande, Dic.

* * *

Jaunak: Ikusten duzuenez, hau luze doa. Hunek ez du azkenik. Euskal hiztegi osoa aztertu beharko nuke eta hemen ez dago horretarako astirik. Baiña jokaera edo jokoaren erregelak erakutsi nahi izan dizkizuet. Batasuna egiteko ezarri diren oiñarriko puntuei jarraikiz, zer hiztegi muela erabilliko den euskara osatu horretan: hori zan da nik agertu nahi izan dudana. Kasu denetan zein forma hartu behar den erabakitzea, ez da erraza, baiña beste askotan bai. Nik, egia esan, susmo bat dut edo duda bat: horrenbesteraíño goberna ote dezakegun guk hizkuntza? Guk lege horiek emanarren, literario hizkuntzak kontuan hartuko ote ditu? Geroak esan beza.

Batzuek galde hau egin izan dute: euskara osatu horrekin euskalkiak nola geldituko liraken? Erantzuna ez da zaila, hitzen kontuan behintzat. Euskalkiak dauden daudenean geldituko dira. Euskara osatua ezpaita izango ez bizkaiera huts, ez gipuzkera eta ez lapurdiera huts ere, euskalki horien gaiñetik, Euskalerrrian zabalduago eta hedatuago dauden hitzekin osatua baizik. Era horretara euskaldun guztien artean lokarri

gozoa izango da. Euskalkian idaztea komeni diren gauzak orai arte bezala idatziko dira.

Bukatzeko, eta maiztasun handiko hitzak direlako, demostratibuen hautatzea egiñen dut.

Huna hemen demostrativu sailla, Axularrek dakarren bezala:

Lehenbiziko presuna:

Hau(r), hunek, hunen, huni, hunetakotzat eta habar.

Pluralean: Hauk, hauken, hautan, hautzaz...

Bigarren presuna:

Hori/ horrek, horren, horri...

Pluralean: Horiek, horien, horiei, horietan...

Hirugarren presuna:

Hura/ hark, haren, hari, hartako, hartan...

Pluralean: Hek, hei, hetan, hetarik, hetzaz...

A. Luis Villasante, o. f. m.

Arantzazun, 1968, urriak 1.

ORTOGRAFIA

I. OINHARRIAK. *Ze batzunen bila gabiltzan*

1. Ezin-bestekoa, il-edo-bizikoa, dela uste dugu euskera batasun-bidean jartzea. Haur eta gazteei euskeraz irakasten baldin bazaie, eta euskeraz irakatsi behar euskera biziko baldin bada, premiazkoa da guztiei batera edo bateratsu irakastea. Nahi eta behar dugun batasun hori, lehen urratsetan behintzat, euskera idatziarena, izkribuzkoarena, da. Eta, euskera idatziaren barrutian, irakaste-lanean dugu beharrenik batasun hori, irakurlearen atseginerako egiten den literatura «ederrean» baino areago.

2. Berez, noski, hobe litzake besterik: euskaldun bakoitzak, alegia, euskalkiak oro ezagutzea, hangoak eta hemengoak, antzinakoak eta oraingoak. Agerian dago, haatik, ezin eska dakiokela horrelakorik euskalari bati baizik. Honek berak ere aski du gehienetan bereak ez dituen euskalkiak, euskalduna baldin bada, ulertzearekin. Ez da gai izaten beste euskalkiz mintzatzeko, ahoz nahiz izkribuz.

3. Inoiz batera bagaitetz, bada, huskeriak baino zerbait gehiago galduko du gure hizkuntzak: begi-beharrientzat hain atsegin den aldakortasun ugaria. Halarik ere, euskerak azal nabar hori kaltegarri duenez gero, nahiago dugu euskera bizia euskeraren edozein axaleko edertasun baino.

4. Ez luke gai honetan inor mindu nahi Euskaltzaindiak, baina ezin ditekete batasunera jo, inor —gerok lehenik gerala— mindu gabe. Batasun osorik egiteko, ordea, ez du Euskaltzaindiak ez eskurik ez

indarrrik, ez berez ez besteren bitartez. Gidari eta bide-erakusle agertu nahi luke orain, gauden egoeran, egin ditekanean neurrian.

5. Erabakien bidez erdietsi nahi lituzkean elburuak hauek dira:

- a) Euskalkiak ez ditezen elkarrengandik gehiago hurrun eta alden, lehenik;
- b) Ahal ditekanean neurrian, elkargana bil ditezen, gero.

6. Ez da nor Euskaltzaindia, oraingoz behintzat, oinharritzat zein euskalki hautatuko den erabakitzeko. Badirudi, halarik ere, euskera idatzia-aren beharretarako egokiagoak direla, besteak beste (eta Bilbao euskaldun ez delarik), erdi-aldeko dialektuak bazterretakoak baino. Nola-nahi ere amore eman beharrean aurkituko gera guztiok, zeinek gehiago zeinek gutxiago, horretara heldu nahi badugu.

7. Azaleko hauzietan lortu behar dugu aurrenik batasuna, mamiari dagoztenetan baino lehenago, errazago delako eta premiazkoago gainera. Egia da hizkuntza bat sistema dela, eta sistema horren zatiak edo osagarriak ez direla deus sistemaz kanpora. Aitortu beharrean gera, ordea, mamira bagoaz, euskera ez dela oraingoz sistema bat, diasistema bat baizik, eta diasistema horren itxura batera eldu behar dugula, gero mamia batuko baldin badugu.

8. Euskaltzaindiari hemen aurkezten zaizkion eskabideak honela mugatuko ditugu, errazenetik zailenera:

- a) Idazkera edo ortografia.
- b) Antzinako euskal-hitzen formak.
- c) Hitz berrien eraketa eta bestetandik hartuen forma.
- d) Morfologia: izena (izen-ordea) eta aditza.
- e) Joskera.

Zenbaitetan, ez dago oraingoz deus egiterik, horretarako behar genituzkean istudioak ez bait ditu inork egin. Beste zenbaitetan, berriz, euskalkien arteko batasuna egitea gaitz bada ere, batasuna behar genduke euskalki bakoitzaren barrenean behinik-behin, eta hori gure esku dago.

II. ORTOGRAFIAZ

1964-ean Baiona'n egin zen biltzarraren erabakiak hartzen ditut oinarritzat, punturik gehienak astiroago ukituaz.

1. Letra hauek erabili behar genituzke, gutxienez: *a, b, d, e, f, g, h, i, j, k, l, m, n, ñ, o, p, r, s, t, u, x, z* eta, erdal-hitzak eta izenak idazteko behinik-behin, *c, qu, v, w* eta *y*, gainera.

F, noski, ontzat hartzekoa da eta, erderatikako hitzetan ez ezik (*fede, falsu*, etc.), baita ere bestelakoetan. Zuzenago dirudi, ain zuzen, *afiri, alfer. Nafarroa* idazteak beste edozein idazkerak baino.

2. Euskeraz maiz erabili behar diren diagramak (bi letra berdin nahiz ezberdinen elkarteak hots bakarra edo adierazteko) hauek dira: *rr*, zenbaitek *ř* idazten duen *r* gogorra adierazteko; *dd* (*y* horretarako gordetzen ez badugu, bestetarik kendu dugunez gero), *tt* eta *ll*, *ñ* bezala, hots «bustiak», aho-sapaiekoak adierazteko, premiarik denean; *ts*, *tx* eta *tz*, aspaldidanik bezala, *s*, *x* eta *z*-ren kide gogorren ezaugarri.

3. Ahoz eta izkribuz darabilgun hizkuntza bizi baten idazkera ezin izan diteke hots eta letren arteko bana-banako egokitasunaren gainean eraikia: linguistika-lanetan usatu ohi diren transkripzioak, fonetikoak nahiz fonologikoak, gehienez ere, hel ditezke horretaraino. Ez da ere komeni, ordea, besteak beste, aho-hizkuntza batera eta irakurgaietako bestera ibiltzerik. Fonetikaz eta fonologiaz gainera, bestalde, morfonologia edo delakoa kontuan hartu ohi da: alemanez *Tod, Todes* idazten da eta rusoz *rog, roga*, nahiz bi *d* eta bi *g* horiek, hitzarte eta azkenekoak, ez berdin ebaki.

4. Kontuan eduki behar da, batipat, neutralizazio delakoa: bi fonema berezi, alegia, ez direla noiz eta nonnahi berezi ta bereizgarri. Gaztelaniaz, esaterako, *r* eta *ř* hitz-barrengo silaba-hastean dira bereizgarri, eta vokalaren ondoren xoil-xoilik, eta ez bestetan (*rosa, arte, honra, pagar*, etc.).

Euskeraz sarri ikusten da horrelakorik:

a) Sudur-hotsetan, silaba-bukaeran, hitz-barruan nahiz azkenean. Aski da, beraz, letra bakar bat erabiltzea, *n*, ohiturari segituaz: *ganbara, indana, antxu, zango* eta abar.

b) Orobat *r* (*argi*, *erdi*, *prestu* eta, Errongari'n izan ezik, *ur*, *hur* eta abar). Hemen, *r* soila erabili izan da hitz-barnean. Azkenean, ordea, delako morfonologiak bereizkuntza eskatuko luke: *paper-a*, *zer-a*, baina *ederr-a*, *izarr-a*, direnez gero, *ederr*, *izarr* idaztea. R samurrarekin bukatzen diren hitzak urri ditugularik, ordea, gehienek bestelakoak bait dira, merkeago dirudi, eta begientzat atseginago, *r* bakarra erabiltzea horietan ere. Ez nuke deus aldatuko orain arte bestela egin izan balitz, baina ia erabat *hamarrak* eta *hamar* idatzi denez gero, gauzak dauden daudenean uzteari hobe deritzat.

c) *p/b*, *t/d* eta *k/g*-ren arteko bereizkuntza ere deusestatu ohi da zenbait hotsen ondoren, batez ere (*t*)/*s*, (*t*)/*x* eta (*t*)/*z*-ren hatzean: (*hitzak*) *hizpidea* (*ekarri*), *harizt(o)i*, *lokarri*, etc. Ez dago hemen, ene ustez, lege gogorrik ezartzerik, *bereizgarri*, *ikusgarri* eta antzekoak arras hedatuak bait daude. Guztiarekin ere, esan ditekete, kontseilu-moduan, hobe litzakeala, dudakoetan, erregela hori kontuan edukitzea; *Aizkorri* Gipuzkoan esate baterako, hobeki dagoela *Aitzgorri* baino. Ez dugula, hots, etimologiaren zaintzaile izan behar horrelakoetan, baizik eta mendeen joanak errotu dituen hots-legeen aldeko.

d) Xixtu-hotsekin, sibilanteekin, ere ba da horrelakorik, *Aizkorri*/*Aitzgorri*-k erakutsi digun modura. Lehenik, egungo egunean, euskalkirik gehienek, guztiek behar bada, ez dute *tz/z* eta antzekorik bereizten silaba bukaeran, silaba hori hitzaren azkena ez baldin bada (*apaiz/apetz*, baina *arrats*, *zorrotz* eta abar maizago): horietan, *z*, *s*, *x* soilki idaztea hobe, betiko modura (*hotz*, baina *hoztu*, *huts*, baina *hustu* eta abar). Silaba-aitzinean, berriz, *n*, *l*, *r*-ren ondoren, *ts*, *tx*, *tz* ebaki ohi da gehienik orain (*entzun*, *altzo*, *altxatu*, *hartz*, *saltsa*, *suntsitu*); *r*-ren ondoren, halarik ere, ez dut uste erregela hori zorrozki betetzen denik alde guztietan.

e) Sibilanteei gagozkiela oraindik, ba da bereizkuntza nabarmen bat euskalkien artean. Guztiek, nik uste (zenbait hitz bitxi eta bere gisako ken baditez), *z* eta *s* erabiltzen ditugu soilki hitz-hastean. Guk, ordea, *tx* nahiz *x* erabil dezakegu, hitzaren indarrari dagokionez (*tximist*, *txori*, baina *xamur*, *xuxen*); beste zenbaitek, berriz, *x* bakarrik. Norbaitek besterengana makurtu behar balu, zuzenago litzake agian guk besteri amor ematea.

5. *Z/s* (*tz/ts*) bereizten ez dakitenek besterengandik ikasi behar dute, idazteko behintzat, bereizkuntza zuzena. Hauzi hau larrienik Bizkaian eta Bizkai-inguruan gertatzen da, han baizik erabiltzen ez diren

hitz eta formekin. Kasu horietan, Bizkaian bertan bilatu behar da egia, hau da, hots horiek ederki bereizten zituzten bizkaitar idazle zaharretan: *deutsat*, *deust*, *deutsut*, beraz, baina *deustazu*, *zoru*, etc.

6. *H*-rekiko hauzian ere, oraingo joerari segituaz, Baiona'ko erabakiak har ditezke oinarritzat. Bide horretan barrena abiatuz gero, honela ikusten ditut nik mailak, premiazkoenatarik hasirik:

a) Letra hori bi vokal berdinen artean erabiltzea dugu beharrenik, urrutiegi gelditzen bait dira bestela bata bestearengandik *ahari* (*aduri* eta abar) eta *ari*, *mahai(n)* eta *mai*, *zuhur* (*zugur*) eta *zur*, etc. Bi vokal berdinen artean, noski, *behar denean eta behar denean bakarririk*. Beraz, adibidez, *h* gabe *semeei*, *gazteen*, etc.

b) Bi vokalen artean, zein nahi direla, gero: *aho*, *ahur* (eskukoa), *behar*, *behor*, *bahe*, *bahi*, *lehoi(n)*, *ohe*, etc. Behar denean, noski, hemen ere, eta behar den lekuetan: *nahiz* 'arren, ba... ere', baina *naiz* 'sum', *ahur* baina *haur* 'ume' eta abar. Horrek, gutxienez, erakutsiko digu, nahiz *h* zenbaitek irakurriko ez duten, zenbat silaba behar dituen izan euskal-hitzak.

c) Batasunera bagoaz, ez dezagun sekula erabil vokal artean *g* eta antzekorik (*r*, *d*, etc.) horrelakoetan: *ehun* '100', ez *egun*, eta, *leihor* (*zeihar*, etc.) ipintzen ez badugu ere, *lehor* bederen, beinere ez, ordea, *legor*. Eta are gutxiago *legun* *h*-dun euskalkietako *leun*-en ordeaz.

d) Hits-hastean, hirugarrenik: *hats*, *hede*, *hitz*, *hots*, *hotz*, *huts* eta abar. Premiazkoa dugu, horretarako, hiztegi ortografiko labur bat, dudako hitzen idazkerarekin. Eta *h* hori ez dedila *abc*-ordenan kontuan har; bestela gure aldekoek ez bait lukete jakingo hitzak non bila.

e) *H*-rik ez da idatziko itxitura osoa duten kontsonanteen ondoan (*aphez*, *athe*, *ekharri*, etc.). Baiona-n erabaki zenez, ezta ere bestelako kontsonanteen hatzean: *erho*, *belhar*, *unhatu* eta horien gisakoetan.

f) Ezta ere, berdintsu dena, diptongo-ondoan: *aien*, *auen*, *oian*, bada, ez *aihen*, *auhen*, *oihan*. Izenen deklinazioan ere horrela jokatzearabaki bait zuten Baionan: *edozein gaietan*, esate baterako, *edozein ibarr-e-tan* bezala, ez *edozein mendi-tan*-en eredura. Egia da, batetik, ez dela hori beti izan antziñako jokabidea, *Bizkaian* izan bait da beti, baina *Bizkaitik*, *Bizkaira*, etc., eta, horrezaz gainera, ez dugula guk horrela jokatzeko *-(r)ik* atzizkiarekin. Gure artean, eta lehen alde guztietan dirudienez, ez da, ez, *etsairik* eta antzekoak idatzi dira; beste

aldekoek, berriz, *etsayik* idazten bide dute, kontsonante ondoan bezala, y letra horretarako gordeaz.

Kasu horietako *h*-ri buruz, gauza bat eduki bear dugu gogoan: ez ditugula, horrelakoetan, silabak berdin bereizten euskaldun guztiek: batzuek *er-ho*, *ai-hen*, etc., besteek *e-ro*, *a-ien*, etc.

7. Kontsonante horien (*l*, *r*, *n*) eta diptongoen ondoan *h*-rik ez idaztea erabakiko balitz, eta oraindik hobe hauzia erabaki baino lehen, gogoan eduki behar ditugu hitz elkartuak (*oinhatz*, *onhartu*). *Hartu* baina *onartu* ezartzea ez legoke ongi, batetik, eta *onhartu* bai baina *unhatu* ez, ezta ere, beste alde batetik.

Hitz elkartuen eragozpen hau berau agertzen zaigu gorago (4, b) aipatu dugun hitz-azkeneko *-r* gogorrarekin, *itur aldean*, *itur-aldean* edo, nahiago baldin bada, *iturraldean* idatzi bearko bailitzake, *gor*, baina *gorraire*, *gorreria* eta abar.

8. Direlako hots bustiez, hau esan diteke: arras leku gutxi gelditzen zaiela, daramagun bidetik bagoaz. Batasunerako onenik, bide honi deritzat:

a) Idatz dezagun, gutxienez, *iñ* eta *ill*, *ñ* eta *ll*-ren ordeaz, hitz adierazkor (*expressif*) horietakoak ez baldin badira, beintzat (*-ño* atzizkia daramatenak eta): *baiña*, *baiño*, *oillo*, etc., ez *baña*, *baño* eta *ollo*. Hitz-azkenean, gainera, beti *-in*, *-il*: *gain*, *zail*.

b) Hobe, ordea, *il*, *in* idaztea soil-soilik, aski bait litzake hori edozein ohar dedin *i* hori dela medio, bere euskalkian, hurrengo *l* eta *n* bustiak direla: giputzen artean, esaterako, *ibili*, *baina*, *gainetik*, *laino*, *min-ondo* idazten dena *ibilli*, *baiña*, *gaiñetik*, *laino* (edota *biña*, *gañetik*, *laño*), *miñondo* irakurri ohi dela.

9. *J* idatzi behar dugu, noski, beti bezala, oraingoz nork bere moldera ebakitzen duela: *jakin*, *jende*, *jo*, etc. Halaber *birjiñu*, *ebanjelio*, etc. Ba dirudi, beraz, kontsonante-ondoan *dd*-ren ordeaz ere erabil ditekela, beste aldekoek egiten duten gisan: *onjo* = *onddo*.

10. Antzinako hotsa *x* denean (antzinakoa Euskal-erri osoan eta egungoa hainitz eskualdetan), *x*-i lotu behar gatzazkio, batasunera bagoaz: *axola*, ez *xjola*, etc.

11. Puntuazio kontuan, inguruko enparetsuan ibiltzea aski genduke, ezaugarri bereziak (koma goratuak eta) baztertuaz. Gai batean gaude autatu beharrean, eta nik ? eta ! esaldi-azkenean erabiliko nituzke, horretan frantsesa gainerako Europa-ko hizkuntzekin bat datorrenez gero.

12. Apostrofo delakoa (') hobe litzake hotsen (letraren) bat «jaten» dela adierazteko gordetzea: *t'erdia* eta abar. Gainerakoan, - ego-kiago dator bereizgarri bezala.

13. Izen propioetan aurrenik: *Axular'ek*, *Orio'n* baino *Axular-ek*, *Orio-n* hobe. Halarik ere, ba dirudi bereizkuntza hori ez dela beharrezkoa, beti behintzat. Ez bait dakigu, maiz aski —nik behinik-behin—, non berezi behar diren: batzuek *Paris-en* idatziko genduke, besteek *Parise-n*. Eta artikuludun leku-izenetan, non? *Iruine-an* ala *Iruinea-n*, *Bizkai-an* ala *Bizkaia-n*? Izen propio ezagunetan ez da, bada, premiazko bereiztea (*Axularrek*, *Orion*, *Parisen*, *Bizkaian*, etc., zilegi delarik); idazleak egoki baderitza, ordea, bereiz dezake, irakurleari lana erraz dakion, batez ere izen arrotzetan: *Scott-ek*, *Piaget-ek*, *Calmette-k*, *Bremen-en*.

14. Izenak artikulua erantsia badarama, itsuski dirudi bereizkuntzak gehienetan: *Jaungoikoak* edo *Jainkoak*, *Euskal-herrian*, *Euskal-herritik*, etc., ez *Jainkoa-k* edo *Jainko-ak*, etc., zenbaitetan ikusten denez.

15. Hitz-artean nahiz hitz-zatien artean daude istilu larriak. Zenbait aipatuko ditut, adibide antzera, gaia erabil dezagun:

a) Honako hau dago garbienik. Bestetan ere bai, baina batez ere aipamenetan (gramatikazkoetan eta), hitza *usatu* beharrean aipatu edo izendatu besterik egiten ez dugunetan («*Homo*» est *dissyllabus*, etc.), premiazkoa dugu zerbait zatiak bereizteko eta erabat juntatzeko: «*luze-ri-tu* atzizkia eransten bazaio», «*x-en* ordez *x'* + *a* ipintzen badugu», «*Eus-ke-ra-tik* hartu dugu artikulua hau», eta abar. Horietan, izen propioetan bezalatsu, baina nora-ezean oraingoan, - erabil diteke, bereizgarri naiz juntagailu bakartzat.

b) Baiezko eta badaezpadako *ba* (*bai*, *ba da* / *baldin bada*) bitara idatzi behar ote genituzke, gaztelaniazko *solo* eta *sólo*-ren gisan? Gisa horretako bereizkuntzak erraztuko dute agian irakurlearen lana; haatik idazlearena gehituaz. Beti batera egitea litzake errazenik eta, *ba* horrek

ondorengo hotsik aldatzen ez duenez gero, beti elkaturik idaztea: *bai*, *badator* eta *baldin badator*.

c) Ez eta *bait*-ekin nola joka? Ez dut hemen argi ikusten Baiona-koen arrazoia. Biek aldakuntza berdintsuak eragiten dizkiotenez gero darraienari (*eztu* : *baitu*, *etzuen* : *baitzuen*, *eluke* : *bailuke*, *enizuke* : *bainizuke*, etc.), ba dirudi biak berdin erabili behar genituzkeala: biak loturik ala biak askaturik.

d) Askaturik erabiltzeak bi alde gaizto agerian ditu. Simetria, batetik, ez da osoa, *bai du* eta antzekoak idatzi ohi bait dituzte bai etxe-ko eta umetandikako ez dutenek (Gipuzkoako Beterritik hasi eta sartalderunzkoak), baita ere, XVIII-garren mendez gero edo, Bidasoaz haraindiko zenbait idazlek. Beste aldetik, berriz, eta are okerrago, *ez du*, *ez zuen*, etc., ebakitzea (aoz esatea!!) dotoreagotzat hartu du zenbaitek. Eta, letrak duen miragarritzko indarra lagun, beldur naiz ez ote litzakean, askaturik idaztekotan, mintzaera hori nagusituko gure artean.

e) Elkaturik idaztekotan, ordea, duda-mudakoak ugari sortuko lirake: *eluke*, *enuke* ez da non- eta noiznahi idatzi, *baikabiltza* gogor irudituko litzaioke bati baino gehiagori, eta abar. Hizkuntza idatziari dagokionez, nik uste, hobe litzake, oro har, ez eta *bait*, biak, askaturik ezartzea, *bait*-en ondoan *bai* ere zilegi dela adieraziaz.

f) Lehen ere ahotan hartu ditugun hitz elkartuak, bereizi behar ahal dira ala ez? Ingeleseztan ere maizegi gertatzen den bezala, ikus ditezke gure artean, elkarrengandik hurrun ez dabiltzala, *elkarritzeta*, *elkar-izketa* eta, agian, *elkar izketa*; *hitzegin*, *hitz-egin* eta *hitz egin*; *dirugose*, *diru-gose* eta *diru gose*. Ez dirudi hemen (eta orobatsu puntuazio gaietan) erregela zorrotzik ezar ditekenean. Honelako zerbait, gehienez ere: 1) hitzaren sortzea urruti dagoenean, zatiak ez banatzea hobe (*amuarrai(n)*, etc., *otordu* edo *oturuntza*, *galbide*, etc.); 2) zati horiek batzuetan berezirik agertu behar dutenetan, nahi-ta-ez, askaturik idaztea hobe: *hitz egin*, *hitzik ez du egin* esaten denez gero; *on egin*, *ez dio onik egin* esaten bait da, etc.

g) Aditzarekin, esaldiaren buruan, doazen atzizki batzuek ere lanak ematen dituzte. *Jainkoak agindu duenez gero(z)* idazten dute batzuek, eta *duen ezkerro(z)* besteek: lehen partiketa zaharragoa da, noski, eta zentzuari hurbilxago lotzen zaiona, baina, gureganatzen badugu, *atzoz gero(z)* ere idatzi beharko dugu, ez *atzo ezkerro(z)*.

h) Bestea Goierri eta Bizkai-aldeko *-ta (-da)* da: *aserretuta etorri da*, batetik, eta *ez du egin*, *ez daki-ta*, bestetik. Lehenbiziko horrek badu kide zaharragoa eta hedatuagoa, noski (*haserreturik*), eta, erabiltzekotan ere, beti bezala hitz batean idaztea aski dugu. Bigarrena (*ez daki, eta ez du egin. Ez daki (e)ta, ez du egin. Ez du egin, ez daki (e)ta*), nahi bada, aparte ere idatzi diteke.

III. HITZEN FORMAZ. *Antzinako euskal-hitza*

1. «Euskal-hitza» ez da hemen, behinola Euskaltzaindiak erabaki zuenari gagozkiola, aspaldidanik euskaldunok darabilgun hitza baizik, datorren lekutik datorrela.

2. Antzinatasunak ematen dio soil-soilik hitz bati jatortasuna. Azken-iturburuen ardura hiztegi etimologiko bati dagokio, ez hizkuntza ahoz nahiz izkribuz darabilenari. Mintzabide eta adierazpide da honentzat hizkuntza ez historia eta prehistorietako har-emanen jakinbide.

3. Batasunik baldin bada gure artean gai honetan, hots, hitzen bat euskaldun guztiek edo gehien-gehienek badarabilte, hori da, besterik gabe, onhartu behar duguna.

4. Batasunik ez denean, bi moldetakoak izan ohi ditugu desberdintasunak: edota 1) alderdi bateko eta besteko hitzek ez dute itxuraz elkarrekin zer ikusirik (*ahaide* eta *askazi*, *ate* eta *borta*, *belar*, *boronde*, *bekoki* eta *kopeta*, *etorri* eta *jiri*, *irten* eta *jaldi*, *dai(ke)*, *dezake* eta *diro*, etc.), edota 2) erro batekoak izanik, badute elkarren eitea, elkarren senide dira, baina hots-aldaketa bereziek saiestuak (*barri/berri*, *bertze/beste*, *erran/esan*, *hertsu/itxi*, *heuragi/ugari/jori*, *irten/urten*, *itxi (etxi)/utzi*). Bada legeren bat bigarren hauetan: *arrazoi(n)*, *arrazio* eta *arrazu*, esate baterako, ez daude bakarrik, bukaerako desberdintasun hori berori (*-oi(n)/-io/-u*), euskalkiari dagokala, gisa berean agertzen bait da beste zenbait hitzetan (*arritoi(n)/arratio/arratu*, etc.).

5. Lehenbizikoetan (eta ez hain errazki besteetan: ikus, haatik, *ugari/jori* geure eskualdeko idaz-lanetan) berez ditekian gauza da guztiez baliatzea, Azkue'k eta nahi zuten gisara, bakoitzaren adiera, zentzua eta esan-nahia geure oldearen eta gogoaren arabera mugatuaz: erabil dezagun *aurkitu*, adibidez, galdu zitzaigun papera berriz hatzematen dugunean, eta *eriden* (edo *idoro*) lege ezezagunen bat, fisikan edo, as-

matzen badugu. Baina ez da aski nahi izatea, ahal izatea ere beharrezkoa bait da. Honelako mugaketak, egia, egunorokoak dira egiunez eta tratuz finkatzen diren (zati-)hizkuntza artifizialetan, hau da, jakite- eta teknika-hizkuntzetan, baina ez dira gertaera usuak hizkuntza bizi eta naturalatan. Haietan ere, eskolak eta landatu eta sendotu behar ditu.

6. Euskaltzaindiak ezin arbuia dezake euskal-hitzik, ez hangorik ez hemengorik, ez zaharrik ez berriagorik. Nahiago ditu bizi-bizirik dirautenak zaharkituak baino; gehiago erabiltzen direnak eta zabalago hedatuak daudenak. Aberastasunari begira dago beti, garbitasunari baino areago.

7. Euskera idatziaz ari geranez gero, hedadura zabalago hori hitzek *euskal-literaturan*, *euskal-irakurgaietan*, duten eta izan dutena da. Oraindik orain zenbaitek hain gogoko izan dituen hitzak, xoko galduren batean baizik, diotenez, erabiltzen ez direnak (*adei*, *dedu*, *jeben* eta horien kideak), ez dira gauza euskal-literaturan (hots, euskera idatzian zabalduenekin burrukan hasteko.

8. Elkarren itxuraldatze besterik ez direnetan, zenbait iritzi har ditezke oinharri, bide garbirik maizegi ikusten ez bada ere:

a) Zenbait aldaera —aski eta gehiegi dira— besterik gabe baztertu beharrak dira euskera idatzian: *biar*, *bier* 'behar', *biño* 'baino', *abitu* 'abiatsu', *zun* 'zuen, zuan' *ero*, *eo*, *o* 'edo', *ixen* 'izan', *abua* 'ahoa', *uetu* 'ohatu', etc. Horrelako dialektu-formak gehienez ere har ditezke jatorrizko eskualdean duten adiera berezian: *itzal*-etik datorren *itzel* 'bere biziko', gaztelaniazko *juerga* (= *huelga*, formaz) edo frantsesezko *rescapé* bezala.

b) Jatorragotzat maizegi hartu izan ohi diren laburpenak, oro har, arbuigarriak dira, eskualde bakoitzak bere gisara egiten bai ditu: antzinako *legez*, Bizkaitik kanpora ere bizi zena eta oraindik ulertzen dena, *lez* (eta ttikittua *letxe*) bihurtu da, Bizkaitar ez direnen kaltean ez bait dute hor lehen ikusten zuten *lege*-a ikusten. Horixe gertatzen da Zuberoako *-r-* askorekin eta, alde guztietan non gehiago non gutxiago, vokal-arteko *b*, *d*, *g* eta *r*-ekin batez ere (*nipe*, *nik e*, *nik (b)ere*-tik, etc.).

c) Euskalki guztiek (euskerak berak, horrenbestez) egin dituen aldakuntzak, nahiz modua ez beti arras berdina izan, dira, hain zuzen, onhartzekoak: *arima*, beraz, antzina bakar-bakarrik agertzen dena, ez *animaz*.

d) Forma zaharrago eta berriagoen artean, zein zein den nabari denean, zaharragoei dagokie nagusitasuna. Batzuetan, haatik, zaharrak zaharregiak dira (*azeari*, esate baterako), eta beste batzuetan elkarren etsai agertzen zaizkigu zahartasuna eta jatorsuna, euskal-forma berezia (*probetxu/progotxu/protxu*).

e) Hitz hanitzetan, erdal-etorkikoetan gehienbat baina horietarik kanpo ere bai, maiz arkitzen da hitz-buruan honelako aldaera: *b-*, *d-*, *g-/p-*, *t-*, *k-*; orobat hitz barruan, *l* eta *n*-ren ondoren. Hobestekoak dira, ene ustez, hori izan bait da noiz euskeraren isuria, *bake*, *barkatu*, *bekatu*, *bike*, *daratulu* (-*uru*), *dolare*, *dorre*, *gipirio*, *gerezi*, *gapelu* eta abar, *p-*, *t-*, *k*-dun kideen aldean; era berean, *aldare*, *denbora*, *jende*, -*mendu* hobe, *altara*, *denpora*, *jente*, -*mentu* baino. Hori, jakina, azkeneoak txit zabalduak ez daudenean: ezin has gaitezke berriz *baradizu* edo *dipula* idazten.

f) Aldaera-sailak (sail luzeagoak edo laburragoak, baina sailak bait dira beti) luzaz eta banan-banan begiratu behar lirake: oraingoz ez dugu gehienetan oinharriarik aski erabakiak hartzeko: bilduak eta sailkatuak daude zenbait liburutan (neronen *FHV*-n, esaterako, bestetarako egin banuen ere). Horrela *honek/hunek* eta horiei dagoztenak, *bertze/beste* (*uso*, agian, aukeratzekoa litzake *urzo*-ren kaltetan), etc., eta, batez ere, antzinako -*n*- batek sortu dituen itxuraldatze ugariak: *ardao*, *ardo*, *arno*, etc., *liho/liñu*, etc., -*ai*(*n*); -*ae*, -*ai*, -*ain*; -*oi*(*n*), -*io*, -*u*; -*ino*(*e*), -*io*, -*ione*, (*n*)*ehor/inor*, eta beste hainbeste.

g) Bazter-euskalkien forma bereziek esku argala dute besteen aldamenean: (*errazoe*), *arrazoi*, *arrazoin*, *arrazio* eta *arrazu*-ren hauzia bakun ditekera Zuberoako *arrazu* kenduaz (Nafarroa garaieko *arrazio* ere bai, ez bait du hedadurarik aski euskal-irakurgaietan. Badirudi, beraz, bazter-euskalki horiek makurtu behar luketeala zenbait alditan erdikoan alde, hala nola hitz hauetan: *barri*, *ultze*, *ukuzi*, *bühür* (*bior*), *sento* (*sonto*), *uzen*, etc./*berri*, *i*(*l*)*tze*, *ikuzi*, *utzi*, *bihur*, *sendo* izen, etc.

h) Bazterrekoak bat datozenean, berriz, indar gehiago dute erdikoek baino: *burdina*, adibidez, hobe Gipuzkoako *burni*(*a*) baino.

9. Nolanahi den, hots-berezkuntzaren bat zenbait eskualdetan galdua denean (*z/s* Sartaldean, *r/rr* Zuberoan, *a/e*, *i* eta *u*-ren ondoan, han-emenka, etc.), horko idazleek ere ez lukete baztertu behar izkribu-ahoz egiten ez duten berezkuntza.

10. Erderatikako hitzetan ageri da nagusi, bestetan baino areago, nahaspila larria. Bi arrazoigatik, noski. Etorki bereko bikoteak (irukoteak, etc.) maiz ditugulako (*arima/anima*, *goilare/kutxare*, *kanpae/kanpana*, *zeinu/sinu*, etc.), eta berdintsu zaiolako zenbaiti, arrotzak direlakoan, hitz horiek batera nahiz bestera erabili, euskal-hiztegiatan ere ez bait dira sarritan agertzen.

11. Hitz horiek, ordea, besteak bezain euskaldunak dira eta besteak bezain premiazkoak ditugu. Forma ere ongi erabakia behar dute, bada, izan, ez nolanahikoa, xehetasun guztietan: azken -a berezkoa duten ala ez, bukaera -o ala -u den (*artikulu*, *minutu*, baina *kutoliko*, *soldadu/-o*). *s* ala *z*-rekin idatzi behar diren (*zopa*, ez *sopa*, *zaku*, ez *saku* edo *sako*, etc.).

12. Beharrezkoa dugu, bederen, hiztegitxo bat, ia ortografiarekikoa huts-hutsik, nahi-ta-ezko badu ere hitzen esan-nahia laburzki adieraztea, zertaz ari den jakin dezagun. Orain idazten diren euskalkiak kontuan edukitzekoak dira, noski, batasun osorik ez duguino eta, euskera idatzia duenez gero oinharri, zenbait idazle hautaturen hiztegiaren gain eraiki behar litzake.

13. Oroit gaitezen beti euskalkiak gero eta gehiago bereizten ari zaigun mugaz, batez ere hiztegi-aldetik. Nahiz Lapurdikoa, adibidez, Giputzaren kide hurbilagoa izan hizkuntzalari batentzat Bizkaitarra baino, maiz aski baterago gatoz hitzetan Giputz-Bizkaitarrak Giputz-Lapurtarrak baino, erdal-giro batean bizi geraldako Ego-aldekoak eta bestean Ipar-aldekoak.

IV. HITZ BERRIAK

1. Hizkuntza bizia hitz berrien premian da beti: bere baitarik sortzen ditu batzuetan, besterengandik hartu besteetan. Bi bideak zilegi eta beharrezko dira eta nork taxutuko du alde z aurretik bakoitzaren neurria eta mugak? Euskaltzaindiak behinola esanak hontarako baka-rrik balio-zuen: ez dagoela hitz berririk sortu beharrik adierazteko euskal-hitz, zahar-jatorrak, erderatikakoak direlakoak, baztertzeko asmoz.

2. Euskal-hitzak sortzean, eta nornahik sortzen ditu mintzatzean, gogoan eduki dezagun beti, premia z gainera, gure hizkuntzaren moldea, beti izan bait dugu horretarako erraztasuna, hitz-elkartzearen bitartez,

batez ere. Nora-ezekoa du hizkuntzak sor-iturri horrek bizirik iraun dezan, bere izatean iraungo baldin badu.

3. Hitz-elkartze berrietan, eta orobat zaharren artean hautatze-koan, bi indar ari zaizkigu beti lanean. Eredu zaharrak, batetik, eta analogia delakoa, bestetik: *luze-k*, antzinako patroiar segituaz, *luza-tu*, *luza-ro*, *luza-mendu* eta abar eskatzen du; analogiak, berriz, kidea ki-dearekin daramala, *luze*, nonahi agertzea nahi luke. Gehiegizkorik gabe, nik uste, lehenbiziko joerari eusten ekin behar genduke egin-ahalean, oraingo isuriak bestera bait garamazki.

4. Kultura-gaietan hartzaile —bestearen zordun, beraz— geranez gero, bidezko da, noski, hiztegian ere hartzaile eta zordun agertzea. Gogoetak gerok sortu bagenitu, ez genduke, gabiltzan bezala jakite-gauzetan eta, beste hizkuntzetan sortu dituzten hitzak itzuli nahian ibili beharrik. Gauden gaudenean, ordea, maiz nabaritzen dugu premia hori. Badu euskerak hitz-sorbide ugari, baina baita ere huts nabarmen bat bederen aldameneko hizkuntzen ondoan. Ez dugu (*des-* eta horren antzekoren bat edo beste kenduz geroz) aurrizkirik, latinezko *ad-*, *ab-*, *co(n)-*, *de-*, *dis-*, *ex-*, eta gainerakoen indarra bihur dezakenik. Erre-medio bat baino gehiago izan dezake huts horrek, baina ongi pentsatu behar litzake geroz gabe nola joka.

5. Bestetariko hitzak lehen hartu ditugu, eta ez dago beste biderik, aurrera ere. Hitz horien itxuraz, ordea, bi iritzi dabilta gure artean: itxura hori, etorkizkoa alegia, gorde nahi lukete batzuek egin-ahalean, frantsesaren arabera edo, eta itxura aldatzea, xinpletzea, gogokoago dute besteek, gaztelaniaren arabera.

6. Nik, egia esan, lehen bidea hartuko nuke arras ikasientzat ari bagina, baina ez da hori gertatzen. Xinpletasunera joko nuke areago, edo bide-erdia behintzat, *y*, *kh*, *th* (*psykhologia*, etc.) eta gisa horretako idazkerak baztertuaz.

7. Horiek, noski, izen propioetan behintzat gorde behar lirake (orobat, *c*, *qu* eta antzekoak). Beste hizkuntzetako izenen transkripzioa (letra berak usatzen ez dituzten hizkuntzetakoa) erabaki beharko da egun edo bihar, baina ez dugu hori lanik presakoena. Euskal-izenak berak nolakoak diren erabaki eta irakatsi behar genduke aurrenik.

8. Hitzei eta izenei dagokienez ez deritzat ongi mugaz haraindikoek egiten dutenari: *Mozku*, *zozializta* eta horien gisakoak idazteari.

Hor aho-hizkuntza (frantsesa) dabil nagusi hizkuntza idatziaren eta batasunaren kaltetan.

9. Nik hidezkotzat aitortuko nuke erderatikako hitz berrietan *v* gordetzea eta kontsonante-multzoak aldatu gabe uztea, nahiz ez zorrozki agindu: *vektore* eta *-logia* azken-buruz dutenetan eta antzekoetan, *g* gordeko nuke, bakoitzak bere erara esan dezan: *jeologia*, etc.. hobeak lirake beharriarentzat; ez, ordea, begientzat. Eta hizkuntza idatzia begiek jasotzen dute bestek baino lehenago.

V. MORFOLOGIA

1. Hemen morfologia dioguenan, forma hutsez ari gerala adierazi nahi litzake, ez formen balioez.

2. Bi sailetan berezi ohi da, gure gramatikan, morfologiaren eremua: izen-jokoa, deklinazioa, batetik, eta aditz-jokoa, konjugazioa, bestetik.

3. Izenari buruz, Baiona'ko erabakietan hain gogoan duten be-reizkuntza guk ere gorde eta indartu behar dugu, betidanikakoa eta alde guztietakoa denez gero: erabilbide bat duela izenak mugatzailearekin doanean eta bestea, oso bestea gero, mugatzailerik gabe dagoenean. Hori bait da gure artean, Gipuzkoan batez ere, idazle berriek ahortzi dutena: *zenbait gizon, edozein lekutan, bi mendiren erdian, zein ikaslek, ez du begik ikusi*, eta abar, alegia.

4. Horretarako, nahi-ta-ez, beharrezkoa da hitz batek azken-buruan daraman *-a* berezkoa duen ala erantsia jakitea. Eta duda-muda-koak ere badirenez gero, banan-banan agertu behar lukete dagokien itxuran euskal-hiztegi batean.

5. Ongi deritzat, erabat harturik behintzat. Baiona'n izenaren gainean erabaki zutenari. Dudakoenak, neure ustez, hauek dira: *men-dietatik* pluralean. *-tarik* aipatu gabe; bizidunetan, *-gan-ek baitan* (askaturik idatzia) behar luke aldamenean (*-gandik, baitarik*, eta abar), biak zilegi direlarik. Bizkaieraz, jakina, *-gaz* arras legezkoa da, beste eskualdeetako *-rekin-en* ordezeko.

6. Instrumental delakoa, nik uste, gordetzen saiatu behar genduke. Hor, formaz kanpora gabiltzalarik, adierazi behar litzake *ezpataz*

jo, adibidez, *ezpatarekin jo* baino garbiago dela; orobat, eta are gehiago, *ezpataz jo* eta *ezpataz* (= *ezpataren gainean*) *mintzatu* berdin esan eta esaten dela kasu hori bizirik zeukaten eta daukatenen artean.

7. Gogoan hartu eta eduki behar dugu, nahiz izenaren deklinazioa argi xamar dagoen, istilu larriak ditugula oraindik izen-orde edo izen-ordainekin. Erakusleak aipatuko ditut (*hau*, *hori*, *hura*, eta horien ondorengoak) gai honetan dauzkagun nahasketen oroigarri.

8. Goaz aditzera. Oraingoz, egia esan, ez zait iruditzen batasuna irispidean dagoenik. Forma-kontu hutsean ere, alde gehiegi dago bate-tik bestera: batzekotan, berea utzi beharko lukete askok, amore eman eta besterenera makurtu. Ez diot, ordea, horrenbestez, gauzak bertan behera utzi behar ditugunik. Zenbait presta lan eskura behar genituzke aldeaz aurretik:

a) Euskalki bakoitzeko (lehen aipatu ditudanetakoak edo) paradigma osoak. Baditugu, zatika eta apurka bederen, horrelakoak, baina astiro eta ongi miratuz aztertu behar genituzkeanak.

b) Paradigma horietan, hautatzea merezi duten formak izan bitez beti, ahal delarik, beste euskalkietakoetarik gutxien saiesten direnak: *ditu(z)*, ez *dauz*, *gaitu(z)* ez *gauz*, Bizkai-aldean, etc. Gipuzkoako (ez Gipuzkoa osoko, ez urrik eman ere) itano bitxia (*natxegok*, etc.), noski, zeharo baztertzekoa litzake.

c) Zahar eta berrien artean hautatzea ez da erraz, baina forma zaharrari, euskal-literaturan aspaldidanik erabiliari, begiramena zor zaio beti. Berriari berea ematen zaiolarik ere, arestiko berrikeriak (gure arteko *zetoztene*-ek eta) salatu behar genituzke, hobe-ustean dabiltzanak kontura ditezten.

d) Aditz-sistema ere, denboren balioa, ez da berdina alde guztietan, berdintsua izan arren. Gai horretan, ordea, itsu-itsuan gabiltza, nor bere euskalkitik irten bezain laster. Zenbait bereizkuntzari iraunerazten saiatzea alferlana litzake, agian, baina, halarik ere, ez litzake hori beti jardunbide zuzena. *On da* eta *on litzake*, adibidez, ederki bereizten ditugunez gero, zergatik ez gorde, galduxe dugunok, *egin dezake* eta *egin lezake*-ren artekoa (*dai(ke)* / *lei(ke)*, *diro* / *liro*)?

e) Aditza darabilgunean, beharrezkoak ditugu, gero eta gehiago, adizkiez gainera, «izenkiak» ere, hala nola *sar*, *sartu*, *sartzen*, etc. Lehenbiziko biak honelatsu erabiltzen dira bereizten diren lekuetan, eta

usario hori bizirik zegoen, nora-ezekoa ez bazen ere, bizkaiera zaharrean: *sar bedi, sar diteke, sar dedin, iraul beza, iraul dezake, iraul dezan*, baina *sartu da, sartu behar du*. eta abar. Hori da, hain zuzen, batasunerako bidea, neure iritziz, baina, batasunera nahi ez dutenek ere ikas bezate, bederen, noiz kendu behar diren *-tu eta -i* horiek eta noiz utzi dauden daudenean. Nahasmendura goaz bestela, ez batasunera.

9. Ez letorke kalte handirik oraingoz, beste puntuetan bateratsu bagentoz, aditz laguntzaile molde bat baino gehiago usatzetik. Egizta bait diteke aditz laguntzaile horiek isomorfoak edo direla euskalki ba-koitzean, eta euskalki batetik bestera ere bai beharrik: *diot-etik nion-era* pasatzeko era ederki erakutsiko genioke, buru-hauste gogorrik gabe, oraingo makina kalkulatzailer bati, eta orobat *deutsat-etik neutsan-era*, eta *diot-etik deutsat-era*.

VI. JOSKERA

1. Buru honetan sar ditezke bai sintaksisekiko bai estilistikarekiko hauziak: gramatika-formen balioa eta erabiltzeko moldea, hitz-ordena, esakerak, etc. Hor, bestetan baino areago, oinharri hutsetan gelditu behar, handik aurrera urratsik egin gabe.

2. Bistan dago, nahiz batasunaren aldeko formak berak legezko duten itsuran erabili, ez gerala euskeraz ari —euskera garbiz ez, behintzat— behar bezala ez badarabiltzagu. Halarik ere, euskera bizi delarik eta euskera bizi deino, ez du beti batean irauten eta ez du iraungo. Lege zaharrei egin-ahalean eustea da, noski, Euskaltzaindiaren eginbidea eta ez du amorerik emango ezin-bestean baizik. Euskal-autore gailenak ditu eredu eta, haien buruzko iritziak denborak gutxi edo gehiago aldatzen baditu ere, badu hor oinharri sendoa.

3. Maila edo mota bat baino gehiago daude euskera idatzian. Poesi-mintzaera landua dugu aspaldidanik eta orain ere lantzen ari zaizkigunak baditugu; bide bat baino gehiago badugu sail horretan eta ez zaio inori debekatzen bide berrietan barrena abiatzea. Orobat esango nuke, hainbestean ez bada ere, elkar-izketari dagokionez, aho-mintzarari lotuago ageri den elkar-izketari: teatroak, ipui-eleberriek erakutsi digute zer den eta zer izan ditekean.

4. Euskaldunik gehienak, hoberenak ez badira ere, M. Jourdain-en antzera mintzatzen geranez gero izkribuz eta geure iritziak, zuzenak nahiz okerrak, elkar-izketarik gabe agertzen ditugularik, euskal-prosa arruntaren izatea, egoera eta huts-beteak aztertu nahi genituzke, «gramatikatasunean» landaturik baina «gramatikatasun» soilean oinak itsasten ez zaizkigularik.

5. Nolabait esan, bi errenteriar desberdin aipatzea zilegi bazait, askozaz ere hobeki zekien euskeraz Xenpelar-ek nik baino: Xenpelar-en hizkerak, haatik, hain egokia izanik, ez du neretzat balio. Bestela eta erabatago esanik, sartaldeko hizkuntzetako prosa zenbait bidetan barrena ibiltzen ikasia eta trebatua da, latinaren ondotik, jakina, goragokorik aipatu gabe. Era berean, hainbeste ez bada ere, geure hizkuntza.

6. Ibilaldi horiek hizkuntza, edozein hizkuntza, arinago, zailuago, malguago bihurtu dute. Euskaldunok ez dugu, herri-gaietan izan ezik, kultura berezirik: mendeko gera, kultura-barruti horretan bizi gera. Ezin izan dezakegu, beraz, askatasunik hizkuntzaren aldetik: askatasun hori erdiets zitekean VIII-garren mendean, XIII-garrenean eta XVI-garrenean ere, bai oraindik, agian, ez, ordea, oraingoan eta are gutxiago hurrengoan. Latinaren, eta erabat sortaldeko hizkuntzen, kutsua geure bekokian daramagu. Aitor dezagun, onhar dezagun, eta goazen aurrera bide horretarik.

7. Egungo prosa, gaiak bereizten ez duenean, ez da hizkuntza batetkoa eta batena, nazio-artetkoa baizik: B. L. Whorf-ek «standard average European» deitu zuena. Euskal-idazlerik gehienek ere ez dute bestela jokatu. Ezin bazter eta arbuia dezakegu zor diegun hizkuntzaren lantzea, beti irabazle izan ez bagera ere.

8. «Euskal-usaia», «euskal-kutsua» deritzatena ongi dago, noski, euskal-gaiak darabiltzagunean, Euskal-herriko mendi-giroa irakurleari sumarazi nahi diogunean. Hortik kanpora, ordea, badirudi ur garbiaren pare behar duela izan behar bezalako prosak: inongo usairik, kolorerik eta zaporerik gabea. Euskal-kutsua badario, barren-muinetarik dario, ez axaleko edergarrietarik.

9. Hitz-ordenaz eta aurkitu diren legeak ez dira idazlea estekatzeko gateak, honen kemenak gehi ditzazketen lanabesak baizik, hitzen indar izkutua nabarmenduaz. Idazlearen eginkizuna erraz da adierazten, gaitz betetzen: hizkuntzari bere burua menderatuaz, hizkuntza menderatu, hizkuntz-legeen lokarriak eta trabak, airea hegaztiarentzat bezala, sostengu eta laguntza bihur ditezten.

Luis Mitxelena.

BATASUNARI BATZUK AGURKA

ETA BESTE BATZUK AURKA

Arantzazuko Batzarrera eldu ziren txostenen berri

Onelako Billeretan beti gertatu ohi den bezela, Arantzazukora ere eldu ziran idatziz bidalitako txosten edo komunikazioak. Etortzerik ez zuten jaun batzuen txostenak, alegia. Astirik egon ez zelako, denak ez ziran an irakurri; baiña lan oiek eldu zirela eta Batzordearen eskuetan gelditzen zirela, hori bai, batzarkideei jakinarazi zitzaien.

Amabi dira, guztira, artutako txostenak. Oietatik lau (Txillardegi, X. Gereño, J. M. Lojendio eta Iratzeder), batasunaz ari dira. Beste iruk bai batasunaren auzia eta bai «h» letrarena ere aipatzen dute (J. Mokorroa, Aita Onaindia eta Kamiñazpi). Beste iruk «h» letraren auzia astintzen dute (J. Etxaide, R. Murua, F. Krutwig). Euskera batuaren itzen auzia ikutzen du batek (Carlos Santamaría). Eta deklinazioaren auzia beste batek (Kerexeta).

Lan guztiak osorik ematerik ez dagoen ezkerro, bakoitzetik zati bat artzen da. Lanaren muiña edo ideia nagusia ematen duen zatia.

Euskera osotuaren beharra aipatuko dut... eman ez. (Txillardegi).

Nire ustez, derrigorrezkoa da... dagozalako. (Xabier Gereño).

Batasun billa gabiltza... egoki. (J. M. Lojendio).

Eskuararen batasunari buruz... guziek. (Iratzeder).

I.—Euskeraren etorkizunak... arte! (Justo Mari Mokorroa).

Euskera idatziaren batasuna... egingo. Or erabiliko dituzuten... maixu.

(Aita Onaindia).

Euskeraren batasuna... dabena. H ezelan be ez genduke... asteko moduan.

(Kamiñazpi).

Literatura-euskeraren batasuna irixteko... ere. (Jon Etxaide).

Nik ez diot «h» oni... baño. (Ramón Murua).

Bai Hatxetegi osoa eta bai literatur-euskararen verbu-formak ere bialdu zituen jaun onek. Azken puntu au kanpoan utzirik (ezpaitzan Batzarrekoa), hatxetegia argitaratzen dugu. Ahal... zuhurtzia. (F. Krutwig).

Antzinako euskal-hitzen... direla. (Carlos Santamaría).

Ikusi bat Garmendiaren... beintzat. (Kerexeta).

TXILLARDEGI

Euskera osotuaren beharra aipatuko dut lehenik. Behar hau behar gorria da: euskera bakar bat lortzeko premia guzizkoa. Negargarria ez balitz, farragarria litzake gure egoera, alde hortatik: gure huntan gaudeno, euskaltzaleok ez gera serio-tan hartzekoak. Arinkeriak ez bestek proposa dezake oraingo hizkera-multzokeriari eustea. Literatura-hizkuntza osatu, ala euskalki guziak hil: hau da gure hautakizuna.

Neuri dagokidanez, berriz ere esango dut bestetan esandakoa: alegia, Euskaltzaindi'k erabakiko duena aldez aurretik ematen dudala aintzakotzat, eta nere aha-lean jarraituko eta jarraiaraziko dudala.

Arrisku bat dago, nere ustez, erabaki batzuk harturik ere: erabakiak gero eza-gutaraziak ez izatekoa; eta, hori aitzekia, lehengo modura ekitea. Hau gerta ez dedin bide bakar bat somatu uste dut nik: erabakiei zabalkunde haundia ematea. Aldizkarietan, euskal ikasguetan, edonolako erakundeetan, erabakiak azaldu behar dira, hortarako ikastaldiak herriz herri antolatuz esate baterako. Idazleen eskuetan dago erabakien indarra; beraz, egiñahalak egingo dira euskal idazleen artean oso bereziki, euskera osotua zabal eta itsats dedin.

Euskal Idazleen Alkartasuna aipatuko dut bigarrenik. Beste herritan egin dan bezela, eta Euskaltzaindia'ren eginkizuna ezertan trabatu gabe, oso egokia litzake Alkartasun hau egitea. Ez, nere ustez, idekiegia: Goncourt-Akademia, esate baterako, ohore bat da, eta ez frantsesetz idazten dute guzien kopurua. Liburuak eta prentsa-artikuluak ugari eta zentzuz argitara dituztenen artean osatu beharko litzake. Alkar-aditurik lanegiteko gertu ez daudenak, jakina, Alkartasun hortatik at utzi behar dira: Alkartasuna alkar-tasuna da, eta ez kota bat. Euskal idazle geran guzioi dagokigu Alkartasun hori xehetasunetan zertan datzakean aztertzea.

Eginkizunak, hortara, Euskaltzaindia'ren zuzendaritzapean antola litezke; baiña Idazleek lana bere gain hartuz eta banatuz. Ikastolako liburuak, irakaskintza hutsa dala-ta, gogotik hartu behar ditugu euskal idazle geran guziok. Euskaldunen zerbitzutan jarri behar dugu, eta ez euskaldunak gure zerbitzuko.

Euskaldun berriez ziñez arduratu-beharra aipatuko dut azkenik. Euskaldun berri horiek garrez beterik daude, baiñan ez dakite euskeraz, ez dakite ongi batez ere. Uxatu beharrean, bildu egin behar ditugu. Ez, jakina, euskeraren jatorriasuna lardatzatuz; berentzako artikuluak eta lanak prestatuz baizik. On litzake, esate baterako, 3.000 hitzetako hiztegi osotu bat prestatzea eta argitaratzea; eta, astekarietan eta bestetan, mailla hortako sail bat idekitzea. Gauza bera esan behar da euskeraz irakasteko bidez: ondu egin behar dira, ikasleak egiazki euskeraz ikas dezan. Etxe-sail oso bat gertatu behar da azkar, eta beretan doharik hartu euskaldun berriak, hizkuntzaz jabe ditezten erraztasun guziak emanez.

XABIER GEREÑO

Nire ustez, derrigorrezkoa da Literatura euskeraren batasuna. Orain inoiz baño geyago, izkuntza bat irauteko kultura bidean sartu bear da. Kultura ori idaztien, liburu bidez lortzen da, ta gure idaztien ediziñoak dialektoetan bananduta egiten badoguz, San Martin'ek oraintsu zabaldu dauan estadistika tamalgarria eukiko dabe ondorena, au da, 30 liburu eskas urtean, eta gañera ale gitxidunak eta nekez saltzen diranak.

Gure umeak Bayona'tik Tudela'raño ikasi dagiela euskal ikastoletan euskera batu ori. Nausiak, gabaz, euskera ikasten doazanean, ikasi dagiela euskera batu ori. Bertsolariak, abeslariak, diskoak, zabaldu dagiela euskara batua euren ekiñaldietan. Eta guk, euskaldunak gareanok, ikasi daigun euskera batua.

Nik aurretik onartzen dot Euskaltzaindiak zabalduko dauan literatura euskera batua, ta al dodan beste lan egingo dot bera zabaldu ta indartzeko, euskera ta Euskalerria orren bearrean dagozalako.

J. M. LOJENDIO

Batasun billa gabiltza. Aldez aurretik, ontzat ematen ditut, zuek artutako erabakiak eta nere iritzia jakin nai izan ezkeror, orra bera: Idatz-izkeraren batasunerako, Giputz euskalkira jo bear genuke danok. Gipuzkera idatzi, alegia. Ez gipuzkera osatu batean. Gipuzkera utsez baizik.

Azkue Jaunaren «Euskalerriaren Yakintza», bere «Ardi galdua» baño ulerterrazagoa da, bai gipuzkoarrentzat, bai gañerako euskaldunentzat. Euskalkiak alkarrekin nastu ezkeror, beren jatorrizko indar berezia galtzen dute, eta euskera dagon egoeran, orrelako sayoak, kaltegarriak izan ditezke. Arrizko aundikoak beñepein.

Zergatik gipuzkera, ta ez bizkaiera, lapurdiera ala naparra? Gipuzkera —Azkue bere Euskalerriaren Yakintzaren Itz aurrean dion bezela— «euskaldun geienentzat errazena dalako». Dana dala, obe nere iritziz, euskalki bat bakarrik artu, euskalki batzuek alkarrekin nastea baño. Obe, adibidez, bizkaiera edo lapurdiera, gipuzkera osotua baño.

H gora bera, naiko estabaida sortu da aspaldi onetan. Nere ustez, euskal idazleak, aukera osoa dute H erabilli edo ez erabiltzeko. Baña gipuzkera, edo bizkaiera, idatz-izkera orokorra autatu ezkeror, H erabiltzea ez litzake egoki.

IRATZEDER

«Eskuararen batasunari buruz lan egitea, eskual-idazlentzat egitekotik ederrena eta zailena...

Lege berriak asmatu-aintzin, orroitz ditela Laphitz, Duvoisin eta Diharasarri-ren eskuara klasikoak amaiten ziotela idaz-lan handieneri batasun zerbait.

Orroitz ditela ere batasun zahar hori garbiegizalek eta «ene xoko-moko»-zalek gal arazi daukutela. Eskual Herri osoa bezein zabaleko bihotza izan dezagun guziek».

JUSTO MARI MOKOROA

I. Euskeraren etorkizunak orren bearrezkoa duala diozue beraz «batasuna»? —«literario batasuna»? —*euskera idatziaren batasuna?*

Nik eztet bear gorri ori iñondik iñora ikusten; eta ain gutxiago berriz sumatzen nondik nora antola diteken gramatika-lege-zaleen eragieñez, erriak aintzakotzat artuko duan euskal-izkera berdindurik.

Berez bezela ba zetorren oraiñ-aspaldi zenbait euskal-izkeren alkar-artze edo alkar-kutsatze antzeko zerbait, erriak polikitxo on-artzen zijoana. «GAROA»-ren

euskera etzan giputzik geienena, baiña bai edozein giputzek gozotan irakurtzen zua-na. Gregorio Arrue-ren euskera etzan Gerriko-rena, ezta J. Bta. Agirre-rena ere. Urruzuno ta Lardizabal bakoitza bere bidetik zijoazen. Baiña zein giputzek etzuan batarena bezin errez ulertzen bestearena, bana izanagatik? Bakoitzak ba zuan bere gazi-goza eta bere edertasuna; eta banatsun orrek zertan egiten zion kalte giputz irakurleen izkuntzari? Ezertan ez. Baita Euskalki batetik bestera ere zailtasunak leunduko ziran ez-arian ez-arian, alkarren ezagutzaz.

Baiña, betoz orain indarraren aldeko *lege-jartzailleak*, erriak darabiltzan euskal-izkerak *naspillatzera* ta *biurrikatzera*, erriari bereak ez ditun bideetatik bultzaka joan-arazi naiean. Eta ni bildur, ez bataren eta ez bestearen eztan izkuntza nabar, pisu ta elkor orrek ez ote ditun gogoan joko euskaldunik jatorrenak, euskal-liburu ta paper guziak erabat zapuztutzeroaño.

Asko degu ortatik.

II. Bigarren auzia: *H-rekikoa*. Itz batez guzia edo geiena esateko: zer aurre-rapide dator letra ori gure alderdi oetako euskeratan sartzetik? Batera ez beintzat, nekez bederen ezerki irakurtzen duten giputz-bizkaitarrentzat. Azken urteotan argi-taratu diran zenbait liburu gozo («Ezkontza-bidean», «Arrate-ko Amaren altzotik», Aita Lino Akesolo-ren Salmoak eta abar) zenbat lagunek irakurriko zitun gure errie-tan H-zaleen elorritz eta sastrakaz josita argitaratu balira?

—«Bai, baiña gure liburuak eta gure kultur-artikuluak mugaz-arunzko euskal-errietan sartuko ziran...!»

A, gizajoak! Ango berri dakianik bat ezta izango gure alderdiotako liburuak H-z jantzi-ezkero, emen ez ta an arrapazka salduko dirala agustu txiki bat egiteko.

Beude, beude H guzi edo geien-geienak, letra ori gabe beren itzak arrotz egingo litzaizkienentzat! Eta alde emendik, gure jendearentzat betegarri uts eta lanbidea ta zer-esana jartzeko bestetarako ez tiran dotorekeri oriek!... Oraingoz beñipein, gure izkuntza esturasunetik atera ta bere buruaz jabetzen asi dedin arte!

AITA ONAINDIA

Euskera idatziaren batasuna preminazkoa degu, ez ordea il edo bizikoa: ori barik ere, beste mutur batzuk lotuazi ezker, nire urtez, biziko da gure izkuntza zaarra. Alaere, komeni zaigu batasun-bidetik jokatzera; gaur batez ere, bakoitza bere bidetik, lar bakarka gabiltzan une onetan. Azken urteotan istillu geiegi darabilgu euskal idazleok, bakoitzak bere iritzari oso setati eutsi naiean. Onetan, naiz-ta mingaieñ askatasuna eskatu, egitez geu gera guztiz jauntxu, ingurukoa ondo loturik kuki nai degunak.

Onako naste ta goraberak ez dira gaurkoak, aspaldikoak baizik. Oiartzun'go seme argi Migel Antonio Iñarra onela mintzatzen zan 1897'garrean ere: «Gaur gaur bezela, dena kirats gaizto batek joa dago, ta egoarekin pikua bezela, punpa punpa lurrera dator. Sinizkizunak, erriketa, iritziak... Alkartiak, agintedunak, mende-koak... pentsa bideak... zer ez? Denak, denak amilka datoz... Atzo batzuentzat arria zana, gaur besteentzat zuria da, ta bigar berriz denentzat beltza izain da, gero gorria, gero oria, gero... ezer ez: oiñik eztaukatelako». Ez, ez dezagun uste txori-kantuz ari danik oiartzundar apaiz gaztea, euskal idazkera batasunaz baizik. Beraz, ezta gaurkoa istillu au, kezka au. Euskaltzaindia bera ere, sortu zanetik, ortan jard-

na da. Ta 50 urte ontan batasunera jo degu, abiada aundiz jo ere; beste ainbeste urteren buruan, nik uste, gogo onez jokatu ezker, gauzarik askotan beintzat, batasuna egiña degu. Ta onan egiñiko batasuna degu ederrena, ez indarrez sartu-azia: euskaldunok ez gera indarrez ipiñitako ezer ere ontzat artzekoak.

Niretzat batasunik ederrena, euskera idatziz egitekoa noski, auxe litzake: Gaztañaga gazteak aste ontako ZERUKO ARGIA'n diñoana. «Askorentzat idazten dana —dio— tellatupe bakoitzeko bereizkuntzak baztarturik, denentzat ulergarri dan eran egin bear da... Baña ortarako, ikasi egin bear. Euskeraz ondo ikasi ez duana, nere ustez, ez diteke batasun-malla jatorrera igo. Batasunerako aukeratu diran era eta moldeetan ibilliko da, bai; geiagorik ez, ordea. Idazleok, euskera sustraitik eta sakon ikasten ez degun bitartean, ez det ikusten batasun-bide jatorrik. Bildur naiz, mami gabeko gain-azal otz eta illa gertatuko ez ote dan gure Euskera bateratua».

Ortik dator, egiazki, berezko batasuna, euskeraz sakon ikasi ta, euskalki estu batean ezetik, denentzat idaztetik. Euskalki edo dialektu asko dauzkagula? Baiña ondo begiratu ezker, ez degu oietan alde aundirik; askok uste baiño errezago zaizkigu, ta ikasi bearra degu, geurea ta ingurukoren bat beintzat, mintzatu ta idazteko giñoan ikasi ere. Pixkat saiatu ezker, etzaigu au orren aldatz-gora egingo.

Or erabiliko dituzuten puntu batzutaz ona nire iritzia.

I. OROTOGRAFIAZ. 1) *f* ez nuke nik asko erabiliko. Bizkaia'n oso gutxitan esaten degu *alfer*, *alper* ia beti. 2) *b*, ez naiz onen zale, mugaz onunzko izkelgietan batez ere; erriak oso gaizki artu du oraingo gazte batzuen moda ori; inguruko izkuntza askotan kentzen ari dira: italiarrak *Habana* ere *h* gabe idazten dute: *Abana*. Guk alere, iñoiz artzekotan, *bokal biren tartean eta itz berdin bi bereizteko*, ura (agua) ta hura (aqué) adibidez. 3) Idatzi beti bildur, ez bildurr; ardi, ez arrdi. 4) Idatzi *baña*, *zailla*; *bikain*, *zail*. 5) Apostrofo len onela zan beti; Oñati'ra, ez Oñati-*ra*; nik lenengoa erabiliko nuke, bigarrenak bere arloa duelako. 6) Bai, *ba*-daktik (ya lo sé); *ba*'letor (si viniene); ona da-ta (porque es bueno). 7) *v* -rik eztu euskerak.

II. ITZEN FORMAZ. Itz bakoitzari bere adiera ta zentzua ematen oitu bearrean gaude euskal idazleok. Ezin ezetsi dezakegu euskal itzik, ez angorik ez emen-
gorik, denak baitira eder. Idazleak edertzen du izkuntza ta guk ere ortan saiatu bear. Aditz-formak —*nuan*, *nuen*, *nun* deust, *daust*, *dautzu*, *deutsu*, ta olakoak—, itzen aldaerak —*biar*, *bigar*, *bier*, *behar*, ta *abar*—, laburpenak —*lez*, *legez*, *letxe* ta *abar*— iz-buruak —*pekatu*, *bekatu*—, errazoi, arrazoi-ta antzekoetarako *norma batzuk ematea* oso egoki litzake.

III. ITZ BERRIAK. Euskera itz berri premiñan daukagu, edo bere baitarik sortuak edo besterengandik artuak, naitaez bear ditu. Nire iritzia ontan auxe: 1) Euskal itz zaarrik ba' degu, auxe lenengo; 2) oraiñarte erabili diran itz asko, erderatikoak dira bakarrik, ez baztertu; 3) euskeraz errez dira itz berriak, griego ta alemanez bezin errez; beraz, beti ere, ulergarriago izango dira geure sor-iturritik artuak, griegotik eta abar artuak baiño; 4) besterik ezean, besteetara jo. Gaur, alaere, itz asko dauzkagu naitaez erderatik artu bear ditugunak, teknika gaietan gabiltzala baitik-bat.

IV. MORFOLOGIA. Izen-jokoari ta aditzari buruz, aski ederto idatzi zигun Azkue zanak bere MORFOLOGIA ederrean. Hura ikasi ta Azkue'k an dion bezela

jokatu bear degu euskal idazleok. Elitzake, alaere, gaitz etorriko norbaitek pazientziz liburu ua aztertu ta bertako euskal-izenari ta aditzari buruzko gauzarik bikaiñenakin xorta apain bat egingo ba'lu; guztion onerako izango litzake. Gai auetan Azkue ta Altube ditugu maixu.

V. JOSKERA. Onetan naikoa zabar gabilta azken urteotan. Baiña auxe degu, iritziak iritzi, izkuntza baten arima. Ta naiz guztitariko gaietaz jardun naiz geure erri barrukoetaz, izkuntzak beti bear du bere arima erakutsi; eleberri, ipuin, teatro, poesi ta antzeko lanetan batez ere. Pentsakera ta idazkera berriak, ederki datoz gure literaturan; baiña geure gogoia iñoiz ere galdu gabe. Idatzi dezagun beti bizi ta argi, joskera aratzean.

Onenbestez, ar zazute denok nere agurrik beroena.

KAMIÑAZPI

Euskeraren batasuna euskalkien eriotza da. Gaztelar berba egiten dabenen desbardintasun apurrak jendea eskola ikasten joango dan neurrian aldendu egingo dira. Erdaldun eskolatu guztiak bardin berba egiten dabe.

Euskeria bizirik irauteko biarrekota da ikastoletan danari irakastea; eta euskera batuan irakatsi ezker denporiagaz beste euskalkiak il egingo dira.

Ta beste itauna: Agirre'tar Txomin abadea moduko idazlerik Bizkaia'n sortuko balitz KRESALA'ren balioko libururik ez idazteko neurriak artu biar doguz?

Batasunik ezak ez dau euskerarik galdu ta batasunak, beste barik, ez dau indartuko.

Euskeriaren batasun kontua ardura andiagaz artu biar da. Danontzat aukeratu edo moldatu leiteken berbakeria askorentzat gaitxa izan leiteke.

Ta ori atzerabidea izango litzake. Ez da atsegin izaten ulertzea kostatzen dana irakurtea.

Ez gara sakonegi sartu biar batasun bidean. Azalian be badago alkartu biarra naikoa, zer konpondu ugari. Ortixek asi gaitzean ba.

Aditzari ezelan be ez geunskio ikuturik egin biar.

Baiña nire modukoen borondatearen gaiñetik euskeraren batasun bidean sakonkiro ekitea batzarrak erabagiko baleu euskalkiren bat oñiarri lez artzekotan gipuzkera izan bedi. Auxe da erdi inguruan dagoana ta geienak itz egiten dabena.

H ezelan be ez genduke erabilli biar Bidasoa emendikaldekoak. Angoakaz batasuna egitearren emengoen artean banatze ta asarrerik ez daigun sortu.

Gaiñera eragozpenez (difikultadez) idazlea betetzea litzake ori. Bialdu dauskuezen batzarrerako gai orrietan ikusten da ederki *H* nun jarri eta nun ez jakitea zelako gatxa dan. Nire burua ez dago orain naste orreik ikasten asteko moduan.

JON ETXAIDE

Literatura-euskeraren batasuna irixteko, denok dakigun bezala, punturik nagusienetako bat da, noski, «h» letra honartu behar ote dugun ala ez. Puntu hontan akort jartzen baldin ba'gera euskal-idazleok, esan diteke, iñolaz ere, euskal-ortografiaren batasuna beñepein iritxi dugula eta uste dut garaia dela euskaldunok ortografian bederen bat etorri gaitzen.

Bañan, ortografiaren batasuna iritxiko baldin ba'dugu, premiazkoa da, Bidaso'z bi aldetako euskaldun guztiok «h» letra honartzea ala gaitzatea. Iñork ez beza uste, ordea, bazterretan aditzen eta irakurtzen ari geran bezala, batasuna izango dugunik, Bidaso'z goikoek «h» erabiltzen dutelarik eta guk atea ixten diogularik. Azkenburu edo konklusio hontare irixteko jai du gure Batasun-Batzarrak.

Eta puntu hontara iritxita gauza bat dago argi ta garbi: Iparraldeko gure anaiak ez dezakete baztertu oguzten duten letra bat, hori egitea euren mintzaira arimari zati bat erauztea bailitzake eta, bestalde, guri «h» horrek eztingu batere kalterik egiten, baitipat gogoan edukita eskola espanyoletan hazi geran euskaldun guziok «h» mututzat daukagula. Beraz, hemengo euskaldun batek «hacer», «hijo», «ahí», irakurtzeko eragozpenik ez baldin ba'du, eztezake eduki ere, «hau», «hartu», «behar» irakurtzeko.

Orain artean, Bidaso'z goitiko gure anaiak eman dute amore ortografia kon-tuan, batasunaren amodioz. Uste dut, bada, garaia dela, behin bederen, geuk eman dezagun, batasunaren amodioz ez-ezik, Bidaso'z handiko gure anaien amodioz. Izan ere, guretzat «h» hori honartzeak ezpaitu batere eragozpenik eta iparraldeko gure anaientzat gauzatzat mingarriena litzake hortara beharruta arkitzea.

«H»ren kontra dauden Bidaso'z beheitiko euskaldunei eta batez ere ene anai giputzei, nahi nieke pentsa-erazi euskera ezte la gipuzkera, Gipuzkoa'n kaskaezurre-raiño sartuta baitaukagu uste oker hau, gerekoikeri higuigarri baten eragiñez, esa-naz bezela: bestek makurtu ditezela gurera eta ez gu haienera. Garaia da ordea, gerekoikeri hau gure baitatik uxatzeko eta pentsatu dezagun euskera ezte la gipuz-kera, baizik-eta lapurtera, zuberuera, goi-naparrera, behe-naparrera, bizkaiera eta... gipuzkera. Jaungoikoa'ren izenean, Gipuzkoa'ko anai maiteok, ikas dezagun euskeraren problema guk nahi dugun eta guri komeni zaigun baiño tontor garaiago batetik aztertzen, hots, Euskalerrri guzia bixtatzen duen tontor goiti batetik eta ez soil-soilki Gipuzkoa'ko lurraldea darakuskigun tontor apal batetik.

Gaiñera, ba-dakigu, iparraldeko euskaldun anaiak konsonante atzeko «h» (ikhu-si, ethorri) baztertzeko prest daudela, «Euskaltzaindia»ren oharpen baten bidez adi-tzerat eman duten bezala. Beraz, hauzi hontan ere, guk ez-ezik, berak ere amore ematen dute, hain berena duten «h» parte batean baztertzeko borondatea erakutsiz.

Eta iñork ez beza pentsa «h» letra gurea ere eztanik, gure alderdiko antziñako dokumentutan, gaur Bidaso'z goitik darabilten antzo agertzen baitzaigu. Bai, jaun-andreak, «h» euskaldun guziona da, iparraldekoena eta egoaldekoena, guk, zori-gaitzez, bizirik iraun-erazi ezpa'diogu ere.

RAMON MURUA

Nik ez diot «h» oni ezerren garrantzirik arkitzen, ta iruditzen zait euskera idaztea ta irakurtzea zallagua biurtzen dula.

Len lenago uste nuan mugaz aruzkoak «h» ori erabiltzen zutela, pranzazaz irakurtzen oituta zeudenak, nastu ez zezaten euskerazko izkiak ta etzezaten egin pranzazak egiten dutena au o egin, oi ua; eu e; ta orrelako aldaketak; bañan aurrea-go ta obetogo asterturik, ikusi det nunnai jartzen dituztela orrelako bi edo iru bokal segidan tartean «h» ez dutela.

Ezin jabetu naiz zergatik erabaki au artu zuten Bayonan. Batasunerako bidea erreztoko edo zallago jartzeko? Ez al litzake errezagua ezertako ez dan «H» ori curak bein betiko baztartzea?

Nik uste bayez. Jabetuko ziran oso ederki idatzi dezaketela «h» gabe ta guk bezela idatzita txe ta ez eurak jartzen dituzten tche ta orrelako beste alrrebeskeri geiago.

Auxe da iritxi: Ez dezagun zaildu, errextu baizik euskeraz idaztea ta irakurtzea. Bide onetik lenago iritxiko gera batasunera, bestetik baño.

F. KRUTWIG

H-ko listan kh-z, th-z eta ph-z izkiriatzaren diren hitzak ere sartuak ditut, zeren eta, neure aburuz, ph, th ta kh letra euskarazko strukturen kharakteristika bat baitira. Hitz hauietan batzuetan ere, h-ren bidez hitzak bereizten direnetan h-gabeko hitza edo bertzela izkiriatzaren dena ezarri dut.

A	haika	antharraldi	hartzi
ahal	hain	ahotz	ahobizar
ahaldun	hainbat	aphain	hartzitu
ahalke	hagitz	aphaindu	harruzka
ahalkeizun	anhitz	aphal	has
ala = tormento	aiphatu	aphaldu	hasi
alha = pacer	aiphu	aphari	hasarre
hala = así	haritz	aphez	athe
alhor	haizu	aphezpiku	ahate
ahantzi	akher	apho	ate
ahaide	akhitu	aphur	atheka
ahaiko	alhaba	aphurtu	athela
ahamen	alhargun	har	hats
ahapaldi	alkhi	hara	hatse
ari	alhor	haragi	hatsanka
ahari = cabrito	alpher	harako	hatz
hari = a él	haltz	arhantza	atze = gibel
arhi = bazo	hamar	harbi	hau = haur
har = macho	hamabi	hare	haukera
ahar = querella	hamitu	arhe	ahur
haran = valle	hamikatu	arhen	ahul
arhan = ciruela	hamu	hari	ahuldu
hainbat	han	arhi	haur
hainbertze	handi	ahari	ahur
haizkolari	handitu	ari	aurkhi
haitz	handiki	arhin	aurkhitu
haitzur	hanpa	arhindu	aurthen
hasi	hanpurus	haritz	hausko
hazi	hantatu	harri	hauteman
habe	hantu	arkadi	hauts
haga	hantilari	haro	hautatu
ahitu = akhitu	aho	harrobo	hautsetsi
aiher	aholkatu	harro	ahutz
aihen	aholku	harrotu	hauzu
	antharratu	hartz	haz

hazi
hazgale
hazkor
hazta
haztatu

B

bahaska
bahets
bahi
bahitu
bakhe
bakhoitz
bakhan
bakhar
bakharrik
bakhotxi
bakhun
balhore
bapho
bapo
barhan
barhandatu
barhe
beha
behatu
behakuntza
behar
behaztopo
behazun
beheiti
behin
behinik
bekhaizti
bekhan
bekho
bekhoki
bekhurunde
belhar
belharri
belhaun
belhaunikatu
bera
berrha
berehala
berro
berrho
behor
bethe

bethi
bilhatu
bilhakatu
bilho
bihotz
bipher
biphi
biphil
bihur
bihurritza
bihurtu
buhada
buhak
buhame
bulhar
bulkhatu
burkhide
burho
burhokatu

D

deithore
deithoratu
deithu = deitu
deihadar
dohain
dohainik
dohakabe
donhetsi

E

hebain
hebaindu
hedago
hedatu
hede
hedoi
ehe
ehelegatu
hegal
hegan
hegi = ladera
egia = verdad
hego
hegoi
heiagora
eihar

eihera
hein
ehitu
ekhain
ekhaitz
ekhei
ekhaigai
ekhi
ekhin
ekhintza
ekhuru
hel
heldu
elhanerri
elhaire
elhaka
elhar
helburu
heldaio
helde
elhe
elhekatu
elhesari
helgaitz
elkhar
elkhargo
elkhor
elhorri
heltura
elhur
enphoildu
eo
eho
ehortzi
ehorzpen
ephai
ephaile
ephe
epheldu
epher
herabe
erhaile
erhain
erakharri
erakhutsi
erhaiusi
erhauts
herbal
herbaldu
herddoil

heren = 1/3
eri = enfermo
erhi = dedo
herio
eriotze
erkhaitz
erkhain
erkhatu
erkhide
erkhidetu
erho
erhotu
herra
herri
herroka
eroka
herru = lodazal
erru = culpa
hersatu
hersi
hersitu
herstu
hersu
hertxatu
hesi
hesol
herstura
hertu
ethen
ethendu
ethorri
ethorki
ehun
hezatu
heze
hezi
hezo
hezur

G

gaihenzi
galepher
garhaite
gathe
gathin
gahun
geheli
gehiago
gehiagotu

gehien
 gehiegi
 geinhu
 geinhatu
 gerthari
 gerthatu
 gerthu
 gerthutu
 ginharra
 goha
 gorhaindu
 gorhaindidura
 goihen
 gokhorrikatu
 gori
 gorhi
 gothor
 gothorki
 guthun

I

ihabali
 ihakin = mofa
 (iakin = saber)
 ihalozka
 ihardetsi
 ihardoki
 iharduki
 iathor
 iathorri
 ihauli
 ihaurri
 hibi
 higa
 higi
 higitu
 higikune
 higuin
 higuindu
 higuintza
 ikhatz
 ikhara
 ikharatu
 ikharagarri
 ihi
 ihizora
 ihintza
 ikhe
 ikhertu

ikhusi
 ikhusbide
 ikhusgarri
 ikhuskizun
 hil
 hila
 hilaun
 ilhaundu
 hildo
 hildura
 hiliki
 iliki
 ilhinti
 hilka
 iltkhi
 hilhobi
 hiltzeka
 ilhun
 ilhundu
 ilhuntze
 inhar
 inhakin
 inka
 hinka
 hint
 iphar
 ipharralde
 iphini
 iphurdi
 iragarri = anunciar
 hiragarri = doloroso
 hiraka
 iratu
 hiratu
 hiri = ciudad
 iri = cerca
 iro = cansado
 hiro
 hiroi
 hista
 irrits
 hirrits
 hista
 histu
 istu = saliva
 itho
 ithain
 ithobehar
 hits
 ithurri

ithurburu
 hitz
 hizka
 hizkatu
 hizkuntza

K

khabu
 khabudun
 khaduri
 kadan = simpático
 khadan = rezagado
 khailu
 kahinka
 khar = gar
 kharba
 khedar
 kharbe
 khe
 khedar
 kheinu
 kherr
 kherru
 khendu
 kherra
 khexu
 khide = kide
 khidego
 khidekapen
 khidekatu
 khilo
 -khai
 khoroa
 kui = conejo
 khui = calabaza
 khuma = sueño
 kuma
 khutxa
 khutsa
 khutsatu
 khutsu
 khozu

L

lahar
 lar
 lanho = niebla
 laphur

lauhazka
 lehen
 lehendanik
 leher
 lehertu
 lehua
 lehiatu
 leinhuru
 leiho
 leihor
 lekhu
 lekhuko
 lehoin
 lepho
 likhits
 likhistu
 liphu = tumor
 lipu = araña
 lohasma
 lohi
 lohitu
 lokhartu
 lothu
 lothura
 lukhainka
 luhumendu
 lohia
 loia = loja

M

mahain
 mahaindari
 mahasti
 mahats
 mahel = lo que está
 a través
 mael = agua muerta
 maithakunde
 maithazale
 maithe
 maithatu
 makhila
 makhur
 makhurka
 makhurtu
 malkhar
 malkho
 malkhor
 malkhortu

manhaspen	naharoki	hoge	ohore
manthar	nahas	ohi = costumbre	opha
manthartu	nahasi	oi = encía	ophatu
marka = barko	nahastu	ohitu	ophetsi
markha = aparador	nahasdura	oihan	ophil
markhets	nahasgarri	oihal	ophildu
markhets	nahasmen	oihanzain	opho
markhestu	nahastekatu	oiharzun	ophor
marhyka	nahi	oiher	hor
meha	naikho	oihes	oratu
mehaka = desf.	nahiko	ohikunte	orhatu
meaka = ijada	nahiez	ohitura	hordi
mehargune	nahikari	ohil	hordikeria
mehar	nahikuntze	ohildu	hondi
mehartu	nahiz = aunque	oin = pie	orhe
mehe	nakhaitz	hoin = tan	hori
mehego	nakhazitu	oinhaze	ori = laru
mehune	nekhaldi	oihu	orhoitu
mihuri	nekhatu	ok = fallo	orkhatz
mihi	nekhazale	hok = hoik	orkhe
mokho	nehoiz	okhatu	orma = pared
mihisa	nehola	okhazadura	horma = hielo
mihitsu	nehon	okhel	oro = todo
minkhor	nehor	okher	orho = rugi.
minkhortu	nothabe	okherdura	orhoimen
mihuri	noharoin	okhertasun	orthuts
mokhor	noharroindu	okhertu	hortz
mokhortu	nakar = desganado	okhil	otharre
mokhorkatu	nakhar = me trae	okhitu	othoi
mothel		olha = fábrica	othoitza
motheldu		hola = así	hotz
moto = polea	O	ohola = tabla	hots
motho = moño		olhatu	ozka
mulkho	ohaide	olhe	hozka
mulo	ohar	olho	hozkar = fresco
mulho	oharmen	on = bueno	ozkar = orzti
munhutx	ohartu	hona = huna	
muthil	hobe	onhartu	P
muthildu	hobeki	hondatu	phaldo
muthiri	hobetu	hondar	pharta
muthiriki	hoben	hondartu	phartategi
muthiritasun	hobendun	honen = hunen	phereeikatu
muthur	hobetsi	onen	pheia
muthurgo	hobiel	onheskizun	pherestu
	hobi	onheskuntza	phesi
N	hobiratu	onhil = unhil	pheskiza
nahaba	hobitu	ohoin	phezao
nahar	hödei	ohoingo	phezoin
naharo	ohereskatu	ohondikatu	phiko
	oheresku		

philtzar
phintz
phiru
phirukatu
prohokatu
phorrokatu
phorroska
phurtzika
phuskatu

S

sahats
sahatsuri
sahets
saihera
sakats
sakhats
sakher
sakhi
sakhil
sakhitu
sakhail
sakhaildu
salhatari
salhatu
salhati
sako = fuerte
salho = convenio
sarhatu
sathor
sehaska
seihal
sehi
sei
selharu
senhar
sepha
sephati
sinhistu
sinhetsi
sinhismen
sohaitsi
sokitu
sokhitu
sorhaio
sorho
sorthatu
sorthu
sotho

suhar
suharri
suh
sukhal
sukhalde
sukhar
sukhartsu

X

xahako
xahal
xahatu
xakhar
xalkhea
xaro = mango
xarho = vela
xathar
xahu
xahipen
xahutasun
xahutu
xahutze
xehatu
xehakatu
xehe
xehadri
xehetasun
xikhin
xori = pájaro
xorhi = esbelto
xothil
xurhail

TH

thaka
thanu
theiarzun
theiu
theiutu
thiki
thipil
thipiltu
thipilune
thema
toil = pegajoso
thoila = cubo
thoildu = hacerse
perezoso

toildu = hacerse
perezoso
thols
tholu
thona
torratu = tostar
thorratu = limpiar
thu
thyrbystu
thyrbys

U

uhal
uhalde
uhar
uharan
uharre
uhartze
hudigo
uher
uherdura
uhera
uherritu
uhin = ola
huita
ukhatu
ukhan
ukhendun
ukho
ukhondo
huma-hyme
humetu = hymetu
huna
unha
unhatu = cansarse
hunatu
une = espacio
unhe = fatiga
hunein
unhide = ynhide
hunkitu
hunkigarri
hura = aquel
ura = el agua
urhats
urkhabe
urkhamendi
urthe
urthe

urhentu
urhenburu
urrhe-zaharo
huts
hustu
hutsik
hutsal
hutsaldu
hutsarte
hutsegite
uhuri

Z

zahagi
zahar
zahartu
zaharkaratu
zaharkitu
zaharkin
zaharo
zahi = salvado
zai = marca, guardia
zale = aficionado
zalhe = firme
zalhetu = hacerse
flexible
zalhoin
zalhoindu
zalhu
zankho
zapha
zaphadura
zaphagarri
zaphaketa
zarho = bujía
zaro = época
zaharo = vara
zahoro = látigo
zehe
zehatzaile
zehatu
zeihar
zeiharbide
zekhale
zeiher
zekhen
zekhendu
zekhenkeria
zikhin
zikhindu

zikhinkeria	zinkhurina	zohartihintz	zuhar
zilhar	zinkhurinatu	zokho	zuhamu
zilhegi	zipo = provocación	zokholu	zurphil
zimarkhu	zipho = gemido	zorhi = maduro	zurphildura
zimarkhutsu	zirphildu	zori = suerte	zuhur
zimarkhun	zoharbi	zorhitu = madurar	zuhurtu
zimarkhunkeria	zoharrura	zuhaitz	zuhurtzia

KEREXETA

Ezin ukatu Garmendia jaunaren idazlana ondo ta egoki egon zana. An diñoan ia geiena onartzekoa ba-da be, argi ikusten da guztia *gipuzkerari* bidea zabaltzeko asmoz egin dauana. Ori egin bear ba'da, bego.

Alan be, eritzia eskatu dauskuen ezkeru, egin dagiodazan ikutu batzuk.

Garmendia'k, berak aurkezten dauanaren alde egiteko, batzuetan Azkue'n eritzia ba'dakar bere, beste batzuetan ez dautso ari oratzen, ots, Garmendia'k Azkue komeni yakonean dakarrela, ez osterantzean. Beraz, ez da «egi osoa» Deklinazio ori Azkue'ren Morfoloijatik artu dauanik, bai ta ez baiño. Ikus, bestela:

Datibo plurala: *gizonei* (edo *eri*) dakar Garmendia'k. Bestetara dago oso-osorik Azkue (Morf. V., 328 orri.): «Tal vez la más oída y seguramente la más escrita es *gizonai*, y en concepto del que traza estas líneas la preferible. Algunos en nuestros días muestran su preferencia por *gizonei*. Del hecho de que *gizonak* + en dé lugar a *gizonen* y *gizonak* + entzat a *gizonentzat*, no se puede deducir que *gizonak* + i sea *gizonei*. ¿De dónde viene esa e?, ¿qué oficio desempeña? Con temas en i y en u se oye mucho ei: *zuriei* a los blancos, *eskuei* a las manos; pero es por fonetismo particular, por influencia de esas dos vocales en la a siguiente.» Eta beste leku baten (M. V., 337 orri.): «*gizonei*, a los hombres, es contracción de *gizonak* + i.»

Eta, -KIN erabiltea -GAZ baiño obeto ba'da —Garmendia'k diñoanez— «zabaldugo dagoalako», orixe izan aurrean ei edo ai gaiari buruz bere: -AI askozaz zabaldugo dagoala. Begira, bestela, «Erizkizundiak» emon ebana («Orix» jaunak artuta):

Bizkaia'n: AI, 30 erritan; EI, 4 erritan (ERI, 1; ARI, 62; AIRI, 8).

Gipuzkoa'n: AI, 57 » ; EI, 4 » (ERI, 2).

Naparroa'n: AI, 30 » ; EI, 18 » (ERI, 5).

Laburdi'n: AI, — » ; EI, 6 » (ERI, 4).

Beste orrenbeste esan daiteke *Eibar'a* eta *Eibar'era* auziaz be: EIBAR'ERA askozaz zabaldugo dago. Altube'b EIBAR'A esatea «forma anfibológica e inexpressiva» dala diño (Observ., 60 orri.).

Bardin: JOSE'REKIN jartea, JOSE'EKIN baiño esateko obeto eta zabaldugo dago, nire ustez, JOSE'REN esaten danez, eta ez JOSE'EN. Azkue'k be JOSE'REKIN dakar (Morf. V., 350, 13: LOPE'REKIN).

A ORGANIKOARI BURUZ:

Anaia: izen jatorra *anae* dala uste dot: *anae* + a = *anaia* biurtuz. Iru itz badakaz, beintzat, Azkue'k (M. V. 409): *bae* (cedazo), *elae* (golondrina), *anae* (her-

mano). Onezaz beste nunbait be ba-diardu luzeago, baiña ez dot orain gogoan nun. Edozela bere, *anai* zabalduago dago (Bizk.-Gip.), eta *anaia* (organikoaz) Bizkai'ko Markiña'n eta Axular'ek.

Antsia (?); *suspiro* esateko, beintzat, *antzi*: antziz eta negarrez. Aitzekia (?), Bekokia (?), Katea (?) = katai; Koroa (?), Piztia (?), Txapela (?). -KERIA ala-KERI? Biak dakaz Azkue'k (M. V. 64 orri).

INDETERMINAZIOAZ (numeraleskin): Lau etxe erre *zaio*: plurala erabilten da erabili: yakoz (zazkio). Zenbat bei erosi *duzu*? = erosi dozuz (dituzu).

«Kristo'k esan zuan»; bai: baiña, ba-dago bereizkuntzaren bat emen: Nor ikusi dozu? Kristo'a ikusi dot (el Kristo, el Mesías), gatzeleraz be bereizten danek: «Hemos encontrado al Mesías (Juan, 1, 41): Kristo'a aurkitu dogu. Olabide'k: «Kistoa idoro dikagu».

Guztiz ondo 5'garren puntua.

Alan bere, ba-da zerbait jarri bear dana, giputzetarik oso gutxik darabilena, il-zorian dabe-ta: -OK mugitza edo artikulua. Begira Altube'k dakarrena (Observ., 46): «El artículo -OK (llamado *concreto* en la Morfología) es exactamente el plural común de los singulares de primero y segundo grado -AU y -ORI, como se comprueba por los siguientes ejemplos:

<i>Singular</i>	<i>Plural</i>
Eutsi sagar-AU	Eutsiz sagarr-OK
Ekatsu sagar-ORI	Ekatsuz sagarr-OK

Beraz, «judar guztiak», baiña «euskaldun guztiok»; aren bertso guztiak, baiña zure bertso guztiok, nire guztiok.

Orren urrengo dator beste au bere: bertan = allí mismo, y berton = aquí o ahí mismo (Azkue, Gip. Ost., 60); era berean, *onen ederra* da etxe *au*, *orren ederra* da etxe *ori*, *aren ederra* da etxe *a* (¡tan hermosa es ésta, ésa y aquella casa!).

Ez al dira interesgarriak esaerok? Euskera-batasunerako nai ta ez sartu bear diranak, len gipuzkerak eta orain bizkaierak bizi-bizirik dauzanak.

Gai onezaz, oraindifo egitekorik asko dago. Arantzazu'ra ekarri zana —guztiok dakigunez—, oso gutxi izan zan. Oñarririk nagusienak izan zirala? Bai ta ez; ba-daiteke komeni zana ekartea bakarrik.

Auxe, bai, ikusi genduan an: bizkaiera baztartuta gelditu zala, bizkaiera^{az} egi-ten dabenak gipuzkeraz egiten dabenak baiño geiago izanarren (Gipuzkoa'ko Bizkai-aldea artuta, beintzat).

Xerexeta.

Elorrio'tik, 1968, Urrillak 7.

CARLOS SANTAMARIA

Antziñako euskal-hitzen arteko batasunerako Euskaltzaindiaren eginkizun batzuek.

1. Euskal-hitz batzuek euskalki guztietan erabiltzen dira. Horrelako hitzak *orotarrak* edo *orotariko hitzak* deituko ditugu. Honezaz gainera, era edo forma berean erabiltzen baldin badira euskalki guztietan. *erabatekoak* esango ditugu. Zenbait erabateko hitz grafia berakin idatzi oi dira euskalkietan, adibidez, *ama*, *adar*, *adin*, *aldata*, *egin*, *errege*, *izar*. Hitz orotar, erabateko eta grafia bateko hauek, ez dute

batere problemik sortzen, batasunaren aldetik beintzat, berak hizkuntzaren altxo-
rrean aurkitu eta antolatzea ez izanik. Hontaz Euskaltzaindiari dagokion lana hitz
hauen lista bat antolatzea izango litzake, besterik ez.

2. Beste batzuetan hitz erabatekoak orotografia desberdiñekoaz idazten dira eus-
kalkietan, adibidez, *ikusi* ta *ikhusi*; *bei* ta *behi*; *bainan* eta *bañan*; *merexi* ta *merexi*;
kozka ta *koxka*; *oilo* ta *ollo*. Esan dezagun, bidenabar, desberdintasunik usuenak *b*
letratik datoztela. Horrelako hitzak bi lan eskatzen dizkiote Euskaltzaindiari. Le-
nengoa, ortografia legeak ondo fitsatzea. Bigarrena, horrelako hitzen lista eratzea,
hitz bakoitza orotografia bakar batekin idatzirik.

3. Beste motako hitzak aurkitzen ditugu oraindik, alegia, *era-askotariko hitzak*.
Orotartzat artzen ditugu, euskalki guztietan erabiltzen diralako, nahiz ta era edo
forma desberdiña izan. Izan ere, aldaketa bereziak izan ditulako edo beste nola-
naiko kausagatik, euskalki batzuetan itxura desberdiñak artu dituzte. Bañan, des-
berdintasun hori izan arren, hitz bakoitza, hitz bakartzat begiratu dugu, batasunaren
aldetik, ez ordean hitz senide talde bat bezelako. Adibidez, *aho*, *au*, *ao*, *aho*, *hau*,
ago, *abo*, *agu*, *abu*, hitz bakartzat artuko dugu, ainbeste forma desberdiñ euki arren.
Zenbait adibide emango ditugu hortaz, hitz bakoitzaren formak geografiako ordenan
emanaz, Bizkaietatik Zuberoraraño, Erronkari kanpora utzirik Tamlez, batasunerako
garrantzi handirik honek ez du-ta). Horra hor exemploak.

angeru	aingeru	aingiru	ainguru	ainguria					
B	B G A N L B N	A N L	B N S	B N S					
enara	inara	iñara	einara	ainhara	aññari	aññera	inhara	ainhera	añhera
B G A N	A N	A N	L	L	B N	B N	B N	B N S	S
marasma	armearma	armiarma	amama	amarama	armamoi	arminau	armiarma	amiarmo	ainharba
B	G	G	G A N	A N	A N	A N	A N		
armirimao	armauma	armarma	armiarma	armamio	arbiama	armiarma	amiarmo	ainharba	
A N	A N	L	L	B N	B N	B N	B N	S	

Sail hontaz Euskaltzaindiak iru egiteko izanen ditu, uste dudanez. Lenengoa,
era askotariko hitz orotarren lista egitea, hitz bakoitza bere forma guztiekin lagun-
duaz eta forma bakoitza bere tokian, geografiako ordenan, jarrita. Gero, hitz bako-
itzerako forma bakar bat, edo geenez bi forma, autatzea bigarren lana izango da.
Aukeratze hau egiteko kriterioak hauek izan litezke:

Erreztasuna
Jatortasuna
Edertasuna
Euskalkien arteko antza
Erdikotasuna
Arrera edo zabalera (populuan)
Modak (gaurko modak)

Esandako kriterioak «souplesse» piyka batekin ezarri bearko lirake. Ezartze hon-
tan gidaririk handiena *zentzua* izanen da, oso kontuzko lana da-ta. Irugarren egin-
kizuna hitz-forma autatuen lista antolatzea izan diteke, idazle guztiok bera ezagutu
ahal dezagun.

4. Askotan konzetu jakin bat adierazteko hitz orotarik ezta aurkitzen euskalki bakoitzak edo euskalki talde bakoitzak, hitz bereziak moldatu bait dituzte. Adibidez, *etorri*, *ethorri* aldebatetik eta *jin* bestaldetik; *aurrcan* eta *atizinean*, *aintzinean*, *aizinean*, *alitzinean*; *atze*, *beratz* edo *berats* eta *mardo*; *bilo*, *billo*, *bilbo* eta *ille*, *ile*, *irre*. Hontaz Euskaltaindiari eskatuko litzaiokena hau da. Lenengoa, bereziko hitzen lista egitea, esan-nai berdiñekoak, edo gutxienez oso antzekoak (zenbait «nuances» ba daude euskalkietan hitz desberdiñen artean), elkarturik. Lista hortan hitz bakoitza bere forma guztiekin jarri beariko litzake, noski. Bigarren lana. hitz bakoitzerako forma bakar bat aukeratzea izango litzake, adibidez, *ille*, *ile*, *ule* ta *irre* eraen artean, *ile* bakarrik aukeratu, esate baterako. Eta irugarren lana, euskalkien arteko egin ditezken «prestamuak» erabakitzea, eta prestamu hoiei buruz kontsejuak ematea idazleri. Oso komeni izango litzake, nere iritzi apalaz, prestamu-politika horri jotzea. Adibidez, alde hontako idazleek *etorri* hitzaren ordean, *jin* hitza sartzea, noizean bein, eta beste aldekoek *etorri* hitza pixka bat geiago usatu, noizetik noiz. Hortarako, berriz ere esango dugu, Euskaltzaindiak bear diran kontseilluak eman litzake.

5. Honerako esandakoa pixka-bat bildurik, antziñako hitz batasunaren saillean, Euskaltzaindiaren eginkizunik handienak hauek dira:

- I. Hitz orotar, era-bateko, eta gañera grafia-bateko diranen lista egitea.
- II. Grafia desberdiñeko hitz erabatekoen lista egitea.
- III. Lista hortan bertan hitz bakoitzari grafia bakar bat ezarri ta lista berri bat egitea. Agiri da, lan hau egiteko, euskal ortografia fintsatzea nai-ta-naiezkua dala, aurren aldetik.
- IV. Era-askotariko hitzen lista egitea.
- V. Lista hortan, forma bat edo geienez bi forma artzea, hitz bakoitzerako.
- VI. Lista berri bat antolatu, forma batuekikoa.
- VII. Bereziko hitzen lista prestatzea.
- VIII. Bereziko hitz bakoitzerako forma bat aukeratzea.
- IX. Bereziko hitzen saillean prestamu-politika bat eragitzea.

Esan ditugun eginkizunak ez dira sail hortan Euskaltzaindiak egin bear ditun guztiak. Alere, asteko naikoa dirudi eta esandakoa, abiatzen bada, antziñako hitzen batasuna lortuko da zalantzik gabe. Esan dezagun areago, proposatutako lanak diruditen bezain zaillak ez dirala.

ELKAR - HIZKETAK

ZATARAIN-EN HITZALDIAREN ONDOREN (1)

OSKILLASO: *Apur...* (cálculo diferencial) bestela naz zure eritxitik... ezin liteke emen erabili... «cálculo diferencial» ez da txikia... baizik beste zerbait... beste itzen bat behar dogu. Ezagutzen ez dan gauza batek ezagutzen ez dan itza behar du. Bestela... apurrak jaten...

MITX.: Krutwig-en iritzia aitatzia on litzaiguke... berak dio nola gaur... mundu zabalean sortzen dan zientzia guztia... gehien bat (75 %) lau izkuntza auetan sortzen dala: Al., In., Franc., Rus.

Au ala izanik, nahitanahiez... euskeran zerbait egin behar (tabladoan).

LASA: ...guk ere zergatik ez grekotik edo... xuxen artu, eta ez Al. edo Ing. bitartez?

OSKILLASO: ...antziñako kultura, lehengo bizikera... grekotik; oraingoa... oso diferentea, zibilizazio barrixa, zientzia barrixa... euren ixena ipini dabe euren asmatutakoari. Geuk asmatuten dogunean... geure ixena...

MITX.: Guk beti latinaren bitartez... orain, beldur naiz, alatsu jokatu beharko genduke... ingurukoetatik artuaz; alemanak 85 miloi dira eta gaurko zientzia guziaren %-ko 15 berak sortzen dute. Guk... edo euskeratik edo erderatik: bi ate dauzkagu... biak zabalik ditzagun. Eta erderatik artu behar degunean, zé itxuretan? jatorrizko bere forman edo euskaldunduz?

LABAYEN: ...nere iritzian... errazera jo behar degu: edo gaztelatik edo frantzeratik... eta euskaldunduz... zearo edo zeozer.

MITX.: ...euskaldunduz... ipar aldeko itxuran edo ego-aldeko itxuran? lehen...

L., BN., Z... zuten arrazoi, gu G. B. ixil... -ia (filosofia) t. a.

ZAT.: a ori artikulua?

MITX.: ...articulum mortis.

Gai ontaz... nola euskeratu edo euskaldundu... bakoitzak bere iritziak izango ditu, eta agertu...

S. M.: Itz teknikoak... datozen bezala artuaz noski...

YURRE: Euskeraz itza dagonean, bera; ez dagonean... artu ta euskaldundu.

OSKILLASO: Itzak beren istorixe dauke... sputnik... rusoak egina dalako; asmakizunak... jaiotzekoan bataiatuten dira... guk, dagozen moduan artu...

ZUBIA: Krutwig-en iritzia onartuko nuke. Alaxe derizkiot... eta errazagoa...

OREGI: ...ondoko erderatik? ala urrutiko erderatik?

INTZA: Eliz-idatzietan... Aita Santuaren enziklikak t. a. euskeratzekoan... bakoitzak itz-berriak sortu ahal lezazke?

SATRUSTEGI: Eliza-gai auetan gabiltza noski ondoen... lehendik ere euskera landua eta orain ere Liturgi-batzordeak t. a.

MITX.: Itzak sortzeko... euskera ona ta erraza dala uste degu... alegia itzak elkartuaz. Ala da baino gogora dezagun: erderaz... «poner», ap. in. per. pos. pro. inter. sup. tras. dis. t. a. euskerazko itz batentzat, erderaz amar edo amabost.

MITX.: alegia... ez degu aurrezkirik (prefijorik).

ALTUNA: euskeraz ari geranean... moldatzen gera. Itzulpenean beti dago eragozpena. Zergatik kontuan artu erderaz nola...?

MITX.: Itz teknikoak sekulan ez dira euskeraz erabili... eta euskera bizitzea nahi badegu... nolabait erabili beharko... izkuntza sistema bat da, eta ontara eldu bear degu.

OSKILLASO: ...itz arruntak... axe gorde daukaguna... itz teknikoak, gaurko zientziakoak... dagozen bezala artu ta ederki egingo dogu.

XX: Itz teknikoak t. a. ala bedi; baina filosofia danok egiten degu. Gai ontan eta giza-jakintzako gaietan... euskeraz alegia... euskeratik sortu.

ALTUNA: ...euskerak barrendik dakarren indarra landu behar degu. Barrendik kanpora. Etxepare-n itzaurrea, zuk egindakoa euskeraz (Mitx.), nik dakit zenbat kosta zaidan erderaz ipintzea... alegia, euskeraz... barrendik kanpora joan zera.

XX: Itz berriak sortzekoan alegin guztia *beretik*... giza-jakintza guzian... zien tzian, itz konkentzionalak danokin batera.

AMUTXATEGI: erriko itzak ondo dagozenean... beti artu behar. Lehenengo ondo aztartu... eta onartu. Jakintza gaietan...

MITX.: Giza-jakintzan... literaturan, erlijio-gaietan, poesian t. a. euskera zer-bait edo gehiago landua dago. Gai aukerabili izan dira. Ala ta guztiz ere... gai auetan ere itz tekniko asko dira... gramatikan bertan... edozein aurrek erabiltzen dituanak... eta euskeraz ez degu.

AITA VILLASANTE-REN HITZALDIAREN ONDOREN

Aita Villasante-k bere lana irakurri-alean... eztabaidak sortu ziran zein itz bereizi autagarrien bezala euskera idatzirako, batasunerako. Iritziak ontan ibili ziran, alegia: nola egin bereizkuntza... edaduraz, edo fonetikaz, edo jatorriz, edo tradizioz. Aukerak gogoan izan behar bereizketa ondo egin nahi bada.

VILL.: Ikusi dezazuten nolako eragozpena daukagun... itzak autatzeko. Eta batasunera jo nahi badugu, nahitanahiez zerbait egin beharko dugu. Esate baterako:

-ión (oración) -etik sortutako itzak: oraziño, orazio, orazino, orazione. Ze bukaera-forma autatu? fonetikari ta edadurari... G. *adio* ala *agur*? toki askotan bata besteagandik bereizten dituzte: *afari* ala *apari*? F-kin noski.

Agian-benturan; jauzi-erori; esnatu-iratzarri; lotsa-ahalke.

INZA: Sinonimo-iztegia egin beharko genduke... beste iztegieta bezala... eta esan-nahiak ondo finkatu.

VILL.: esan-nahiak, sentiduak, ez daude gure esku.

INZA: sentidua ondo errespetatuaz baina... nolabait iztegia... jakiteko.

LOIDI: ...kriterio bezala, bereiztekoan, zaharra artu... diote. Neretzat oraingo forma, berria, obe; gaurko bizia beregan dualako.

MITX.: Baina... gogora dezagun: oraingo egoeran, itzak forma asko dituzte, lehendik onuntz... itzen formak desberdindu, ugaritu eta banatu egin bait-dira. Itz zaharra askoz ere obe batasunerako, forma bat edo bi besterik ez bait-ditu.

SATR.: Sinonimo-iztegia zergatik ez sartu forma danak? Bakoitzak... fonetikaz edo tradizioz edo... egin dezala bereizketa.

VILL.: Nik ere... Lafitte-k esandakoa... *murritz*.

MITX.: batasunerako iztegia egin nahia edo gogoia edo beharraren kezka... Santamaria jaunak, bidali digun txostenean, onela derizkio: Euskeraren batasunera-ko... nahitanahiez iztegia osatu behar dugu. Era ontan:

- I: euskalki guzietan erabiltzen diran itzak eta gisa berean: *ama* t. a.
- II: euskalki gehienetan erabiltzen diran itzak... baina ez gisa berean: *afari*, *apari*; *ao*, *au*, *ago*, *abo*, *aho* (boca).
- III: euskalki gehienetan erabiltzen diranak, baina forma ezberdinetan: *ernara*, *enabera*, *añera*, *iñara*, *enara*, *aññara*, *einbara*, *aññhera* (golondrina). Olan asko.
- IV: Esan-nahi bera duten itz desberdinak: *jauzi-erori*; *esnatu-iratzarri* t. a.
- V: Itz batbera izanik... sentidu deberdinak dituanen... *eldu* (madurar, *llegar*, *acercarse*).

Euskaltzaindiaren einkizuna au litzake:

- I: Lista osatu iztegirako.
- II: Iztegirako... grafia ondo finkatu.
- III: Bariantetatik bat edo bi bereizi, eta auei aurrea eman edo...
- IV: Autagarrienak erabaki eta beraiei aurrea eman...
- V: Aztartu eta sentidu bakarra erabaki edo bereizi.

MITX.: Ni oraingoz... ez nintzake IV eta V-ko itzekin sartuko.? (askok).

MITX.: edozeinek... iztegiara jotzen du... itza bilatu eta erabakitze.

Euskerak ere... auxa behar du nahitaz.

Gainera... atzizkiak (sufijoak) ikututzen ez ditugularik... jakin-te, -tza, -turi, -nduri, oroi-men, -pen t. a.

(Iztegiaren gai oni jarrai zitzaion, bai elkarren arteko izketan, baita ere euskaltzainak (berak bakarrik) egin zuten billeran; auk, erabaki bezala, ontara etorri ziran: alegia, Santamaria jaunak bere lagun-taldeekin jarrai zezala batasunerako iztegi-lanean eta Mitxelena jaunak lan orren zuzendaritza ar zezala azken bukaeta on bat lehenbaitlehen emanaz, *Euskera* errebistan ager ahal izateko.)

MITXELENA-RENA

LEC.: Asi gaitezen bada; ea Mitxelena jauna!

MITX.: Nundik asi? alferrik litzake noski egindako papera irakurtzea... danon eskuetan da. Eztabaidarako zer onena?

Ezertan asi baino lehen, euskera-batasunaren gaia, euskera idatziarena da. Alegia, literatura ederrean, poesian t. a. ez, baizik idatzian, ikastoletan t. a. Orregatik, axaleko gauzak garrantzi aundikoak. Ni ez naiz ari eginkizun ontan, gustokoa dudalako... nerretzat Errenderikoa errexena ta ederrena, baizik eginbearra ikusten dudalako.

Erabakiak, baldin artzen baditugu, ezer ez lirake... indarrrik ez badago atzetik. Ni ez nintzan sartuko auzi ontan baldin ikusi ez banu indar berri bat, ez dakit zenbateñokoa, ba dala.

Beste kontua: erabakiak lan aundia ekarriko digute nahitanahiez... erabakita-koak nola egin behar diran erakusteko... alegia... esaten badegu itzak ala edo ola beharko luteke... gero itz oiek emango dizkigun iztegi bat behar degu.

Lojendio jaunak aitatu du: arriskua izan litekeala... edo kaltegarriak izan litezkeala batasunerako erabakiak. Baino bestela, gutxitzen gutxitzen goaz. Operazioa nahitanahiez. Gero, erabakiak... ez du esan nai behin betirako izango diranik... baizik gero ere aztertuko dira eta, agian, emendik urte batzutura Euskaltzaindiak beste erabaki batzuk artuko ditu.

Ortografia:

Zein letra erabili? ikus paperean. Auetaz gainera... izen arrotzak t. a. ez degu aterik itxitzen.

— F zearo ontzat artzekoa da. Letra au baztartzea eta galtzea... gipuzkoarrok egiña da. Adibidez: fede, alfer, afari t. a.

— Bi letra berdin: rr, ll t. a. Lehen, r tontorduna zuan erabakia Euskaltzaindiak; geroago (1953), Euskaltzaindiak rr onartu zuan. Orain ontan gaude. Gauzak dauden bezela uztea... onena.

— N sudurotsadun letren aurretik... ez dut ikusten arrazoirik aldatzeko.

— R konsonante aurretik idaztekoan r bat. Alaberean itzbukaerako... adibidez *Agur*, olako itzak gutxi dira... 10 edo 12, nahiz ta istillu batzuk sortu, ez du tontorrik erabiltzea merezi. Ar-eman, berexita... ez areman.

*Izpid*e jatorragoa *izbide* baino. Gure artean etimoloji-zaletasunak kezkatzen gaitu. Obe degu olakoetan... erriaren ekarriari segi: *Aizkorri*, *Aitzgorri* baino.

Guk, Bizkai ta Gipuzkoakoak... batzutan x (xuxen xamur) beste askotan tx (txori, tximist)... beste euskalkitakoak x bai batzutan bai besteetan. Batera nola jo? aitatu beharreko auzia. Nolabait egin beharra.

— *H* auzia gero astiro.

— *J*. Ez dut uste Euskaltzaindiak erabakitik artu duenik. Altube-k esandakora dabilta gehienak.

China-ko exenplua ekarri dezagun: nahiz ta elkar ez entenditu mintzatzen direnean... olakoetan luma artu ta ez dute eragozpenik... berdin idazten dituzte-lako, berdin esaten ez dituztenak (*Zatarain* jaunak exenplua argitzen du, *table-roan* marratuaz nola idazten dan *gizona* eta *gizona preso* dagonean). Aspaldiko ohitura da *j* erabiltzea... orrelaxen jarraitzea onena noski...

SATR.: Errextasunez, ola obe. *J*-kin mintzo ezberdinak... danok artzen ditugu.

INZA: *Yinkoa*, *Inkoa*, *Xinkoa*. *J*-k alde bakoitzean bere otsa dezala. Orrela' erraztu egiten da.

MITX.: Errenderi aldean: *atta*, eitten du, eĩñ du... esaten degu, baina aita egiten du, egin du... idatzi beharko, danok berdin.

Batzutan esan ta idatzi berdin, beste batzutan ez. Proposatuko nuke: berdin idaztea. Adibidez: aita, egina, iluna t. a. Alegia, nahiz ta bakoitz-mintzaeretan modu askotara esan, danok berdin, modu batera idatzi.

Batasunerako, nik... bi *ll* eta *ñ* kendu egingo nituzke. Adibidez: egina, iluna, zaina, erabili t. a. Esan... bakoitzak bere modura esango du, baina idatzi... danok ola. Ortografi aldetik, batasunerako, ola. Joan dan mendean: zaña, gaña. Baiona-n erabaki zan... gutxienez... zaña, gaña t. a.; eman dezagun beste pauso bat eta idatzi dezagun... zaina, gaina.

LAB.: Izketan, esanaz... jarrai dezala bakoitzak bere esanean...

MITX.: Idatzian ari gera... *atta* = aita (askok parte artzen dute izketan... Lab., Zat., Etxaniz...).

LAB.: Dana ezin erabaki degu emen...

MITX.: Au dana... uskeria dirudi, baina... ortografia batua... urte batzuen buruan... ontarako ari gera.

ZAT.: Esperanto...?

MITX.: Koine guziak... olako zerbait dira.

ZAT.: ...euskera berri bat?

MITX.: Goragotik artuko nuke: Krutwig-ek dion bezala *sistema* bat da izkuntza, euskera... *diasistema* da. Guk, nahitanahiez... danok batuko gaituen zerbait artu behar.

H-auzian sartu aurretik, gaiak berak indartzen ez dituanak ikus ditzagun: galdera, esklamazio t. a. auen grafiak.

? galderetan, nola? Europa guzian, azkenean bakarrik ipintzen da. España bakarrik, asieran ta bukaeran. Beraz... bukaeran bakarrik obe.

Apostrofoa... *t'erdiak*, zerbait laburtzen danean.

Izen propioak... *-ren*.

ETXAN.: ta... imprentarako t. a. lerro-bukaeran?

S. M.: ...Danera jota... idazteko makinan errazago da.

MITX.: Euskerak, atzizkiak...; ortik sortzen zaizkigu... baina bat bakarra erabili. Izen propioetan, gioia edo zerbait; izen ezaguna danean, gioirik gabe ondo lago... Paris-en, Paris-en... olako izenetan batere berexi gabe obe.

Apostrofuak, eta... erabiltzeko ohitura onek bere kalteak ekarri ditu:
Jaungoiko-aren, Jaungoikoa-ren... Euskaltzaindi-aren, Euskaltzaindia-ren.
Olako izen ezagunetan... batere berexi gabe obe.

Nik esango nuke: bereizteko egokiena: *-ren*. Bereizteko ez nolanahi... behar danean: *ezzagunetan*.

Aipamenetan?... Euskera-ren (reb.), Anaitasuna-k (reb.) (...tableroan) bereizi behar... izena ta dakarrena (liburuaren izena ta zitazioa).

S. M.: Izena subraiaturik, artikulua edo zitazioa... komilla tartean.

MITX.: Nolanahi... bereiztekoa erabili behar.

IRIG.: ...atzizkiarena bezalakoa... nahastekoa litzake.

MITX.: Istillua nunnahi... eta matematika t. a. —formuletan sartuko baginake...

ZAT.: Formula oiek... beste izkuntzetan pentsatuak.

LEHENENGO SAIOAREN BUKAERA

LEC.: Urrengo batzarra — iru t'erdietan.

MITX.: Ez dakit esan dudan, ni... «Baionako Biltzarra»-ren (1964. Agorrilla 29-30) ondoren... ari eutsiaz edo jarraituaz. An, itz batu elkartuaz... erabakia izan zan. Begira... esate baterako, kamioan gertatzen zaiguna: berez... ezkerretik edo eskubitik ibili ginezke... baina erabakia artu behar... danok era batean... edo ezkerretik edo eskubitik ibiltzeko. Alaxe... (tableroan). Baionan onela erabaki zan: Baieztutzeko *ba* bereizita... eta baldintzako *ba* lotuta; alaberean *bait*... lotuta.

Nere buruari egiten diodan galdera: Ea konbeni dan edo ez dan orrelako legea.

Jakiña... irakurtzekoan errexago da onela, baina idazlearen nekeakin da ori.

Nik uste... antziñako ohiturari jarraituaz... batuta, elkartuta obe litzakeala.

ETXAN.:

MITX.: Laburpenen kontra. Adb... *-lez* antziña eta ez ain antziña... danok orrela.

S. M.: Bizkai guzian bezelaxe... *-lez*, *-lexe*.

MITX.: *-legez* onena. Laburpenak, nork gere aldetik egiten baiditugu. Elkar-izketan t. a. ala... baina idaztekoan forma osoak obe... argiago. Itzak t. a. ez baiditugu era batera laburtzen. Adb... R. I. P. (Plaentxian gertatua), ara or «erreipé»... ni zigarroa erretzera noiak.

LEC.: Iñork ba du zerbait esatekorik gai ontaz... *-legez*?

OSK.: Ez dogula galdu behar. Mitx. jaunak diñona arrazoizkoa... baina konbeni litzake elkarren arteko euskalkiak ondo ezagutzea, bai alde batekoak bai bestekoak. Ondo ezagutu... eta ez galdu.

LEC.: Ea bada... zer? baterako lege ortan... ez al da gehiegi nahastuko? Nola litzake erraxago eta egokiago? garbitu...

BERR.: Ez al da obe Baionako legeari eustea? baieztutzeko *ba*, *bai*, eta ukatzeko *ez* aparte jartze ori... berez datorrena bezala da. Idazlearentzat nekea dala? idazleak, jakiteko obligazioa du... irakurleari eman behar zaizkio erraztasunak.

BERRIAT.: Baionakoa... onena.

MITX.: (tableroan) iru gauza ditugu: biak lotuta, biak aske, baieztekoan aske baldintzakoan lotuta. Antziñatik asten bagera... 1840 arte, guztiak lotuta... gero apostrofua edo gioia.

ARKOTXA: Azentuaz... adierazten dogu: *bá dá, báda*.

(Azento-bide ontan ezin garbitua) (Mitxren galderari ezin erantzun berak nahi lukean bezala).

LEC.: Azentoak... bakoitzak geren mintzaeretan erabiltzen ditugu... geren modura; batasunerako zaila.

MITX.: Arkotxa jauna, esazu: doñu-kontua garbitu nahi dut, ez da beste ezerगत. Emen bi esaldi daude: *bá dá* eta *báda*... azentoaren doñua nun dijoan... esaldiaren barrenean (beroaldia, nahasketa eta azento-doñua ezin txukundu).

ALTUNA: Doñuak ez du ezer garbitzen, ez digu laguntzen.

OREGI: *ez, ba, bai, bait*... oiek elkaturik behar luteke.

LEC.: *Ez*... gai au ez dugu ikutu oraindik.

MITX.: Askok bereiztea nahiago... Utzi dezagun Baionakoa... dagon bezala.

CHARRITON: Baionakoari jarraitzea onena.

ZAT.: ...ez al gera nahastuko?

MITX.: (tableroa). Euskaldunik gehienak... askok, guziok...: etzan, enuke, baitzan, banuke... berdintsuko aldaerak izketan eta antziñatik.

Baionan: ukatzeko ez bereizirik: ez du, ez luke t. a. Baina euskaldunago dala gogoan izan dezagun... eztu, eluke t. a. Baina idatzi... utzi dezagun Baionako erabakietan bezala. Lehen... apaizak ziran eredu nola esan, ortoepistak... orain, urte batzuk... apaizak ez bezala.

ZAT.: *bait* au... *bai* al da?

..... (ez da entzuten).

ALTUNA: Etimoloji-bidetik ezin argituko degu auzia.

LEC.: *bait* ortaz... inork ez du dudarik egin.

LAB.: Baionako legean... bereizirik... batasunerako onena.

ZAT.: ...ta gaizki irakurri?

OREGI: Baionako erabakiak argienak... onenak.

BAZTARRIKA: Neretzat ere alaxe.

CHARRITON: Errexari begiratuaz, pedagogi aldetik... aurren ikasterako t. a. Baionako erabakiak beharko ginduzke.

VILL. Dana batera obe. Lehen bezala.

ALTUNA: Nik ere alaberean... dana batuta nahiago: eztu, ezkaitu t. a. Ikasleak berehalaxe artzen dute lege au. Erraxa da.

ARKOTXA: Baionako erabakiak argienak. Bestela ez degu gauza onik...

LASA: *ez da: ba da*: bi konzepto garrantzikoak. Baieztu edo ukatu. Izan edo ez izan. Banaturik argiako... bi konzepto auek oso garbi behar dute.

OSK.: beti *ezta bada*... onela; zegaitik lege artifiziala sortu? beti bezala oba.

OREGI: beti bezala?... Bergaran... *ezta* beti, baina *ez zan*, *ez gaitu* t. a. orto-grafi aldetik legea behar degu. Zerbait alde beti izango degu esatekoan eta idaztekoan.

MITX.: Lege bat artzekotan... ni Baionakoakin geldituko nitzake. Ortografi aldetik.

ZAT.: ...gaizki idatzitik... gaizki esana dator...

SATR.: Zer derizkiozute bada? Baionakoakin?

DANOK: *Bai*. !!!!!!!

ZAT.: Txillardegi bera ere... azken alde ontan... lotzeko aldekoa.

MITX.: Ni ere literatura zaharretik t. a. lehengora noa... baina ez da eragozpena. Utzi dezagun... Baionakoa.

Letra H-ri buruz... iritzi batzuk

LAFITTE: *H* galdua hemen orain. Lehen... hori ez da arrazoina. Irakurtzaile zaharrak hil dire; gazteak (hauek salba behar badute), ez dute irakurtzen. *H* galtzen ari da: konsonante ondoren ken... eta bai bokal artean ere... Ustaritzen... Baigorri, eta itsas-egian ere. Eskuara ere... hiltzen doa. Nunbait salbatuko bada... hemen izanen da. Beraz, danok saia behar ginuke hemengoaren alde... hangoak eta hemengoak.

Nik ez nuke *H* sartuko hemen. Han, erraiten dugunez...

Gu hiltzera goazi... hiltzera doan ontzi bati ez lotu: behar bada ni... ez dut esperantzarik bihotzean... hemendik behar da.

CHARRITON: Ni ere bertze aldekoa naiz... han ere ba da gazteen eta zaharren arteko parabola. Hemen bezala, han ere, biologija partetik... *H* aldekoak arrazoi baidute... ni ere *h* aldekoa naiz.

ETXA.: ...gazteak uste dute ahalgo dutela *h* sartu; guk ez degu uste. Ez itxi aterik elkarr. Batzuk eta besteak... segi.

CHARRITON: Bideak ez dira trabatu behar. Askotan... zaharrak bideak trabatu dituzte. *Herria* ta *Egan*... *Zeruko Argia* bateratzeko gogoak eta asmoak izan ziran... zaharrak trabak... luza eta luza... ortan ez naiz konforme.

SATR.: *H*, eskandalorik gabe sartu behar litzake... bere neurrian... lehen ere agertu izan dira olako artikulua. Bere neurrian ongi da.

ETXAN: Ez dut esan... eskandalorik sortuko danik... baizik gauza zaila dala.

FZ. SETIEN: Ni ez naiz *bren*... redakzioetan behar da norbait ortarako... da-goala or.

S. M.: Baita beste faltak txukuntzeko ere... ortografiko eta morfologikoak...

ETXAN: Ez dut esperantzarik... erriak artuko balu... uste dut kaltegarri izango dala... orregatik ez artzea obe. Erraza ez bada, ez da... bestela engainua da... batek idatzi eta gero besteari eman *h* ipintzeko... erraza ez bada, utzi dezagun.

MITX.: Aita Alustiza-k esan digunez Elizako itzaldian (goizetik Ama Birjiñari egin diogun Agur-otoitzean) Ama Birjiñak bedeinkatzen ditu gure batasunerako asmoak eta ekintzak... eta goiko laguntza eta graziakin... goazen aurrera *H* kontu ontan. Emen ere Baionako erabakiak arturik... pausoka gauzak egiteko asmotan.

H. bi bokal berdinen artean beharrenekoa (tableroan). Xub.: ahari, Eibar: adari, gero: aari, orain: ari... garbi dago antziñatasuna zeinek duan. Inoiz behar: bada, olakoetan. 50 itzetan ola eginaz batasunerako pauso ona egina legoke.

H bi bokal ezberdinen tartean: abo, ago, ao, au... (boca). Aho idatzita bi bokal dirala adierazteko... errexago ta obe. Ortik, datorkigu argia silabak bereizteko.

Bi bokal berdin diodanean... *behar danean* esan nahi dut... ez sufijazioetan t. a.

MITX.: Itz-asierako *H*.

SATR.: Bi bokalen arteko *b* onartzen da?

ZAT.: *H* dutenak ez dute danak eraberean erabiltzen... guk, ez degunok, nola? *a* hande-ren iztegiari... *abo*, *Lomen*... itz elkartuetan galdu t. a. guk nola?

MTX.: Nolonahi ere... guretzat kalterik gabe eta askotan gure probetxurako... begi-batasuna egina genduke... eta antziñako ohitura gorde.

H literatura antziñakoan: Nafarroa garaian... Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Errioxa... amairugarren menden bizi bizi zegoan. Sn. Millan-go kartularioak ikustea aski. *H* ez da kanpotik etorritakoa... baizik etxeko sorkaria.

IBON SAR.: «Refranes y Sentencias», Moguel, t. a. (ez da ondo entzuten) bere iritzia *b* sartzeko alde.

ETXAN.: ...azkar bukatu.

S. M.: ...*z* ta *s* bereizten... ez da gutxiren problema; *b* errazagoa noski... *s* ta *z* baino. Bizkaia guzia ta Gipuzkoa erdia... or.

MTX.: Inprentarako idatzi-lanetan... probetan... nik dakit nolako lana izaten... *s* ta *z* behar bezala bereizten.

INZA: Erraztasunagatik... idazleak *b* gabe. Irakurleentzat... *b*kin zailago... orain jartzea nahi?

ARKOTXA: zaharrak... etxera, gazteak dira euskeraren etorkizuna.

ETXAN.: ...orain arte ez degun oztopo berria...

IBON SAR.: *b* alde...

MITX.: ...gazteak beti arrazoi dutela. Alegia... gazteak, bizitzaren etortiz, arrazoi, nahiz beste aldetik ez izan.

CHARRITON: *tch*... amar urte aski izan dira... *tx* sartzeko. Orain amar urte *tx* ren kontrakoak, hilak edo ixilduak.

S. M.: Andiko aldekoak ere gogoan behar ditugu.

LAB.: Ortografi-aldaera kaltegarria da. Areago... 50 dituen ortografi batean... zer edo zer aldatzea... *f* edo *rr*... olako ikutu txiki batzuk... ondo dago. *H* guziak itsumustuan sartzeta... nahaspilla aundia; batzuk, ondo bereiziak, baliteke. Beste aldekoak... frantses-kutsua edo...

MTX.: Frantsesak ez du influentziarik izan...

LAB.: Errextasunera jo behar degu. Alemanak kendu dituzte. Orain... bi bokalen erdian, edo itz batzuk bereizteko... Ni, bide-erdia naiz. Lehengo ortografiari eutsi... ez nolonahi aldatu... ikutu txiki batzuk... Lehengo ortografian egina franko ba da: Liturjia, Ikaskoletan, t. a. kontuz ibili gaitezten. Erri xehean *b* ren kontra... bertsolariak ere alatsu.

IBON SAR.: Alde ontako eta beste aldeko idazlerik onenak... *b*ren alde, *b*kin. Sabindarrak ere... bere garaian... nolako kontra izan zuten.

CHARRITON: Liturji lanean... batzorde bat behar zan... Euskalerrri osokoa... guk eskatu genuena... ta gure obispoak nahi izan ez zutena.

MTX.: Gu, G, B, indartsuenak bagera... aiei amor eman behar... guri dagokigu makurtzea eta amor ematea. Egia... ortografiak iraupena behar duala. Euskerak... batasuna nahitanahiezkoa du... eboluzio bidez, amaikagarren mendez geroz goitik behera dijoa; reboluzio bidez... zer? saia gaitzen. Gure izkuntza dalako ari gera. *H* gaitza da idazlearentzat... baino irakurlearentzat? Gogoan dut nola... gerra-aurretik... idazle bateri *h* kin idazten zualako ez genion irakurtzen...

ZAT.: Orain 33 urteko Mitxelena... ez al da gaurkoa?

MTX.: Aldez aurretik esan beharrekoak ziran... baina.. begira, Euskaltzaindiak euskeraren batasuna egin dezakeala uste izatea... uste ustela da.

Zeri egin dezake Euskaltzaindiak? gidaritza edo... bideak erakutsi... zuzendaritza edo... batasun-ekintzak ortara jo dezan.

Ni... batzorde teknikorako izendatu nindutenian... linguista nintzalako edo egingo zuten. Nik, nere ustez... eredu bat... estruktura tankerako zerbaite... model... eredu bat.

MTX.: Ni atzera begira nagoela... XIIItik gora... egia, bai, XIII aldera an urbilago zeudalako batasunetik... gu orain baino. (Tableroa).

Berez... fonema batek bestea sortzen du... batetik bestera aldaketa eginaz dator... zenbat eta beherago, onuntzago, etorri, orduan eta aldaketa... banaketa gehiago. Batasuna, gero ere sor liteke... baina ez berez... baizik, «koiné» bat edo... esperanto-antza pixka duena... artifizial antzeko zerbaite... bereizkuntzak baztertu eta bat. Bakoitza berean jarraituaz... batasuna etorri litekeala uste izatea... EZ. Ba da kimikan... lebe bat... alegia, bi gas (temperatura diferente)... ezin litzkeala batu... izkuntza-legean ere berdintsu.

Arira etorriaz, bi bide baizik ez daude batasunerako: edo *H* dutenak utzi, edo ez dutenak artu. Nik, bigarren bidea artu dut... uste dudalako... gaur ba dala indar berri bat *H* nahi duana... eta bide ortan zerbaite erakutsi nezakeala uste dut... orregatik sartu naiz auzi ontan.

Esaten nuen: ...nere ustez: *H* bi bokal berdinen artean, behar danean, *H* bi bokal ezberdinen artean, behar danean; itz-asieran... tradizioz... itz asko dira... artu behar litzake... ontarako iztegia, jakiteko.

Nik, asieran sartzeko eskatzen badut... ez omofonuak bereizteko... baizik tradizioan dagolako... gai ontan tradizioa lege.

Baionan konsonante ondorengo *h* kendu... ap(h)ez... Krutwig-ek olakoetan ere sartzeko, ez bazartzeko. Ortan, ondo dago. Konsonante oklusiben ondoren ezezik... beste konsonanteen ondoren ere kendu... bide laburrena.

Diptongo ondoren ere... goi(h)en, gai(h)en... *h* gabe, kentzea obe.

Itz alkartuetan... nola? sartu behar litzake noski.

Nik... eskainiko nuke: ...izkuntza idatziak tradizioa du oinarri... ala erderaz... pollo, poyo, cazar, casar t. a. *h* ere gorde dute... nahiz istillu batzuk sortu... Nik Euskaltzaindiari eskari au: Zilegi ar dezan... *H* erabiltzea *saio bezela*, begi onez ikusi dezan... bai erdikoekin bai asierakoekin.

SATR.: ...oztopo aundia? ez litzake obe erdikoekin asi...?

MTX.: Ebanjelioan ba da... «Nere Aitaren etxean, gela asko dira». Bide osoa zabalik... norbaitek bide-erdia nahi badu...

SATR.: Euskaltzaindiak... oraingoz... beharrenekoa nahi luke.

MTX.: Nik ez dut botererik, ez desirarik... zaharrak esaten zuten bezela.

.....? (asko izketan).

MTX.: Liturgia-izkuntzan orain ez inolaz...

LEC.: Emen erabakitako kasuetan... tolerantza bat izango litzake...

MTX.: ...azken azkenekoa liturgia... Eskola lehenbizikoa...

SATR.: *H*, orain pauso bat seguru... ortik aurrera giro bat sortu danerako.

S. M.: Hiztegia... Lafitte-k egin zuan. Komisio betak konpondu eta laburtu...

ZAT.: ...nun?

MTX.: Banan banan ikusi beharko.

ZAT.: Lan zaila...

MTX.: Frantsesez idazten erraxa? ikasteko orrenbesteko lanik ez...

S. M.: Iztegia lehenbaitlehen. Aldizkarietan t. a. zuzentzailea.

MUGICA: Euskerak... gaurko egoerari begira... erraztasuna nundik? G idatzian... mintzaeran... G oinarri artuaz, osatuaz... batasuna. G ez du *b* rik. Gaur euskaldunak... seitatik bost *b* gabe... gehienen kalterako dana ezin diteke euskeraren onerako izan. Erraxtasuna, demokrazia. Izkuntza landuetan... *b* galtzen dijoaz... (beste izkuntzatak ejemploak) jatorriari baino gehiago begira behar diogu euskeraren biziari, Gehienontzat... *b* gabe erraxago, *b* kin kaltegarri. Uxa dezagun *b* ori (Italiako ejemploa). Beste izkuntzak gogoz kontra daramaten zama... ez dezaiogun karga euskaldunari.

H kin dotorego? Yama-rekin neri gertatua entzun... urrutietako tokian... eskolan... 7 letrak in idazten asi zan bere izena... iru *b* sartuaz...

—¿por qué haces esto? galdetu nion.

—porque eso viste mucho... es más elegante.

Jaun Andreak!! ez dezagun indioarena egin! Erraztasunari lagundu eta indarra eman, eragozpenak kendu. Ba dira garrantzi aundiagokoak... itz sinonimoak... barianteak... esan-nahi asko dituztenak t. a.

H letrak ez du garrantzirik batasunerako (txaloak).

CHARRITON: Nere Hazparneko txokotik... galdetuko nuke: Nola esaten da «imperialismo»... *b* kin ala *b* gabe gipuzkera osatu ortan? (txaloak).

MTX.: A. Mugica-ren arrazoiak ondo konprenditzen ditut... eta ba dakit beren pisua ba dutela. Bai. Baina... (zorrotz) gauzak ez nahastu! Gaur bertan aitatu degu konsonante ondorengo *b*... ez bada alemanen ejemplorik ekarri... *Ph* (f) ta olakorik.

Gaur egunean... *b* erabiltzen dutenak nungoak dira? gipuzkoarrak.

Italia-ko aurrak... eskoletan ikasten dute italiar-izkuntza... beren etxetan gehienak ez baidute izkuntza ortan itzegiten... 80 % edo...

Gipuzkera osotuaren saioa egin zan. Zergatik... berriz pixtu?

IBON SAR.: Demokrazian... pisu bera al dute... artikulua bat edo beste... edo libururik onenak, sarituak... idazten dituztenak?

IRIG. J. A.: Batasuna... *b* gauza? izkuntza prozesoa bat da... batzeko moldeak... behar genituzke... soziolojiaren... klase-burrukak... dinamiak... bere legeak... ba ditu; lege oiek aztartu behar genituzke; auei buruz mintza obe; eta ez *b* kontuan jardun. Norberaren euskalkia bakarrik ez... ikasi gehiago, besterena ere bai... Batasunaren bidean aurreratzeko... utzi dezagun *b* kontua, eta ar ditzagun beste gaiak...

MTX.: Arrituta... J. A. ren esanakin. Ortografia auzian ari gera... errexena dalako. Komisio teknikoak... aditza, ta gainerakoak, ez zuan artu... zailegia uste zualako; bide ori... euskalki batena artu ta gainerakoak utzi beharko da. Zailtzat... zailegia... orregatik utzi gendun. Euskera idatziaz ari bagera... eta ortografiaz ezin badegu... nola arraio egingo degu batasuna?

A. YURRE: ...euskera batua... idatzi danetan, ala batzuetan? jakintza-idatzietan ala errikoietan ere bai?

SATR.: Ahal dan guzietan.

BORDARI: ...*H* batzuk artu behar dirala... ondo dago. Eskuarlean dauzkat eginak... olerki batzuk... nik ez dakit *b* nun... gazte batek lana egin nahi balu... nik emango nizkioke...

S. M.: ...(zorrotz)... berandu etorri ta iritzi-emenen...

BORDARI: Nik ez dut iritzirik eman... esan dut alegia...

S. M.: ...nahasten zabiltza.

IRIG. J. A.: batasuna... molde bat... orrek ez du esan nahi «uniformidad».

MTX.: Zuk, Soziologi-gaietan... baina Linguistika-gaietan... batasunak orixe esan nahi du: «uniformidad»... ortografian eta a.

(Askok itzegiten dute...) (txintzarria).

X. X.: Euskaltzaindiak bi eginkizun: jenderan iritzia jakin... erabakia artu. Iritziak... batez ere... idazleak eta irakasleak...

SATR.: Euskaltzaindiak ez du bere buruz erabakirik artu nahi... jendearen iritzia jakin nahi... itzaldiak segi dituenak ba daki...

LASA: *H* era bat kendu, *H* era bat artu... nundik bide ohea batasunerako?

SATR.: Igarle bat nahi zinduke... ezin.

VILL.: Mtx-ren ponentzia ortarako izan da.

ZUBIA: Dana ez... zerbait bai; Euskaltzaindia zuzendari dala... pauso onenak... eta aurrera! Gizabizitzak erakusten... digu: osoa ezin, zerbait bai...

LAB.: Bai ala ez... konfiantza ematen... Euskaltzaindiari?

DANOK: BAI!!!!

(Ondoren, Euskaltzainak, berak bakarrik, batu ziran erabakia artzeko. Azken-erabakirik oraindik ez da. Billera ontan, azken-erabakiaren aurrerapen bat onartu zan. Testua idatzi zan, eta argitaratu ere bai. Arantzazuko batzarraren bukaeran, billera zabalean irakurria izan zan eta erabat onartua.)

AZKEN-ITZ

Jaun eta Andreak:

Asierakoan esandako itz berakin bukatu nahi det, gure lanaren Azken-Batzar au: Batzar Orokarra, Bukaerako Batzar Nagusia.

Euskaltzaindiari, Euskeraren batasuna eratu dezala eskatu zaio, orain 50 urteko bere Sorreraren gogoangarri. Euskaltzaindiak bete du bere agindua. Irakurri zaizkitzute, iru egunez izan ditugun billeraen azken-itzak, conclusioak.

«Batasuna egiña dago» esango da. Esan dezagun obeto: «Batasunera-ko bidea ebakia dago». Gure billera oiek ez dute, bidea ebaki, bidea autsi besterik egin. Batasuna bera «egin», orain egin behar da, ibillian, joanean, praktikan: idaztean eta Ikastoletan azken-itz oiek beteaz, azken-itz oien neurrian idatziaz eta erakutsiaz. Zuen da, beraz, lana, batez ere: Idazleona, Andereñoona.

Euskera «teorian» batu degu, laburtu degu, errextu degu. Euskera elementala sortu degu: errexago idatzi dedin, errexago irakurri dedin, errexago ikasi dedin. Idatzi, irakurri, ikasi... Ortan dago orain lana.

Batasunak, hori errextu besterik ez du egiten. Eta hori da asieran esan nizutena eta gaur ere adierazi nahi dizutedana. Batasuna ez dala dana, batasuna ez dala «panazea» bat, Euskeraren problema guztiak askatuko dituana, gure Euskeraren gaitz guztiak erremediatuko dituan «panazea». Gu geurok gera. Euskeraren gaxotasuna sendatu behar degunak. Batasunak ez du ezer egingo, gu, batasunak sortutako osasun-giroaren barruan ahalegintzen ez bagera, idazten, irakurtzen, ta ikasten... eta itz-egiten, parra-parra itz-egiten. Ortan dago bizia.

Eta orrenbestez, AGUR.

M. Lekuona.

LITERATURA EUSKERAREN BATASUNARI BURUZ

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIA

Arantzazuko billeren ondorean, ban ziran euskaltzainak elkaturik, argi-bide hauek eman zituzten.

Arantzazuko batzarrea egin ondoren, Euskaltzaindiak eskerrak agertu nahi dizkie etorri diren nahiz beren iritziak bidali dituzten guztiei.

Lehenik ikusi duguna da guztion ustez gure hizkuntzaren batasuna behar-beharrezkoa dugula. Batasuna, noski, ez da Euskaltzaindiak egin dezakean gauza, eta are gutxiago bat-bat an egin dezakeana. Batasun hori, euskera idatzia-aren batasunaz mintzatu geranez gero, euskal-idazle eta irakasleen eskuetan dago, Euskaltzaindia gidari eta laguntzaile dutelarik.

Arantzazun izan diren eta ez diren euskaltzaleak argibide bat izan dezaten, Euskaltzaindiak geroago eta astiroago argitarako dituen erabaki eta lanen aurrerapena agertu nahi du orain.

- 1) Ortografiaren hortarako hautatu zen batzordeak adierazi dituen puntu gehienak onhartuak izan dira, ikusi dugunez.
- 2) *H*-ren hauzian, izan diren iritziak entzun ondoan, erdi-bide bat aukeratu da hasteko: alegia, begi onez ikusiko lukeala Euskaltzaindiak letra hori bi bokal berdin nahiz ezberdinen artean erabiltzen hastea. Honek ez du esan nahi gorago jo nahi dutenen saioak ez direla ongi ikusiak izango.
- 3) Morfologiaren izenen erabileraz batzordeak prestatu duen aintzin-lana puntu nagusietan oinarri bezala hartuaz jokatuko du, aditzarekikoa beste aldi baterako utziaz.
- 4) Aztertu dira, orobat, batzordeak euskal-hitz zahar eta berrien formaz gertatu dituen lanak, gero ere hori bide beretsutik hobeki lantzeko asmoz.

Atsegin hartu du Euskaltzaindiak elkar-hizketa honetan agertu den giroaz, gendetasunaz eta elkar lanerako gogoaz eta uste du, gero ere, guztion laguntzarekin, bere eginkizuna beteko duela. Hortan saiatuko dela.

EUSKALTZAINDIA

Arantzazu-Oñati, 1968-urriaren 5-ean.

BATASUNERAKO HIZTEGIA

ATARIAN

Arantzazu-ko batzarreko erabakiak, erabatekoak izanik, bana-banako erabaki xe-heagoak behar dituzte izan ondoren. Hizkuntza idatziaz mintzatu ginan han, batez ere, eta hizkuntza idatzi horretan erdietsi behar gendukean batasunaz. Eta hizkuntza idatziaren batasuna, gurearena beste zein-nahirena bezanbat, azaletik hasten da: hots, idazkeratik edo ortografiatik.

Ba dugu beste hauzirik, batasun bidean abiatu geranez gero, larriagorik agian eta gaitzagorik ere bai, baina ez, guk uste premiazkogorik. Horrexegatik bada, han hartu ziren erabakiak nolarebait mamitzeko eta gatzatzeko, legezko iruditu zitzaigun zenbait hitz-zerrenda prestatzea, nolako hitzen forma eta grafia erabili behar litzakean azaltzeko, gure iritziz behintzat.

Hau duzu lehena, hitzik usatuenak eta hedatuenak, hizkuntza idatziari dagokionez, biltzen dituenak. Ba dakigu behar baino gehiago baztertuko genituela; ba dakigu ere sartu behar ziren zenbait ez ditugula, noski, sartu. Huts horiek, ordea, ez dugu uste larriegiak izan ditezkeanik. Hurren datozen zerrendatan izango bait-da leku okerrak zuzentzeko eta hutsarteak betetzeko.

Hemen hitzen formaz ari gera, soil-soilik, ez hitzen erabileraz: hitz batek aurre-aldean nahiz erdian *h* bat behar lukean ala ez, *s*-kin idatzi behar litzakean ala ez, azkeneko *-a* berezkoa duen ala erantsia, *-o* duen bukaeran ala *-u*, eta abar. Hauek dira, huts-hutsik, zerrenda hauetan ukitu nahi ditugun gaiak. Zein hitz erabili behar diren, eta nola erabili, ardurazko gaia da, noski, eta guztioi dioakiguna, baina poliki-poliki, urratsez urrats doana urrtuaiaigo heltzen omen da maiz aski presaka eta lehiatuki debilena baino. Eta, batik bat, oinharrietarik hasi behar, etxea eraikiko baldin bada.

Hitz bi, azkenik, erabili den idazkerak zer adierazi nahi duen agertzeko.

1. Osorik idatzirik ez daudenak, honela baizik *ot-*, *sat-* etc... ez dira hitzak, hitz-zatiak baizik, hitz elkartuen hasieran maiz agertzen direnak; bere eskuko hitz osoa *sagu* da, beraz, baina *sat-*, *satandera*, *satarte*, *satitsu* eta beste batzuetan agertzen den *sagu*-ren euskal-ordezko egokia.

2. Letra bat parenthesis-artean ezartzen dugunean, bitara idatzi ditekela adierazi nahi dugu: *sasoi*, nahiz *sasoin*, esate baterako. Ba dakigu hobe ditzakeala beti

izkribu-modu bakarra izatea, baina ez dugu indarrrik aski aurkitu ez gure baitan ez gure inguruan ohiturak eta usuarioak erabaki beharko dituen puntuak geure buruz gogor eta zorrozki erabakitzeko.

3. Bi forma, bata bestearen ondotik, jartzen ditugunean berdintzat jotzen ditugu, pisu eta balio berekotzat, biak azpi-aldeko lerroz markatuak doazenean: *sebi* eta *sein*; *zibi* eta *ziri*. Ez, ordea, aurrena markatua eta ondokoa markarik gabe agertzen direnean: bata, lehena eta markatua noski, hobestekoa da horrelakoetan: adibidez: «*soro*, solo» («*soro*» hobe «*solo*» baino).

4 Hitz-forma edo aldaera horiek leku berean ez datozenean, *hiri* eta *uri* bezala, «ik.», hau da, «ikus» batek zuzentzen du irakurlea batetik bestera. Baina, entzun ongi, «ik.» hori, balio batekoak uste ditugunean bakarrik daramate biek; bestela, xumeenak, mendekoak darama soilik «ikus»; gailenenak, nagusiak, ez. Adibidez: «*solo*, ik. *soro*» («*soro*», «*solo*» baino hobea dala esan nahi du).

5. Izan ditezkean dudak garbitzeko, zalantzako hitzaren ondoan beste hitz bat jarri da, edo adibide bat: *ai* (deihadar) *abi* (janari), *ar* (emea ez dena), *bar* (zool.).

Zerranda hau eta honen ondoren etorriko direnak, diogun azkenik, ez dira inolazko maisukeriak eraginak; gure jakinduria urriak ez digu oinik ematen besteren irakasle bihurtzeko. Horrelako zerbit egiteko zegoen, eta luzamendurik gabe egiteko gainera, gure hizkuntzak iraungo baldin badu, eta lanean hasi gera haurra lehen urratsak egiten hasten den bezala, hala-hola eta ahal bezala. Hasiak egina omen dirudi ordea, Bizkaiko esan zaharrak dionez, eta oraingoa aurreratzeko, ugaltzeko eta hobetzeko asmoetan hasi gera, ahal dezakegun mailaraino lanean ekiteko asmoetan.

aha-, ik. aho	abiatu	hagin (Bot.)
ahaide	abisatu	agindu
ahal	aburu	agiri, ageri
ahalke	abuztu	hagoan (orekan)
ahantzi, ahaztu	ada-, ik, adar	agonia
ahardi «(zerri) eme»	adabatu	agor
ahari	adar, ada-	agudo
aharrausi	adats	agur
ahate	adierazi	agure
haati, (halare)	adin	ai (deihadar)
ahaztu, ahantzi	adio	ahi, (janari)
abade	adiskide	ai (h) en
habailla	aditu	ai (h) er
abantail (a)	aditz	hain
abar	adoratu	ainara, enara
abarka	adreilu	aingeru
habe	afari, afal-	aingira
abel-, ik. abere	haga	aingura
abendu	ager-, ik. agertu	aintzin, ik. aitzin
aberats	ageri, agiri	aintzira
abere, abel-	agertu, ager-	aipatu
aberri	agian	aire
habia, kabia	hagin (ahoan)	aisa, aise

aita	almute	har (Zool.)
aitortu	alor	har, <i>ik.</i> hartu
a(h)itu, akitu	altxatu	(h)aragi, (h)arat-
haitz	haltz (Bot.)	aran (Bot.)
aitzaki, <i>ik.</i> atxakia	altzairu, -eiru	haran (<i>ibar</i>)
aitzin <i>aintzin</i>	altzo	arantza, -tze
(h)aitzur	alu	(h)arat-, <i>ik.</i> (h)aragi
(h)aize	ama	arau
(h)aizkora	hama-, <i>ik.</i> hamar	arazi, erazi
a(h)izpa	amagiarreba, -ginarreba	arbaso
akabatu	habar, hama-	(h)arbi
akats	amarau(n)	arbola, -e
aker	amarra	ardagai, ardai
aketz	amarru	ardan-, <i>ik.</i> ardo
akitu, a(h)itu	amets	ardi, art-
akuilu	ametz	ardit
akusatu	amildu	ardo, <i>arno</i> , ardan-
ala (<i>edo</i>)	amore, -rio (<i>amore eman</i>)	ardura
ala- (<i>ala Jainkoa t. a.</i>)	(h)amu	are (<i>gehiago</i>)
hala (<i>gisa hartan</i>)	amuarrai(n)	are (<i>tresna</i>)
alaba	han	harea (<i>ondar</i>)
alaba	anaia	aretze, -txe
alabaina	and(e)re	argal
halaber	handi, <i>haundi</i>	argi, art-
alai	andura (Bot.)	argudio, -rio
alanbre	animalia, alimale	ari (<i>jardun</i>)
alargun	(h)anitz	hari (<i>josteko</i>)
alatu	hanka	harik eta
alba-, albait- (<i>aditz-aurrean</i>)	antolatu	haril
albi(ri)ste	antsi(a)	arima
albo, <i>ik.</i> alde	antz	arin
alda- <i>ik.</i> alde	antzara, -era	haritz
aldamio	antze (<i>trebe</i>)	arka
aldapa	antzo (<i>arau</i>)	arkitu, <i>ik.</i> aurkitu
aldare	antzu (<i>ume gabeko</i>)	arku
aldats	aho, aha-	arlote
aldata	ahotz	harma
alde, alda- (<i>aldaketa</i>)	apain	armiarma
alde, albo (<i>hurbil</i>)	apaiz, <i>apez</i>	arnegatu, <i>ernegatu</i>
alde, <i>talde</i>	apal	arno, <i>ik.</i> ardo
aldi	apartatu	(h)aro
ale	apez, <i>ik.</i> apaiz	(h)arotz
alegera, -e	apiril	harpoi(n)
alegia	apo	arrai (<i>alegera, amultsu</i>)
alfer	apostolu	arrai(n), arran-
alimale, <i>ik.</i> animalia	apostu, apustu	harramaska
alkar, <i>ik.</i> elkar	apur	arran-, <i>ik.</i> arrai(n)
alkate	apustu, apostu	arrano
alki, aulki	ar (<i>emea ez dena</i>)	harrapatu
		arras

arrastelu	atertu	aztura
arrats	atorra	azukre
arrau(l)tza, -tze	hats	ba
arrau(n)	atsegin	ba- (<i>baldin ba-</i>)
arraz	atsekabe	baba
arrazoi(n)	atso	bada
arreba	atun	bahe
arren	atxakia, <i>aitzaki</i>	baga
arrenkura, -gura	hatz	bago, бага-
harri	atzapar, <i>aztapar</i>	bai
arrimatu	atze (<i>arrotz</i>)	bahi
arrisku, <i>irrisku</i>	atzo	baina
harro	hau (<i>hemen dagoena</i>)	baino
arroka (<i>haitz</i>)	ahul	bainu
arropa	a(u)lki	baizik
arrosa	aunatu, <i>ik. unhatu</i>	bakan
arrosario	haundi, <i>ik. handi</i>	bakar
arrotz	ahuntz	bake
arrrunt	ahur (<i>esku-barren, -naba</i>)	bakoitz
art-, <i>ik. ardi, argi</i>	haur (<i>ume</i>)	bala
arta-, <i>ik. arte, arto</i>	aurkitu, <i>arkitu</i>	balaku
arte (<i>erdi-alde</i>)	aurten	balantza
arte, arta- (<i>Bot.</i>)	aurtiki, jaurtiki	baldres
artez	ausart	baldin
artikulu	ausiki	balea, balen-
arto, arta-	hausko, <i>ik. hauspo</i>	balezta
hartu	(h)ausnar, (h)ausnaur	balliatu
hartz	hauspo, <i>hausko</i>	balio
artzai(n), artzan-	hautatu	baltsa
asaldatu	hauts	baltsamo
ase	hautsi	bandera
haserre	hauzi	bapore
hasi	(h)auzo	baranda
aska	axola	baratxuri
aski	axuri	baratz, -tze
asko	aza	bar(a)ur
asmatu	azal	bare (<i>Fistol.</i>)
aspaldi	azaro	bare (<i>Zool.</i>)
aspertu	azeri	barkatu
aspil	bazi	barra
asta-, <i>ik. asto</i>	(h)azienda	barrabil
asti	azkar	barreiatsu
astigar	azkon	barren
asto, asta-	azote	barrena
asu(i)n, ausin	azpi	barrika
ata-, <i>ik. ate</i>	aztal	bart
atabal	aztapar, <i>ik. atzapar</i>	bartz
ate, ata-	(h)aztatu	baso, basa-
atera	azti	bat
	aztore	batel

batu	berri	birjina
bataiatu, bateiatu	bertso, -u	birla
batzuek, batzu	bertute, <i>birtute</i>	birtute, <i>ik.</i> bertute
bazka	bertz, pertz	biru
bazkari, bazkal-	besa-, <i>ik.</i> beso	bista
Bazko	beste, bertze	bitarte
bazter	besarkatu	bitika, pitika, -na
behar	beso, besa-	bixika
bcharri, belarri	besta	bitxi
behatz	bete	bihur
behaztopa	beti	bihurri
behazun	bezain	bizar
bedei(n)katu, benedikatu	bezala	bizi
bederatzi	bezpera	bizio
bedere(n)	beztitu	bizkar
behe, behere	bi, bida	bizkor
begi, bet-	bihar	biztu, piztu
begira	biharamun	bohatu, bu(h)a-
behi	Lida-, <i>ik.</i> bide	bola
behin	bidali	bolada
beila	bide, bida-	boltsa
behintzat	bider	bonbil(a)
beita	biga	borda
bekain	bihi	borla
bekaitz	bikain	borondate
bekatu	bikario	borrero
bekoki	bike	borrai(n)a, -oina
bela	Likor	borroka, burruka
belar, bela-	biku, piko	bort
belarri, beharri	bil-, <i>ik.</i> bildu	bortitz
belaun	bilatu	bortxa
beldur, <i>bildur</i>	bilau(n)	bortu
bele	bildots	bost, bortz
beltz	bildu, bil-	bota
benedikatu, bedei(n)katu	bildur, <i>ik.</i> beldur	botoi(n)
benta	bili-, <i>ik.</i> birigarro	ba(t)z, <i>ik.</i> poz
benturaz, menturaz	bilo	boz(a)
bentzutu	biloba	branka
behor	bilur	breska, <i>ik.</i> beraska
ber-, bir-	biluzi	brida
bera, beratz	bihotz	bu(h)a-, <i>ik.</i> bohatu
berandu, berant-	biper	bular
beraska, <i>breska</i>	bipi	bulkatu, bultzatu
beraz	bira	burasoak, gurasoak
berde, <i>ferde</i>	birao	burdina, burdin-
berdin	biribil	burla
bere, <i>ik.</i> ere	birigarro, bili-	burruka, borroka
berchala	birika, -ki	burrumba
berexi	biritxi	burrnzali
bero		buru

bururdi	hebaindu	eltze
buruzagi	ebaki	elur
busti	ebanjelio	ema-, <i>ik.</i> eme
butz, <i>ik.</i> putz	ebatsi	eman
butzu, <i>ik.</i> putzu	ebili, <i>ik.</i> ibili	emazte
buztan	edan	eme, ema-
(b)uztarri	hedatu	hemen
buztin	hede	emeretzi
	eder	enara, ainara
damu	ediren, idoro	ene
danba	cdo	enga(i)natu
dantza	hedoi, <i>ik.</i> hodei	enperadore
daraturu	e(d)uki	enplegatu
dardai	hega-, <i>ik.</i> hegal	entseiatu, saiatu
dardara	hegal, (<i>h</i>)ego, hega-	entzun
dardo	egarri	eho
dastatu	hegazti(n)	ehortzi
deabru	hegi	epe
debeku	egia	epel
dei	egin	eper
dei(h)adar	(h)ego, <i>ik.</i> hegal	erabaki
deitura	hegoa	erabili
denbora	egon	eragin
denda	egosi	eragotzi
desegin	egotzi	eraiki
desiratu	egun, egu-	erakatsi, <i>ik.</i> irakatsi
deus	egur	erakutsi
dilindaka, -dan	eguzki, <i>ik.</i> iguzki	eraman, <i>eroan</i>
dina	ei(h)ar, <i>ik.</i> ihar	era(u)ntzi
diru	ehizi, ihizi	era(u)si
distira	ekaitz	erantsi
diti, titi	ekarri	erauntsi
dohai(n), doha-	ekin	erauzi
dobera	hel-, <i>ik.</i> heldu	erazi, arazi
doi	elbar, <i>ik.</i> herbal	eraztun
doilor	elder	herbal, <i>elbar</i>
dolare	heldu	erbi
dolore	ele	erdera, erdal-
dolu	elefante	erdi
done	element(u)	herdoil
dorpe	elgar, <i>ik.</i> elkar	ere
dorre	elger, <i>ik.</i> ergel	eredu
dotore	eli	erein
duda	cliza	eremu
dukat	elkar <i>elgar, alkar</i>	herenegun
dupa	elkor	herensuge
dupina	elorri	eresi
	eltxo	er(e)tz
ea	eltzaur, <i>intxaur</i>	ergel, <i>elger</i>
cha, <i>ik.</i> cho		

eri
herio
heriotze, -tza
eritzi, *ik.* iritzi
erle
erloio,erloju
ermitau(n)
ernari
erne
ernegatu, *ik.* arnegatu
ero
croan, *ik.* eraman
erori
erosi
errabia
erraiak
errain, *errein*
errainak
erramu
erran, esan
errape
herratu
erraz
erre
erreal
errefain, errefau
errege, erret-
erregela
erregina
errein, *ik.* errain
erreka
erremedio
errenta
errespetatu
erresumin
erret-, *ik.* errege
erretor(e)
errezibitu
herri
erro
erroitz
erromeria
errota
erruki, *ik.* urriki
errumes
hertsia, itxi
he(r)stu, estu
ertz
hertze, este

errun
esan, erran
hesi
eska(i)lerak
eskaini
eskalapoi(n)
eskas
eskatima
eskatu
esker
eskola
esku
eskui(n)
esne
espal
espartzu
esperantza
esposatu
estakuru
estali
estatu
este, hertze
estimatu
estre(i)na
estu, he(r)stu
eta
eten(du)
etorri
etsai
etsi
etxe, etxa-
etzan, *etzin*
etzi
etzidamu
etzin, *ik.* etzan
euki, eduki
euli
eultzi
ehun
ehun (*oibal*)
euri, *uri*
exemplo
ez
ezagun, ezagutu
ezarri
heze
ezer
hezi
ezin
ezkaratz

ezkata
ezkel
ezker
ezki
ezkila
ezko
ezkondu
ezkur
ezkutari
ezkutu
ezpain
ezpal
ezpata
ezpel
ezponda
eztainu
eztarri
ezteiak
ezten
eztera, geztera
ezti
eztul
hezur
fabore
falta
faltsu
fama
familia
fandango
fantasia
fardel
fede
ferde, *ik.* berde
feria, peria
ferra
fidatu
fier, *pier*
fin, (*akabantza, xede*)
fin (*mebe, garbi*)
finkatu
fits
flako
fraide, fraile
frango, franko
fresko
frijitu
froga
fruitu
funts

furia	gatilu	gogo, goga-
fusil	gatu, <i>katu</i>	gogor
	gatz	goi
gabe	gatzagi	goibel
gabi	gau	goilare, koilare
gai, <i>gei</i>	gaur	goipe, koipe
gailur	gauza	goiz
gain	gazi	golde
gaitz	gazta, <i>gazna</i> , gaztan-	golko
gaitzuru, -eru	gaztaina	gona
gaixo, gaizo	gazte	gonbidatu
gaizki	gatzelu	gopor
gaizo, gaixo	gazteria	gor
gaizto	gatzigu	gora
gako	gedar, gedarre	goraintzi
gal-, gari	gei, <i>ik.</i> gai	gorde
galant	gehiago	gordin
galdata	gela	gori
galdu	gelbera	goroldio, <i>ik.</i> oroldio
galeper	geldi	gorosti
galerna	gereta	gorotz
galga	gerezi	gorputz
galkatu	geriza	gorri
galtzak	gerla, gerra	gorringo
galtzarbe	gero	gorte
gamelu	gerren	gosari
ganbara, -bera	gerri	gose
ganibet	gertatu	gozo, goxo
gantz	gertu	gramatika
gantzutu	gesal	grazia
gapirio	geza	grina
gapoi(n)	geztera, eztera	gu
gar	gezur	gudu
garagar	giharre, ginarra	gupida
garai	gibel	gura
garba	gidatu	gurasoak, burasoak
garbi	gider	gurbitz
gardu	gili-, kili-	guri
garesti	giltz(a)	gurin, <i>ik.</i> urin
gari, gal-	giltzurin, -un	gurtu
garizuma	ginarra, <i>ik.</i> giharra	gurutze
garondo	ginbalet	gustu
garraio	ginda, ginga	gutxi
garranga	girtain, girten	guz(t)i
garrasi	gisa	
garraska	giza-, <i>ik.</i> gizon	
garratz	gizen	hi
gartzela	gizon, giza-	ia
gastatu	gloria, loria	ihar, <i>ei(h)ar</i>
gatibu, <i>katigu</i>	gobernatu.	iharduki, ihardun, jardun

iharrausi	inaute, ihaute	isuri
ihaurri	imini, ibeni, ipini	it-, <i>ik.</i> idi
ihaute, inaute	inbidia	itaizur
(h)ibai	indar	ito
ibar	ingude	itsaso, itsas-
ibeni, imini, ipini	ino-, neho- (<i>inoiz t. a.</i>)	itxi, hertsu
ibili, <i>ebili</i>	inguru	itsu
ide, kide	inprimatu	itsusi
ideia	intsentsu	iturri
idi, it-	intxaur, <i>ik.</i> eltzaur	itxura
hidoi	intziri (na)	hitz
idor	inude, <i>ik.</i> unide	itzal
idoro, ediren	inurri, txindurri	itzarri
iduri, irudi	ipar	itze, <i>iltze</i>
ihes	ipini, ibeni, imini	itzuli
ifernu	ipurdi	itzuri
igan, igo	ira, iratze	izan
igande	irabazi	izar
igaro, iragan	iragan, igaro	izeba
higatu	iragazi, irazi	izeki
i(g)az, <i>jaz</i>	hiraka	izen
igel	irakatsi, <i>erakatsi</i>	izerdi
igeltsu	iraki(n)	izi, izu
igeri	irakurri	izoki(n)
igitai, -tei	iralki	izkutu
higitu	irasagar	izorra
igo, igan	iratzeki	izotz
higuin	iratzarri	izpi
iguzki, <i>ik.</i> eguzki	iratze, ira	izpiritu
ihi	irazki	izter
ihintz	irauli	iztupa
ihizi, ehizi	iraun	izu, izi
ikara	irazi, iragazi	izur
ikasi	ireki	izurri
ikatz	ire(n)tsi	ja
ikusi	hiri, <i>uri</i>	jabe
ikuzi	irin	jai, jei
hil	iritzi, <i>eritzi</i>	jaiki
hil, hilabete	irla, isla	Jainko
ilar	irri	jaio
ilargi	irrintzi(na)	jaitsi, <i>jatsi, jeitsi</i>
ilaun	irrisku, <i>ik.</i> arrisku	jaka
hildo	hiru	jakin
ile	irudi, iduri	jalgi, -ki
ilendi, ileti	irun	jan
iloba	isats, <i>jats</i>	jantzi
iltze, <i>ik.</i> itze	isil	jardun, ihardun, iharduki
ilun	isla, irla	jario, jariatu
imajina	istil	jarrai, jarrei-

jarri	kaskail	krozka
jasan, jaso	kaskar	kua
jats, <i>ik.</i> isats	kasket	kuku
jatsi, <i>ik.</i> jaitsi	kasko	kukula, -u
jaun	kasta	kuluska
Jaungoiko	kasu	kurrinka
jauregi	kaxa	kusku
(j)aurtiki	kate(a)	kutsu
jauzi	katigu, <i>ik.</i> gatibu	kutxa
jazarri	kausa	
jei, <i>ik.</i> jai	ke	lahar
jeitsi, <i>ik.</i> jaitsi	keinu	labaki
jende	kendu	labain
jaz, <i>ik.</i> i(g)az	kenka	laba(i)na
jo	kexatu	labe
joan	kide, ide	laborari
joare	kili-, gili-	labur
jokatu	kirats	lagun
jolas, <i>ik.</i> solas	kirika	laia
jorrai	kirrinka	laido
josi	kiskail	la(i)no
jostatu	kitarra	laka
	kitatu	laket (<i>izan</i>)
kabarra	kobla	lakio
kabia, <i>ik.</i> habia	kofau, kofoin	lamikatu
kable	koilare, goilare	lami(n)a
kafe	koinata, -tu	lan
kai	Koipe, goipe	lanbro
kaiku	kokots	landa
kaio	koloka	landare
kaiola	kolore	landatu
kaka	kolpe	lander
kalamu	konkor	lapa
kalte	kontatu	lapur
kamaina	kontra	laranja
kamamila	kontu	laratz
kamastra	kontzientzia	largatu
kamuts	kopeta	larre, larra-
kana	korapilo, orapilo	larrain
kanabera	korda	larri
kandela	kordokatu	larru
kanpo	koroa	larunbat
kantatu	korrokoi(n)	laster
kapa	korro(n)ka	lasto, lasta-
kapar	koska	lata
kapelu	kozkor	latz
kar, <i>ik.</i> gar	kraskatu	lau
karroi(n)	kriseilu	laudorio
karta	krisket	lausengu
		lauza

laxo	lupu	Mendekoste
legar	lur, lu-	mendi
legatz	lurrin, urrin	menturaz, benturaz
lege	luze, luza-	merezi
legen		merkatu
lehen	mahai(n)	merke
leher	mahats	meta
leial	madari	meza
lehiatu	madarikatu	mezu
leinu	magi(n)a	midiku
lei(h)o	maiatz	mihi
le(i)ze	maila	mihise
leka	mailu	mika, <i>ik</i> pika
leku	maina	mila
lelo	maingu	milikatu
lema	maira	min
lehoi(n)	mairu	mindegi
lehor	maite, maita-	mintzatu
lepo, lepa-	maiz	mira
lera	maizter	miraku(i)lu
lerden	makal	miru
lerro	makila	misterio
letra	makina	mitxa
leun	makur	mihura
leze, <i>ik</i> . le(i)ze	malda	mizpira
lezoi(n), pezo(i)n	malezia	modu
libratu	maltzur	moko
liburu	mami	mokor
likits	mamu	molde, molda-
lilura	mana-, <i>ik</i> . manu	morroil(o)
limurtu	mandatu	morroi(n)
lingirda	mando, manda-	mota
liho, linu	manu, mana-	motel, mutil
lizar	marinel	moto
liztor	marka	motz
lizun	marmar(io)	muga
lo	marra	mugitu
lodi	marraka, marraska	muino, muno
lohi	marruskatu	mukuru
loka	martxo	multzo, -u
lore, lora-	masta	mundu
loria, gloria	mataza	murritz
lot-, <i>ik</i> . lotu	mahuka	mus
lotsa	mehar	musker
lotu, lot-	mehe, meha-	musu
lu-, <i>ik</i> . lur.	memento	mutil, motel
lukainka	menda	mutu
lukuru	mende	mutur
luma	mendebal	
lupi (n) a	mendekatu	nahasi

nabar	omen	hosto
nabari	on	otarre
nagi	hondar	ote, ota-
nagusi	ondo	ote
nahi	hondo	otoi
naiz	hontz(a), huntz	otoitz
nahiz	ontza	hots
negar, <i>nigar</i>	ontzi	otsa-, <i>ik.</i> otso
negu	ohol	Otsail
neke, neka-	ohore	otso, otsa-
neska	opil	hotz
neurri	opor	ozen
ni	hor	hozitu
nigar, <i>ik.</i> negar	orai(n)	ozka
nini	orapilo, korapilo	ozpin
noiz	orbain	
nola	ordain	padera
non, nun	ordea	pagatu
nor	hordi	pala
nun, <i>ik.</i> non	ordu	palasta
	ore	panpoxa
oha-, <i>ik.</i> ohe	orein	papar(o)
ohar	hori (<i>zure ondoan dagoena</i>)	paper
hobe	hori (<i>kolore argia</i>)	paradisu
obeditu	horma	pare
hoben	hornitu	parrasta
hobi	oro	parte
hodei <i>hedoi</i>	orobat	pats
odol	oroitu	patxada
ohe, oha-	oroldio, goroldio	pegar
ofiziale	orratz	pelatu
hoge	orrazi	peoi(n), peon-
ogi, ot-	horrela	peria, feria
oi!	orri	pertika
ohi	orro	pertz, bertz
oi(h)al	hortz	petral
oi(h)an	ortz, ost-	petxa
oilo, oila-	ortzegun, ostegun	pezoi(n), lezoi(n)
oin	ortzirale, ostiral(e)	pier, <i>ik.</i> fier
oinaze	osaba	pika, mika
ohitura	osin, <i>usin</i>	pikatu
oi(h)u	oski	piko, biku
oka	oso, osa-	pila
okela	ospe	pilda
oker	ospel	pilota
ola	ostatu	pilotu
ola-, <i>ik.</i> olo	ostegun, ortzegun	pilpira
oldar	ostiral(e), ortzirale	pipa
olio	ostiko	pipita
olo, ola-		

pisu	sakratu	sobera
pitar	sala	sofritu, <i>sufritu</i>
pitika, -na, bitika	salatu	soil
pits	salbatu	soin
pitxer	salda	soinu
pix(a)	saldo	soka
pixar	saldu	sokorritu
pixka	salto	solas, <i>jolas</i>
piztu, biztu	saltsa	soldadu
plater	samar	solo, <i>ik.</i> soro
plaza	samin	solomo
polit	samur	sonatu
ɾopa	sandia	sor
porrokatu	sapa	soraio
porru	sarde	sorbalda
portu	sardina	sorgin
pospolin	sare	soro, <i>solo</i>
potolo	sari	sorta
poz, <i>bo(t)z</i>	saroe	sortu
pozoi(n)	sarraski	sos
premia	sarri	sosegu
presondegi	sartu	sostengatu
prest	sasi	sotil
prestu	sasi-	soto
pu(i)es	saski	su
pulunpatu	sasoi(n)	suhar
punta	sat-, <i>ik.</i> sagu	sudur
puntu	sator	sugandila
purga	satsu	suge
purgatorio	sehaska	suhi
purrust	seda	suil
puska	sega	sukalde
puta	segail	sukar
putz, <i>butz</i>	segitu	sufre
putzu, <i>butzu</i>	segur	sufritu, <i>ik.</i> sofritu
	segurantzaz	sumatu
sahats	sei	sumin
sabai	sehi, sein	suntsitu
sabel	sekula	
sagar	seinale	tabako
sagara	seme	taberna
sagu, sat-	senar	tailu, <i>ik.</i> taxu
sai	sendo, senda-	talde, <i>ik.</i> alde
saiatu, entseiatu	senti(tu)	talo
saihets	serora	tanta
sandu	seska	tantai
sakan, <i>ik.</i> sakon	seta	tapatu
sakatu	simaaur	tarrapata
sakela	sinetsi	tarrat(a)
sakon, sakan-		tarte

taxu, <i>tailu</i>	(t)xarrantxa	unide, <i>inude</i>
tegi	(t)xartel	huntz
teila	xahu	untzi, ontzi
tema	xehe, <i>ik.</i> zehe	uholde
tenore	xerrenda, <i>ik.</i> zerrenda	upa
tentatu	(t)xerri, zerri	(h)ur, u-, uh-
tigre	(t)xertatu	hura
tink(a)	(t)xilina, xilintxa	hurbil
tintatu	(t)ximi(n)o	urdai
tipula	(t)ximist	urdail
tira(tu)	(t)ximitx, zimitx	urdan-, <i>ik.</i> urde
tirria	(t)xingar	urde, urdan-
titi, diti	(t)xipa	urdin
to	(t)xipi, txiki	urduri
tobera	(t)xirla	urgatzi
toil	(t)xistu, ziztu	urguilu
toki	(t)xit	uri, <i>ik.</i> hiri
tontor	(t)xita, -o	uri, <i>ik.</i> euri
topa	xixa, ziza	urin, <i>gurin</i>
toska	xixare, zizare	urkatu
toxa	(t)xoil	urki
totel	xokɔ, zoko	urko
trabatu	(t)xopa	urlia
trabes	(t)xori	urrats
trakets	(t)xukatu	urratu
traidore	xume, ume	urre
tratu	u-, uh-, <i>ik.</i> (h)ur	hurren
trebe	uhal	urri
tresna	ubel	urriki, <i>erruki</i>
trikatu	ida	urrrin, lurrin
triste	udare	urritz
tripa	ugari, ugal-	urrixa, -uxa
tronpeta	ugatz, ugaz-	urte, urta-
trukatu	ugaz-, <i>ik.</i> ugatz	urruti
truke (<i>karta-jokoa</i>)	uhin	usai(n), usan-
troxa(k)	uka- (<i>ukabil, ukarai t. a.</i>)	usatu
turuta	ukaldi	usin, <i>ik.</i> osin
tut	ukatu	usna
tutu	ukendu	uste
(t)xahal	ukitu	ustel
xaboi(n)	ukondo	usu
(t)xalupa	uma-, <i>ik.</i> ume	huts
(t)xamantxa	ume, xume	uxatu
(t)xamar	(h)umil	utzi
(t)xanda, xainda	umo	uzker
(t)xano	umore	uzki
(t)xapel, zapel	hun, muin	uzkur
(t)xar	unai(n)	uzta
(t)xara	une	uztai

uztarri, buztarri	zekor	zirin
zahagi	zelai	zirritu
zahar	zelai	zirtzil
zabal	zelata	zital
zabar	zenbait	zizare, xixare
zabor	zenbat	zizeilu
zaflatu	zenbera	zizpa
zahi	zentzatu	ziztatu
zail	zentzu	zohi
zain	zepa	zoko
zaindu	zepo	zola
zakar	zer	zolda
zakil	zerba	zopa
zaku	zerbitzari	zor
zakur	zerga	zori
zaldar	zerra	zorne
zaldi	zerrenda, <i>xerrenda</i>	zoro
zale	zerri, (t)xerri	zorri
zali	zertu	zorro
zalke	zeru	zorrotz
zalu, <i>zauli</i>	zerraldo	zorte
zama	zeta	zortziko
zamar	zetabe	zotin
zango	zezen	zotz
za(n)patu	zihatu	zozo
zapat(a)	ziba	zu
zapata	zidor	zuh-, <i>ik.</i> zur
zapelatz	zigar	zuhar
zarbo	zigilu	zuhaitz
zare	zigoina	zubi
zarpa	zigor	zuin
zarrastatu	zikin	zuku
zartagi(n)a	zikiro	zulo
zartatu	zikoitz	zume
zati	zilar	zimitz
zauli, <i>ik.</i> zalu	zilegi	zur
zauri	zimel	zuri
zazpi	zimendu	zurratu
zehar	zimitx, (t)ximitx	zurrun
zehatu	zimur	zurrunga
zehe, <i>xebe</i>	zin	zurupatu
zein	zintz	zurtz
zeinatu	zintzarri	zutik
zeinu	zintzur	zuhur
zekale	zirau(n)	zuzen
zeken	zihi, ziri	zuzi